



Herriko bestak

Beintza-Labaien, Bera, Ziga, Gaztelu, Leitza eta Sunbilla

SUNBILLA → 32

8 lagunek idiaren aurka neurtuko dituzte indarrak

DONEZTEBE → 33

Josexo Ezkurra erremonte profesionalan

LEITZA → 44

Korto lehiaketa antolatu dute Atekabeltzen

BAZTAN → 46

Xorroxinen alde Behikaka.com igandean

Frantzia eta Espainiako kartzeletan preso dituzten senideen testigantzak

Milaka kilometro egitera kondenatuak daude bisitatzera joaten diren aldiro

ERREPORTAJEA → 3-5



Goizeko 11:30ean hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida jokatu da eta 17:30ean finala. Gero, ilunabar eta gau partean, besta giroak hartuko dio txanda kirolari. Laxoaren aldeko afaria 21:30ean izanen da frontoian eta ondotik gaupasa.

ARRAIOZ | Baztan-Errekako XXXIII. Laxoa Txapelketa

ARGAZKIA: ONDIKOL

Laxoa txapelketaren finala eta afari-gaupasa abuztuaren 4an

→ 48

BERTIZARANA → 40

Jakien planta irekitzeko proiektuari aldeko txostena

Martikok Narbarten egin nahi duen janariari plantari aldeko ingurumen txostena eman diote.

URDAZUBI → 50

Burdinaren egunaren 5. edizioa agorrilaren 11n

Pilotaren Unibertsoari buruzko ekitaldiak agorrilaren 4 eta 25ean, eta buruilaren 16an izanen dira.

ZOKKETAK → 55



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra

IBARDINGO GAINA - BERA

Biok



Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Mirentxu



Venta **BIODON**



Boutique **BIODON**

Mirentxu

GIZARTEA → PRESOEN SENIDEAK KONTU KONTARI

Eskualdeko 13 preso daude frantziar eta espainiar estatueta espexteetan

Bertzalde, hilabete honetan Beñat Atorrasagasti lesakarra atxilotu dute Eskozian

Iñaki Erro elizondarra 1987an atxilotu zuten eta kartzelan urte gehien daramatzan eskualdeko preso da, 25 urte. Berriki arte, Naia Lacroix senpertia zen atxilotutako eskualdeko azkena, otsaileen

atzemana. Baina azken asteotan bertze atxiloketa bat izan da: Beñat Atorrasagasti lesakarra uztailaren 13an atxilotu zuten Eskozian, Madril eta Parisen euroa-ginduz. Berak, ordea, uztailaren 16an

Eskoziako epaile baten aitzinean deklaratu eta estatu espainiar eta frantziarrera estraditatzera baztertu zuen. Abuztuaren 2an berri deklaratu beharko du Edinburgon eta bitartean atxilotuta edukiko dute.

G. PIKABEA

Etixerat euskal preso politikoen senideen elkarrearen arabera, 13 dira Frantzia eta Espainiako espexteetan dauden eskualdeko preso politikak, 6 estatu espainiarrean eta 7 estatu frantziarrean. Senideek kilometro saila egin behar dituzte bisitatzerako joateko eta etxeko edo lagunek senidea preso izatea nola bizi duten jakin gogoz, lau seniderekin egon gara.

Trini MIRANDA
Jones Lozanoren ama
(ARESO)

«Normalizazioa ezinezkoa da maite dena ikusteko 700 km egin behar direnean»

«Goizeko 8etan jaso nuen dei hura ez dut sekula ahaztuko. Mundua gainera etorri zitzaidan, dena beltz jarri zen. Baina berehala, horrelako egoera mingotsetan esperientzia dutenen laguntza jasoen genuen, geroztik gure bizitza markatu duen bidean kokatu eta orientatzeko». Trini Mirandaren hitzak dira, eta Jones alabaren atxilotetaren berri izan zuen uneaz ari da. Familia ttikia bada ere, Joneren hurbileko lagunei esker, familia haundi batean sentitu dela aitortu digu, eta hori ez duela inoiz ahaztuko. «Hasieratik inguruko babesa izugarria izan da, eta es-

ESKUALDEKO PRESOK POLITIKOAK, FRANTZIA (F) ETA ESPAINIAR (E) ESTATUETAKO ESPEXTEETAN

PRESOA	HERRIA	NOIZTIK PRESOK	ESPEXTEA	ESPEXTERAKO BIDAIA
Iñaki ERRO*	Elizondo	1987	Almeria (E)	1.940 km joan-etorrian, 19 ordu
Joxemiel GAZTELU	Elizondo	1997ko uztaila	Algeciras (E)	2.200 km joan-etorrian, 12 ordu
Joseba ARANIBAR	Bera	2007ko uztaila	Fleury (F)	1.822 km joan-etorrian, 20 ordu
Mikel KARRERA	Arantza	2010eko ekaina	Osny (F)	1.892 km joan-etorrian, 20 ordu
Mikel SAN SEBASTIAN	Lesaka	2008ko otsaila	Pontevedra	1.492 km joan-etorrian, 15 ordu
Iñaki FAGOAGA	Lesaka	1993ko urria	Alacant	1.346 km joan-etorrian, 13 ordu
Igor PORTU	Lesaka	2008ko urtarrila	Cordoba (E)	1.676 km joan-etorrian, 18 ordu
Andoni SARASOLA	Lesaka	2009ko abuztua	La Sante (F)	1.822 km joan-etorrian, 20 ordu
Mattin SARASOLA	Lesaka	2008ko urtarrila	Jaen (E)	1.608 km joan-etorrian, 16 ordu
Jone LOZANO	Areso	2011ko martxoa	Lyon-Corbas (F)	1.804 km joan-etorrian, 19 ordu
Iñigo ELIZEGI	Goizueta	2004ko apirila	Saint Maur (F)	1.320 km joan-etorrian, 16 ordu
Naia LACROIX	Senpere	2012ko otsaila	Châlons-en. (F)	1.890 km joan-etorrian
Frederic HARANBURU	Senpere	1990eko apirila	Lannemeza (F)	400 km joan-etorrian, 2 ordu

*Iñaki Erro zigorra 2010eko maiatzaren 16an bete bazuen ere, 197/2006 Doktrina ezarri eta 2017ra arte luzatu diote zigorra. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoaren artean dago, kardiopatia baten ondorioz.

petxeratu zutenetik 16 hilabetera orduko elkartzuna sentitzen dugu».

Jone preso dagoenetik «sentimendu kontrajarriak» omen ditu: «baretetik, indartsu eta animoso egoten saiatzen naiz, berak horrela egotea nahi duelako eta horrela behar gaituelako. Baina bestetik, eguneko 24 ordu-tan amorruek eta haserrea sentitzen ditut, eta beherraldiak izaten ditut. Gogorrena, behartuta, Jone faltatzen izatea egiten zaizkit».

Aldi bakoitzean, 900 bat kilometro egiten dituzte Jone ikusteko, eta «hain uruti egoteak egoera are krudelagoa» egiten du Trinirentzat: «atxiloketa unetik senideei ezartzen diguten zigor gehigarria ulertezina eta krudela da». Kudeaketa

pribatua duen Lyongo kartzelan du alaba, eta euskal preso politikak dauden lehen aldia da. Gurtxieneko eskubideak lortzeko borroka egin behar izan dutela azaldu digu: «isolamendu eta gogose grebetatik pasatu dira, eta orain egoera lasaia da». Astero gutxienez bisita bat egiten diote, eta batzuetan bi. «Gure maitasun eta babes guztia eramaten saiatzen gara», dio. Halere, bere irudiz, «lagun askoren bisita garrantzitsua da, bakoitzak Euskal Herriaren zati bat biziarazten diogulako eta gure artean sentiarazteko modua delako».

Espextean dagoenetik «alaba zuhurrago eta helduago» ikusten du: «eguneko 22 ordu ziegan egotearen ondorioz, nor-

bera hobeki ezagutzen da». 25 urterekin «muturreko egoera gogorrak bizitzen» ari dela uste du, eta «behartutako abiaduran heldutzen ari dela».

Egoera politikoa berriaz haxe iritzi dio: «Euskal Herriaren eskubidea onartu gabe segitzen dute, baina itxaropenez begiratzen diot egungo egoerari, eta batez ere, ideia eta ekimen berriak dituzten hainbeste gazte ikusteak animatzen nau». Espainiar eta frantziar estatuen jarreraz, ordea, zera dio: «noraezean dauden eta iniziatibarik gabeko politikariak daude estatuen buru, ez diet egoerak eskatzen duen ausardia eta borondaterik ikusten eta gure presioak behartuko ditu zerbait egitea». Bere hitzetan, «uste

baino gehiago kostako zaigu, baina presoaren etorkizuna etxean, herrian, beraien inguruarekin eta Euskal Herriaren gizariek justu eta solidario bat izan dadin lanean ikusten dut».

«Lehen minututik jaso dugun babesa eskertu» nahi dio jendeari, «ez garelako inoiz bakarrik sentitu, eta preso eta errefuxiatuak ekartzeko ekimenak babesteko ere eskatuko nieke. Gizarte honen normalizazioa ezinezkoa da, 600 familiaratik gora eta hauen inguruak maite dutena ikusteko batzate beste 700 kilometro egin behar dituztenean». Alabari, berriz, haxe: «animoa eman, bere tokia zain duela eta maite dugula. Gure babes eta indar guztia ditu hori ahalik eta azkarren lortzeko».

Haritz GAZTELU
Joxemiel Gazteluren iloba
(ELIZONDO)

«Bisitaren ondotik, hurrengora arte erratea da gogorrena»

«Atxilotu zutenetik 15 urte pasatu dira eta gauza aunitz gertatu dira tartean, atxilotzerakoan inkomunikaturik pasatutako bortz egunak, epaiketara eta sententzia, jasadako trasladoak –bortz kartzelatik pasatu da eta gero eta urrutiago dago–, gose grebak... Hori guztiak kezka sortzen dute eta momentu txarrak pasatzen dira». Haritz Gaztelu da solasean ari dena, osaba preso egotea nola daraman galde-tuz hori erran digu. Gaineratu digunez, «batez ere hasierako bortz egunez zer eginen zioten beldurrez egon ginen. Bere aitaren hileta egunean hemen egon eta berriro eraman zuten unea bereziki gogorra izan zen».

Inguruan babesa somatu du, baina «denetarik badagoela» aitortu digu: «badaude interesatzen direnak, ikustera joaten direnak edo bertze modu batez laguntzen dutenak. Bere bizitokian babes aunitzez ere zabalagoa jaso du eta zer bait eman duenari eskerrak eman behar zaizkio».

Bisitatzaz ere mintzatu zaigu. 1.100 bat kilometro egin behar dituzte osaba ikusteko eta horretarako, «esfortzu handia egin behar dela» dio. Baina garbi du bisita dela «presoari bizia ematen diona». Hilabetero familiarekin *bis a bis* bat izaten du, eta bikotekidearekin bertze bat: «hauetan berekin kontaktua izan dezakezu eta ordu eta erdi irauten dute». Aldiz, lagun arteko bisitak kristal baten bitartez dira eta 40 minutukoak. Algecirasera joateko, berri, senideak bisitatzera astero Euskal Herriatik ateratzen den au-



UTZITAKO ARGAZKIA

Trini, Joneren ama, eskuinean, Iruñeko Alde Zaharrean egindako kontzentrazio batean.



ARGAZKIA: TOTU ITURZAETA

Haritz Gazteluren osabak, Joxemielek, 15 urte daramatza preso.

DATUA

20

ORDU

joaten zaizkie senide aunitzei espetxean preso dutena bisitatzeko joan-etorrian.

tobusa erabiltzen dute. Funtzionarioekin duten harremanaz ere galdetu diogu: «normalean ez da arazorik izaten, nahiz eta beti baden baten bat izorratu nahian. Orain, zozketa bidez izaten diren *katxeoak* eta hatz markak utzi behar ditugu».

Osaba nola dagoen ere jakin nahi izan dugu: «berak ez du gai honetaz aunitz aipatzen galde-tzen ez badiozu. Bere nahia kanpokaldera itxura ona ematea eta umoretsu egotea dira». Baina Haritz «seguru» dago «une txar aunitz izanen dituela. Gaizki daudenean kideek elkar lagundu eta animatzen dute beheti ez etortzeko». Gaineratu digunez, Euskal Herriari sortu den egoera

politiko berriarekin «zer bait eginen denaren itxaropenez daude presoak, baina jakinda aunitz kostako dela eta oraindik ere edozein mugimendu egiteko aunitz borrokatu behar dela». Etxekoek ere egoera berri honekin «itxaropen gehixeago» dutela erran digu: «baina argi dugu estatuari pausuak ematea aunitz kostatzen zaiola eta gu ez

bagara mugitzen berriek arras eroso daudela dauden bezala. Estatuek psikologikoki eta errepre-sioa erabiliz irabazi nahi digute, baina ez dugu gure bidean etsi behar».

Senide izanda, bere kezka nagusia «presoaren egoeraren berri ez izatea» omen da. Eta gogorrena?: «bisitaren ondotik, hurrengora arte erratea, bera ikusteko ehunka kilometro egin, eta arras motza da bisita».

Herritarrei «presoak Euskal Herriari ikusi eta egoera berri honetan aitzinera pausuak eman daitezten, gure kezka eta haserrea erakusteko kalera atera behar dela» adierazi nahi izan die eta espetxean daudenei «animorik haundienak» bidali.

Gaizka SARASOLA
Mattin eta Andoniren anaia
(LESAKA)

«Egun bakoitza borroka bat da, gainditu beharreko erronka zaila»

«Anaiak erratan zuen bezala, zoritxarrez edo zorionez, pertsona zertara ohitzen ahal den ohar-tzea triste da. Bizitzak, berez, kolpe latzak ematen ditu eta horietara moldatu behar izaten dugu, eta guk ere, gure senideek pairatzen dituzten baldintzetara egokitu behar dugu etengabe». Halaxe adierazi digu Gaizka Sarasolak. Bi anaia ditu preso, Mattin Jaenen eta Andoni La Santen.

Aitortu digunez, «atxiloketa bera izaten da gogorrena, baina horren ondotik, altxatu eta ibiltzen hastea egokitzen da, eta ibilbide luze horretan garai xamurragoak edo gogorragoak daude, garai-ko kartzela politikaren edota espetxearen jarre-raren araberakoak hein handi batean». Gaineratu digu, «miaketak zirela eta, urte eta erdi pasatu ditugula aurrez aurreko bisitarik gabe. Batzuetan bisitara joan eta espetxean anaia kartzelaz aldatu dutela erran eta berri ikusi gabe bueltatu behar izan dugu». Halakoe-tan, babesa garrantzitsua izaten da: «presoek premiazkoa dute etxeko eta lagunaren babesa, baita senideok ere. Guk laguntza eta maitasun handia somatzen dugu inguruan».

Bisitetan kilometro saila egin arren, Gaizkarentzat, «etxetik hurbil egoteak ez luke presoaren bizi baldintzetara arinduko. Preso egotea da gogorra». Halere, sakabanaketak arriskua eragiten duela dio, «eta diru galera izugarria. Hori badakite presoek, eta horrek berez latza den preso izatearen zamari gaitz gaitz itzela gehitzen dio». Hilabetera behin etxeko norbait

anaiak batekin zein bertzearekin egoten saiatzen dira eta gainerakoan, astebururo joaten da norbait Jaenera, eta Parise-ra hilabetean hiru aldiz.

Anaiak nola dauden ere galdetu diogu: «Maitinek inkomunikazio garaian jasandako tratutxar eta torturek utzitako ondorioei aurre egin behar izan zien, eta horrelakorik jasan duenak bakarrik jakin dezake zein gogorra den. Baina orain, osasunez, animoz eta buruz sendo eta indartsu somatzen dut. Andoni ere osasuntsu eta indartsu». Presoen egoera da senideen kezkarik nagusia, Gaizkaren irudiko: «kartzela gogorra dela badakigulako, preso egoteak jendearengan zein eragin izan dezakeen jakitun garrelako; eta beraien lasterketa luze eta gogorra delako. Egun bakoitza borroka bat da, gainditu beharreko erronka zaila».

Anaiak atxilotu zituztenetik egoera zertan aldatu den ere erran digu: «hasieran etxea gainera erortzen zaizu, gero eltzetuek etxea hankaz goiti uzten dute, eta senideen lehen kezka eta nahia atxilotua ikusi eta indarrak ematea da; eta preso hartu dutenak ere etxeok ahal duen neurrian lasaitu eta animatu nahi ditu. Ondotik, etxea txukuntzen hastea tokatzen da, etxetik indarberrituz lehenik eta kanpoko animoak jasoz, preso eta senideak egoera berrira egokitzen has-teko. Horretan gabilta».

Une politiko berriarekin, senideentzat egoera eta bizi baldintzak ez direla aldatu dio. Baina aipatu digu, «bertze animo eta itxaropenak zabaldu direla jendartean eta horrek guregan ere bere eragina duela. Halere, funtsezkoa da preso zein senideentzat itxaropenari leihobat ireki arren, buruhotz eta argi edukitzea, konponbideak luze joko baitu». Sakabanaketare-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Gaizka Sarasola, Lesakako presoei eskainitako *Maite zaituztegu* dioen kartelaren aitza.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joana Haranburu senperrak 9 urte zituenean sartu zuten bere aita kartzelan. Orain 31 ditu.

kin bukatu eta gaixoak eta zigorra betetakoak kaleratzea ere premiakotzat jo du. «Baina guk presoak etxean nahi ditugu».

Joana HARANBURU
Fredericen alaba
(SENPERE)

«Etxekook ezin badugu, joateko norbait atzematea da orain zailena»

«Aita bere 23. urtea egiten ari da preso. Eta 23 urtez, zoritxarrez, mementu txarrak izan ditugu. Mementu zail horiek oraindik gogorragoak bilakatzen dira oztopo batzuen aitza». Joana Haranburuk horixe aitortu digu, Frederic Haranburu Txistor bere aita atxilotu zutenetik 22 urte bai-

no gehiago baitira. 9 urte zituen aita kartzelan sartu zutenean: «kasik lau pareten artean bakarrik ezagutu dut», dio. Eta «mementu zailak gogorago egiten dituzten oztopoen adibideak» ere eman dizkigu: «eritasunen kasuan berririk ez izatea. Espetxeko ate aitza ginelarik jakin izan dugu erietxera eraman izan dutela, eta bisita, dei edo gutunetan bakarrik jakiten ditugu berriak. Milaka adibide badira».

Etxetik 250 bat kilometro du aita, «nahiko hurbil», dio, baina bere hitzetan, «hainbertze urtez hainbertze kilometro egin eta gero, 50 kilometro dagoen kartzelara eramane balute ere sobera izanen litzateke».

23 urteotan gauzak aldatu egin zaizkie. Estatu frantsesean espetxe erregimen ezberdinak daude eta epaitu gabeko presoak *Maison d'Arrêt* deririko espetxeetan sartzen dituzte. Erregimen honetan, normalean, patoria egunero bi aldiz ateratzeko eskubidea dute eta gainontzeko denbora ziegan itxita ematen dute. Behin epaituak eta kondenatuak, *Centre de detention* edo *Centrale* batera eramaten dituzte eta hauetan, baldintzak leunagoak izan ohi dira. *Txistor*, gaur egun, *Centrale* batean dago eta «bisiten aldetik aintz aldatzen dela» jakinarazi digu Joana: «orain bisitak astebururo izaten ditugu, hiru ordu goizean eta hiru or-

du arratsaldean». Azaldu digunez, «amak, ahizpak edo nik joan ezin badugu, joateko norbait atzematea da orain zailena. 23 urtez jende aintzek bisita maiztasuna murriztu dute eta ez gira bertze lagunei joateko asmoa duten galdetzeraz ausartzen». Inguruaren babsa somatu ote duen galdetuta, positiboki erantzutea gustatuko litzatekeela erran digu, «baina maleruski ez da horrela. Jendeak, orokorrean, berriak galdetuko ditu, baina bertzerik ez».

Aita zer moduz dagoen galdegin diogunean «zahartzen» ari dela erantzun digu umoretsu, baina «orokorrean azkar» ikusten du: «ez dut ongi dela erantzunen, nahiz eta ongi izan. Etxean izanen dugunean/ditugunean egonen da ongi». Joanarentzat, gogorrena, «aitak bizitza osorako kondena izatea da. Frantzia horrelako kondena bat duzularik, badakizu hor zirela baina ez dakizu noiz arte. Jende aintzek hainbat urte eta gero Frantziak bere presoak aske uzten dituela uste du, eta ez da horrela, eta bereziki preso politikoe-kin. Niretzat gogorrena eperik ez izatea da. Urte bat oraindik? Bortz urte? Hamar?», galdetu du. «Oraindik ez dakigu ea egunen batez aita etxean ezagutuko dugun».

Euskal Herrian sortu den egoera politiko berri honetan, «itxaropena izan behar dugula» iritzi dio, baina bere ustez, «ez dugu ahantzi behar inoiz baino gehiago lan egin behar dugula, ez dugula deus itxaron behar etsaiengandik». Bere irudiko, «frantses eta espainiar estatuek ez dute urratsik egin nahi bake konponbiderantz». Horregatik «lortu duguna edo lortuko dugun guztia gure lane-tik aterako da. Ez dugu inoiz esperantza galdu eta ez dugu galduko».



Nire txanda
Joseba URROTZ

Krisia

Entzun edo aipatu duzue hitz hau azken bolaran? Bai badakit, seguraski egunean 30 bat aldiz, txantxetan ari nintzen. Halere, zera galdetu diot nire buruari: izanen ote da ia 7.000 miloi biztanle dituen munduko xokoren batean hitz hau entzun ez duenik? Bai noski, seguraski aunitz! Hara adibide bat... Orain dela urte bat pasatxo, Brasilgo Amazonian, oraindik zenbatu eta kontuan hartu gabe zegoen tribu bat ikusi omen zuten airetik, oinez ailegatu ezin den lekuren batean. Egin zuten argazkian bortz lagun ikusten omen ziren, itxura on eta osasuntsua zutela, papaia, manioka eta bertze barazkiak betetako zareekin. Eraginen ote die haien zareei Arrisku Sariak, errezesioak, espekulazioak eta krisiak? Entzun ote dituzte inoiz hitz horiek? Ez dut uste! Hala ere, haiek ere ez dira salbu, Peruko egurgileak hurbiltzen ari omen zaizkie, bazterrak suntsitzen eta gure zekenkeria gainera botatzen. Gizajoak!

«Haiek ere ez dira salbu, Peruko egurgileak hurbiltzen ari omen zaizkie»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Errege kurrela

Bertze edozeinek hilabete bat gehiago emanen luke bajarekin, baina nik lan egin behar dut. Kaskoa jartzen zuen artean Juan Carlos I.ak errana. Eta nire soldata %7 murriztu dut. Hori duk adibidea ematea! Eta gainerako langileak kezu, BEZa %21 era igo dela, langabezia saria osorik lehen 6 hilabetetan bakarrik kobratuko duela, hark sendagaiak ordainarazten dizkiotela... Enfin!

Nabarmentzekoak



Iñaki PERURENA
Urrezko Oilartxo

Iruñeko Napardi elkarre gastronomikoak ematen duen *Gallico de Oro* saria eskuratu zuen sanferminetan, leitza-rrak kirol eta kultur arloan egindako lana eskertuz.



Xanta SOUZA
Euskal Herriko marka berria

Nafarroako txinga eramate txapelketa nagusitasunez irabazi zuen Iruñean. 45 plaza egin zituen, lehendik Esther Iriarte narbartearrak zeukan Euskal Herriko errekorra hobetuz.



Josetxo EZKURRA II
Doneztebeko erremontelaria

Uztailaren 14an debuta egin zuen profesional-tan Ezkurraren ilobak garaipe argi batekin. Labakarekin batera, 35-16 irabazi zien Otaegi eta Aizpuru III.ari. Nagusi izan zen Ezkurra II.a

Atzera begira → 2002.08.01 / TTIPI-TTAPA 331. zbk



Baztan-Bidasoko «hondartzaren» inguruan ibilbideak

Leurtzako Urtegiak Natur eta Aisiarako eremuari indar berria eman nahi izan zioten duela hamar urte. Horretarako hainbat egitasmo azaldu zituzten, tartean urtegi inguruan prestatutako ibilbideak. Urtegien koordinatzailea zen Mikel Albusuren erranetan, «leku eder honetaz gustura gozatu ahal izateko esfortzu bat egin behar dugu, azken finean, leku hau dena disfrutatzen da, baina lasai eta gustura». Argazkian, Mikel Albusu ageri zen, Mari Jose Larraioz Urrozko alkatearekin eta uda hartan zaindari lana egin zuten Xabier Matxiñena urroztarrarekin eta Beintza-Labaiengo Yolanda Urrotzekin batera.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Iruñe eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerenziain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitza16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

San Migel zubia

Mikel TABERNA IRAZOKI, *Kapi*

Bidasoa muga da bere bidearen puska kokor batean. Baina haren gainean baditu, han eta hemen, bi bazterrak josten dituzten hariak. Horra San Migel zubia, konparaziora: alde batean, Lesakako lurrak (Alkaiaga), eta bertzean, Berakoak.

Historia luzea du (noiz eta nork egin ote zuten?). Santu izena eman zioten (nork eta zergatik ote?), baina seguru naiz bekatu bat baino gehiago egin izanen dela bertan.

Dudarik ez dena, istorio mordoxkaren testigu izan da. Bakarren bat pauso txar bat eginda handik putzura erori da, garraio ekarki zuen ardoaren karga gaizki kalkulaturik. Bertze zenbaitek euren burua bota dute, etsia emanda bizitzen segitu nahi ez zutelako, edo larrugorritan salto eginez, dibertsiozko erokeria egin nahirik.

Zubiko balkoia toki ona izan da uretara zernahi botatzeko harrika, baita katakume jaioberriak ere! Eta batere txarra ez arrantzale kaxkarrak ginenontzat, handik ikusten ziren amuarrainekin amets egiteko gehienbat.

Zubiaren erdialdean noizbait ere izan zuen argi bonbilla bat, baina beti puskatua egoten zen, gaueko lanean aritzen zirenek ez baitzuten nahi inork erretratua egitea.

Nolanahi ere, kanpoko jendearentzat, odol aunitz isuri zen bataila bat hantxe gertatu zelako da bereziki eza-guna. 1813an izan zen, zubia gurutzatu nahi zuten frantsesen armadaren eta fusilekin haien esperoan zeuden ingelesen artean. Horiek guziak goiti-beheiti, bertzela ere niri izugarri gustatzen

zait zubi zaharra, bere paretetako arrailduretatik ateratzen zaizkion basasagar, basapiku eta gainerakoekin; bere zuloetan apopilo bizi diren txori eta sugandilekin. Baina denborak ez du barkatzen, eta orain harriak erortzen ari zaizkio, guri hortz-haginak erortzen zaizkigun bezala.

Horregatik, aurten lagun kuadrilla bat juntatu eta konpontze lanean hasi da gogotik. Norbaitek kasu egitea merezi duela uste dute, gerora ere zutik luzaro irauteko. Auzolanean edo 'pajinan' ari dira, euren borondatez. Horratx, bertze istorio eder bat, zubiaren historiaren liburuan sartuko dena.

«**Horiek guziak goiti-beheiti, bertzela ere niri izugarri gustatzen zait zubi zaharra, bere paretetako arrailduretatik ateratzen zaizkion basasagar, basapiku eta gainerakoekin; bere zuloetan apopilo bizi diren txori eta sugandilekin. Baina denborak ez du barkatzen, eta orain harriak erortzen ari zaizkio...**»

Ezinaren nomadak

Joseba URKIOLA

40.000 dira espainiar estatuan urteko lehen seihi-lekoan argi bila erbestera direnak. Zenbat ote daude hauetatik, lehen etorkinek gorputzaldi txarra sortzen zietenek? Esaerak bizitzak buelta asko ematen dituela dio eta kasu honetan ezin ukatu. Urte gutxian goitik behera ikustetik behetik gora begiratze-ira igaro gara. Inork zalantzik bazuen ez zuela ur basoa dastatuko, asko itotze bidean dira ezinbestean.

Baina erbestera gabe ere, etxean geratuta atzerrira irten gabe, geroz eta gehiago dira etorkin sentitzen direnak. Madrilen ia astero hartzen dituzten erabakiek horretarako ematen die bide. Badirudi Espainiako Gobernuko ministro eta euren laguntzaile guztiak sega enpresa erraldoi batek babesten dituela ekonomikoki. Euskal Herriko segalariek jai lukete Ogasun edo Ekonomia saileko goi ordezkariekin. Hauek bai errotik, sakon-sakonetik eta izpi bat bera ere utzi gabe moztzen dutela dena. Pisatzeko orduan gainera ez dute apenas arazorik. Epaile gehientsuenak lagun dauzkate eta aurkariak geroz eta gutxiago izaki, nork egin kontra? Funtzioarioak belar txarrenetakoztat dauzkate eta azken hilabeteetan belarrondoko batzuk eman ondotik, mozteak ez du etenik. Eguberrietarako gutuna idazten hasi aurretik, oposaketak inoiz gainditu dituzten orok bada-kite ikatza izango dutela, 962 euro baino gutxiago irabazi ezean amaitu da Gabonetako paga. Ordu gehiago lan egin behar, soldata gutxiago irabazi eta geroz eta begi gehiago eurek egiten dutena kontrolatzen. Baina ez dira estatutaren langileak belar txar bakarrak, ez da gutxiagorik ere. Pentsiodunek ezin egona sortzen dute eta baita langabetuek ere. Oraingoz pentsioak ukituko ez diren arren, aspaldi daude hoztuta sektore honetakoak. 2012ko uda parte hau gainera mingarri ari zaie suertatzen. Sendagai asko ordaintzera behartuak daude irauteko, argia %7ko igo da eta BEZa %3. Kasu askotan %13koa da potolotzea. Lanik gabe daudenek, lehen 6 hilabeteak oparagoak izango dituzte hurrengoak baino. Urte erdia igaro ondotik ez baitute hasieran bezainbeste kobratuko. Lana aurkitzea nahikoa sufrimendu ez eta, hortxe zauriarentzat ozpin ikutu bat. Aldaketa hauekin guztiakin ezin ukatu zezen ekonomikoa geroz eta adarkada bortitzagoak ematen ari dela eta ez dirudi joerak etenik duenik. Tristeena, dena den, ez da adarkadak bakarrik hartzea, entzietan egon beharko luketen ustezko *artistak* hesiaren beste aldean irri gozoa eginez daudela jakitea baizik. Gozatu egiten dute besteren argia iluntzen ikustearrekin eta horretan tematuak daude aspaldian.

Europari eskatutako kreditu historikoa kosta ala kosta ordaindu beharrean dira eta horretarako edozein erabaki da posible. Ez harritu egun hauetako batean etxeko txikienei gozokiak patrikatik kentzeko dekretua ateratzen badute edo lege bat sortu, herrian paseatzeagatik kuota bat ordaintzera behartuak izango garena.

Irakurleak mintzo

Beste behin,
murrizketak
euskal
hedabideentzat

Eider Carton (Elhuyar)
Mikel Irizar (Tokikom),
Joanmari Larrarte (Berria
Taldea) eta Xabier Letona
(Argia), Herri Ekimeneko
Euskal Hedabideen ize-
nean


Eusko Jaurilaritzen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurilaritza, besteetan Aldundiak, besteetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaigu ere. Estrategikoa, bai, oinarriko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro inguruko jarduera ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotox dakigu hori. Inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitzeke: diru iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatzeko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gau-

zak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

Herri ekimeneko euskarzko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eskaera zehatzak ere jarri ditugu erakundeen mahai gainean: diru-laguntza politika aldatu eta hitzarmen ereduaz ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publikitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideek pisu handiagoa izan dezatela.

Horren berri eman diegu erakundeei (Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundia...), eta sektoreak egindako bideak txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira. Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horietan sartzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak izatera iritsi dira. Esan bezala, badakigu garai zailak direla guztiontzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea berregituratzeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-la-



Bota bertsoa
Gorka SANJURKO (Lesakako bertso eskola) • Doinua: Aita izena

Udarako plana

<p>Liburu, arkatx eta motxilak irailarte aparkatu eskola azkar ahanzi dugu eta rutinaz aldatu uda partean egin nahi dugu bizi hontaz disfrutat horretarako herriko bestak egin ziren inguratu bizitzaz eta udaz gozatu etzaitzte arduratu.</p>	<p>Uztaila eta uda erdia jada utzirik atzean festa mordua espero dira oraingik aurrerantzean horregatik behintzat ezdago inortxoere trantzean baina nahiz dena ahazten dugun parrandan motibatzean ai zenbat negar egin nituen sanferminak bukatzean.</p>
--	---

guntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorrizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntza hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da. Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berriz ere Eusko Jaurilaritari, eta gainontzeko erakundeei. Denon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok lanean segituko dugu, egoera berrietara egokitu eta kalitatezko euskarazko informazioa eskaintzeko. Erakundeei dei egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, behin hau egin da beharrezko baliabideekin horni dezagun.

Enrique Maya
eta Yolanda
Barcinari

Xanti BEGIRISTAIN (Iruñea)

Ikusi ondoren zer-nolako *ikuskizun* tamalgarria sorrarazi zenuten *Villavesa*ren entzierroan, bihozmina, lotsa eta amorruasentitu ditut denengatik, eta baita zuengatik ere.

Ikuskizun negargarria sorrarazi zenutela diot, zeren eta, zuek ez baldin bazenieten agindua eman polizia guztiei han egoteko, nork deituta agertuko ziren, ba, Estafeta kalearen erdian modu hartan jantzita eta armatuta? Entzierroko lasterkari bake-tsu batzuen aurrean baino gehiago, ematen zuen aurre egin behar zietela unibertso terroritarik terroristenei. Eta ez niri esangero lasterkariak izan zirela probokatazileak eta zirikatazileak, denok ikusi ditugulako irudiak! Hauek al dira zuek, Enrique Maya eta Yolanda Barcina, Iruñeko eta Nafarroako herritar arruntei buruz duzun iritzia, konfidantza eta begirunea?

Oso gogokoa duzue esatea sanferminak munduko jairik hobereenak direla (arrunt adierazpen dohai-nekoa, batere konparatu, baloratu, puntuatu... eta gogoan hartu gabe munduko inongo herri eta hirirako jaiak; honela neronek ere esan nezake Nobel saririk garrantzitsuen merezi dudala), eta gero, hau al da bertako jendea ematen diozuen tratua, gerrako etsaiak balira bezala, sanferminak pixka bat luzatu nahi izateagatik, inor molestatu gabe? Eta berriz ere aurreratuko natzaizue, mesedez, ez atera zirkulazioaren aitzakia! Nork sinistu behar dizue halako argudio eskasa, sanfermin guztietan eta askoz lehenago ere, herritarrek oztopatzen dituzten hainbeste salbuespen egin ondoren? Non egon da proportzionaltasuna? Edo agian izan da mendeku ziztrin bat, besterik gabe? Maya eta Barcina, gero eta argiago erakusten ari zarete zuen maila politikoa, demokratikoa eta pertsonal urri, bakan eta eskasa. Ez zaituztegu merezi! Ez zaituztegu behar! Eman, behingoz, bakea!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

BERA, SUNBILLA eta LEITZAKO bestak 2012
abuztuaren 2tik 6ra eta 10etik 15era



IREKI
LEIHOAK

T: 948 630 962
F: 948 625 400
M: 626 313 162

Aluminio R.P.T / PVC
Itxidurak
Kontraleihoak
Barandak | Berandak
Pertsianak | Toldoak

www.irekileihoak.com

Zalain Ind., 8 | BERA
irekileihoak@irekileihoak.com



HORTZ
Klinika

Orn. HILDA HILDEBRANT

948 631 581



BORTZIRI
UNSIÓN ANIAK

Sukaiderako altxariak

ONGI PASA BESTAKI

Bermeo etxea • LESAKA

Tel.: 948 637 206 • 607 226 801 • Fax: 948 637 611



Altxariak, argelak, porlata altxariak
bifonak, atariak, jantziak, platera,
karrakak, etxeak, moldurak
zakarrak, hilerak, marrazkiak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 631 317 • Fax: 948 631 587
Irungo errep. BERA

www.arizuzelai.com • info@arizuzelai.com



ONGI PASA BESTAKI

IZARRA BENTA

ibordingo gaina

Tel.: 948 631 317

BERA



Lizardi
TELEKOMUNIKAZIOAK

BERA | 670 415 720 | jesusanbordi@hotmail.com



Ituzia
KIMAKETA BEREZIAK, 14 metroko garabierekin
HIDROEREINTZA
kimaketak | zerrakurak | mantentimendua | ...

Zuhaitzak • Zuhaitzak

FERMIN MARITORENA LARRALDE
Hegoalde karrika, 33 • 31780 BERA (Nafarroa)
866 407 214 • 948 631 199



Errandonea s.l.
representación

Iñaki Errandonea
Tel.: 948 630 1902
Fax: 948 631 1002

ONGI PASA HERRIKO BESTAKI

Zanbi 11,
Alkaiaga ind.
31780 BERA



autoeskola

ESKANTZA BEREZIAK!

- INFORMATU ZAITEZ -

Ertegarra pamiñelusia, 20 BERA
T. 948 630 298
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
web: pasa.bestak

Plaza Berria, 7 LESAKA
T. 948 638 031



CARROCERIAS ALZATE

TXAPA eta PINTURA

Alkaiaga ind. Alzate, 4 - Tel: 948 630 373 - BERA



Udana
SOLAZONES

Gora San Esteban!
Importazio-ko
bakaburu, gaztuna,
gaztuna
eta kargelak



Alkaiaga ind. • Lesaka
Tel.: 948 631 536 • Fax: 948 631 550



Legia, 21 BERA

Albaitaritza Klinika

Txerriak • Anestesiak • Kirurgia
Pentzenak eta osagarriak
Zakurreraketa eta gaitariek

Ordutegia:
11:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00
Larunbatetan:
09:30 - 13:00

Tfona:
948 631 362 - 669 877 943



Ugaldea
maiztasun • aholkularitza

Rafa Pombar Sainz
aholkularitza fiskala-kontablea

ongi pasa bestak!

Sena karrika, 1
31780 Bera
tel: 948 63 02 01
fax: 948 63 02 00
e-mail: zainak@ugaldea.com



BERAKO bestak 2012

EGITARAUA

Uztailak 28 larunbata

17:00 VIII. Txirrindularitza Proba. Berako Saria. Kadeteak. Luzera: 60 km. **19:00** Tonbola besta Altzateko plazan. Antolatzailea: Berako Larun-Haizpe merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresen elkarte.

Uztailak 29 igandea BIZIKLETA EGUNA

10:30 Adin guzientzako bizikleta martxa. Kiroldegia-Matzada-Illekueta-Altzate-Legia-Herriko Etxea Plaza-Bidasoa karrika-Agerra-Bidasoa-Eztegara-kiroldegia. **11:00** Martxaren ondotik haur eta gazteentzako jolasak bizikletarekin kiroldegi aitzinean. **12:00** tailerra. **12:45** opari zozketa partaideen artean. **19:30** Herri kirol jaialdia Kiroldegi aitzinean. 1. zatia: Proba konbinatua: kokxor biltzea, zaku lasterketa, korrika eta arpana. 2. zatia: txinga (40 kg), ingudea eta lasto jaurtitzea. Antolatzaileak: Nafarroako Herri Kirol Federazioa eta Berako Herri Kirol Taldea.

Uztailak 30 astelehena

20:00 Bidasoaldeko XV. Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdia Ricardo Baroja Eskolako frontoian. Talde parte-hartzaileak: Tarca (Parana; Brasil), Kornicka (Eslovakia) eta Eraiki (Behobia; Irun). Antolatzailea: Eraiki Dantza Taldea. Laguntzaile: Berako Udala



amalein
ARRAINDEGIA

Alzate karrika 6, BERA
t. 948 630 981 ur. 620 828 737

Axalea

Alzate 26 | BERA | 948 631 121

ZALAIN
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa s/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 ur. www.zalain.com

edurne
HALCÓN ARRANDEGIA

Alzate, 20 • BERA • 948 631 491

BERA
DESINFEKZIOAK
DESINSEKTAZIOAK
DESARRATOITZEAK

GOIKO
INDUSTRIA
GARBITASUN
PRODUKTUAK

Tel.: 948 625 597 | Zalain, 42B | BERA.

besta zoriontsuak opa dizkizuegu

Botxo

botxostatua@euskalerrria.org - 948 630 052

ARTIEDA ESTANKOA
Estanco Nº 3
Calle de Puras

Información y reservas:
Tel: 948 630 451
Tel: 948 630 641
www.halconviajes.com

VENTA GORRA

Besta zoriontsuak jgarri!

VENTA GORRA
RESTAURANTE

ESTATUA
JATETXEA
Menuk | Kartak
KAFETERIA
BROGAREN
AUTZERBITZUA

Besta zoriontsuak jgarri!
Tel: 948 630 451 | Fax: 948 630 641
www.venta-gorra.com

Illekueta, 1
31780 Bera Nafarroa
Tel.: 948 630 451
Fax: 948 630 641
Mail: halcons91@halcon-viajes.es
www.bera.halconviajes.com

Halcon
viajes.com

Dia % SUPER ALKAIGA
ongi pasa bestak!

Estreparia, 6 - BERA Dia % Tel: 948 679 917

earnha
guztira

Arriaga 25 (ap) 48003-0899
www.earnha.net

Jorge Sopena Colombetti
ODONTOLOGOA
Colegiado 223

Dono, 111
31100 BERRIA (Nafarroa)
Tel: 948 62 00 47

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel: Fax: 948 63 10 27

xuga

tel: 948 631 519
www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

ONGI PASA BESTAK!

D

« « « « « H I R U K I D E » » » » »

Eguzki panelak • Iturgintza
Industria mantenimendua •
Aire egokitua •

T./F. 948 625 395
Alkaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • LESAKA

ML

ESTETIKA - ILKAPAINDEGI MINTOA

Arpilazte estetika
Hargaitasunak - silarbete
Oguzkaria - maiztasun
Muntaketa - pedikura

ongi pasa bestak! **ordua eskatu**

Hurlandeta, 4 BERA T. 948 630 483

Hotz komertziala
eta industrial

ongi pasa bestak!

INDARRI

AIRE GIROTUA

Tel: 948 630 895 • Mug: 639 103 805
BERA • indarri@terra.es

ELIZALDE bento

Ostaltua | Jabetzea

Benta on berrak pasak!

948 631 024
Ibardin | BERA

ongi pasa bestak!

**BIZIKLETA
SALMENTA ETA
KONPONKETA**

948 631 218

Kantillonberri 1, BERA

KATEA-BIKE

**BERATARRA
ERAIKUNTZAK**

Leitzako b. 66 - 8. blokea 2C
DONEZTEBE

Jose Ignacio Maritorea Larralde
670 489 337

ONGI PASA BESTAK



DENDA

GOYA

ARROPAK
Gantzak - Oinak - Jantziak
Kamandak - Buzak
Txanarrak - Txubaketaok
Bata - Apatuak
Euskarriak
Laneriak eta abar

**Bilatu gure
%50^{eko}
deskontuak**

ETXERAKO PRODUKTUAK
Kortinen konfektzioa
Toallak - Alforbrak
Mandirikak - Mantak
Edredoiak - Nordikak
Nordikoen fundak
Lanparak - Menjara
Burdindogiko erremintak
Oparitzeko detaliak

ZERBITZU PERTSONALIZATUA,
KALITATE ETA PREZIO
EZIN HOBEOAN

ongi pasa bestak!

Alkaga, 5 - BERA
T. Fax: 948 621 041





BERAKO bestak 2012

Abuztuak 2 ortzeguna BEZPERA

12:00 San Esteban besten hasiera adierazteko Herriko etxetik altxaferoa botako da eta ezkil-jotzea izanen da. Aldi berean, tti kiendako goxokiak eskainiko dira. **Ondotik** Erraldoiak eta buruhandiak karrizak karrizka ibiliko dira, Incansables Txarangak eta Ezpelur gaiteroek lagunduta. **17:00** Ezpelur Gaiteroek San Jose zahar etxean joko dute. **18:00** Kukaña Illekue-tan, Incansables Txarangak alaiturik. **19:00** Gaztexteban igoera. Aurreskuak, bertoak eta txalaparta. **20:00** Gure Txokoa Dantza Taldearen jaialdia Eztegarra pilotalekuan. **23:00** Dantzaldia Patxi Perez eta konpainia Altzateko plazan. Ondotik Platano dantza. Egun osoan, Incansables txaranga ariko da karrizak karrizka.

Abuztuak 3 ortzirala SAN ESTEBAN EGUNA

09:30 Herriko txistulariek argisoinua joko dute; Ezpelur gaiteroek herrian barna joko dute. **10:30** Udaltzatza, txistulariak, makil dantzariak eta Berako bandera aitzinean dutela, Herriko Etxetik San Esteban elizara abiatuko dira, Esteban Donearen ohoretan eta Berako abesbatzak lagundurik emanen den Meza Nagusia aditzera. Meza ondotik, Gure Txokoa Dantza Taldeko kideek Berako Makil dantzak eta Bordon dantza dantzatuko dute txistularien laguntzaz. Gero, Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariek kantatuko dute. **17:00** Incansables Txarangak San Jose zahar etxean joko du. **18:00** Gure Txokoa Dantza Taldeak Berako Aurrekuak dantzatuko du Herriko Etxeko plazan txistularien laguntzaz. Gero, Berako Bandaren kontzertua Herriko Etxeko plazan. **19:30** Ai Ene! taldearekin dantzaldia Altzateko plazan. **21:00** Dantza herrikiolak Altzateko karrikan (fandangoa, arin-arina, Larrain dantza, ...) gaiteroen laguntzarekin. **00:00** Su artifizialak Matxada futbol zelaitik. Pirotecnia Zaragozana-ren eskutik. **00:00** Ai Ene! taldearekin dantzaldia Altzateko plazan. Atsedaldian makil dantza. Egun osoan Incansables Txaranga ariko da.



GORA SAN ESTEBAN!
borz-ud.
TEL: 948 631 521

José I. Gonzalez Enguita
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

GANIX
FIAT zerbitzua
948 63 06 69

ilaikiak
Tel: 948 63 14 27

elika
Tel: 948 631 293

F. LANCHAS
Tel: 948 630 798

Pizzio
tubako-denda 2. s/ik
Tel: 948 630 798

TXARTELAK
Kartulina berezia 400gr. + 2 alde koloretan + BELZe berrin
500 92€
bista burtel
400 berrin 72€ - 200 berrin 88€
1000 berrin 114€
ttipi-ttapa

Ubela
MEKANIZATUAK
Zaldin Ind.: 8
T.F: 948 63 11 67
BERA (Nataroa)

JARRIKO GOZTEGIA
Besta gozo eta zoriontsuak opa diezkiezuegu
Alzate 19 - BERA
Tel: 948 630 798

SORKUNDE BENTA
Argi para herriko bestak!!
948 630724 • Ibañin • BERA

SEGUROS BILBAO Ongi pasa bestaki!
 Grupo **CATALANA OCCIDENTE**
Iriarte-Etxandi
 arrikaritza-abolukaritza

Ongi pasa bestaki!

TXOMIN IRAZOKI
FISIOTERAPEUTA
 MASAJEAK
 BIZKORTZE ARIKETAK
 ESKU TERAPIA

Echegoren, 22 barria • BERA | Paralelo, 7 • DORREZTBE
 948 631 391 • 670 471 006

SNACK BAR

- Eguneko menua (11€tik aurrera)
- Sagardotegi menua
- Karta
- Pintxoak
- Etxeko janaria

Ongi pasa San Estebanaki!

Itardien • BERA
 Tel: 0034 948 631 551

MARMOLES
ALKAIAGA, S.L.

Gisa guzietako lanak marmol eta granitoan.

ONGI PASA BESTAKI!

Alkaiaga ind. Zubi, 11 (sarrera Beratik) • LEBAKA
 Tel: 948 631 215 Faxa: 948 631 063
 Mug: 608 207 731

B E R A

Berako udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue

GORA BERAKO BESTAKI!



Mikel TELLETXEA GAGO | Portadako azalaren egilea

«Lehengo eta oraingo jendea nahasiz Sanestebanek tradizio luzea dutela erakutsi nahi nuen»


Lehen aldiz lehiaketara aurkeztu eta Santestebanetako programaren azal lehiaketa irabazi du Mikel Telletxea Gago, 27 urteko beratarrak. **«Bertze urtetan beti berandu enteratu naiz baina aurtego fundamentu pixkot egin dut eta lehenengoz aurkeztu naiz, hori bai, nahiz eta hasieran gehiago egiteko asmoa izan, azkenean bakar bat egiteko denbora eman dit».** Bilbon lau urtez Arte Ederrak ikasi eta gero, orain karrera Austrian bukatzeko asmoa du Telletxeak. Aurten, herri bozketa bidez erabaki da lehiaketa eta irabazlearen ustez, **«herri ttikia denez lagun eta ezagunen botoek garrantzia izan dutela imaginatzen ahal dut, baina ni kontent nago bederen batzuk nitaz oroitu direlako, eta seguru batzuei ere egitan gustatu izanen zaiela nire proposamena».**

Herrikoa izanik, gustokoak ditu Santestebanek, **«baina egia erran ez dut ekitaldietan sobera parte hartzen eta ez naiz behin ere dantzaria izan».** Ez da peñakidea ere, **«Agera alde horretan ez dugu inoiz izan blusa bat egiteko fundaunturik».** dio.

Txupinazo egunean ez bada, gaueko besta gustatzen zaio Mikeli eta **«azkeneko urtetan gaztetxetik antolatzen diren ekitaldiak, gehien bat musikarekin zerikusia dutenak».** Berbenak, aldiz, **«pixko bat zaharkituak»** iduritzen zaizkio, **«eta apenas ez dutela jenderik biltzen arratsetan».** Egitarauan zerbait berria proposatzerakoan, **«egia erran ez dut sobera eskatzen kontzertu on batzuk edo martxa pixkat daukaten DJak».**

Programako azalak lehengo eta oraingo bestak biltzen ditu collage batean, goiko irudian ageri denez. **«Iruditu zitzaidan—dio egileak— polita izaten ahal zela lehengo eta oraingo jendea nahastea eta azpimarratzea Sanestebanek badutela tradizio luze bat eta aspalditik ospatzen direla. Bertalde, pentsatu nuen zeresan pixkat sortzen ahal zuela: hau nor ote den, eta hura...».** Lehengo argazkiak ikusita **«ematen du orain bezain ongi pasatzen zutela, hori dudarik gabe, eta gainera ez zuten 'rege-tonik' jasan behar, orduan kaso ez baziren oraingoak bainan hobeak».** erran digu Telletxeak.

300 euroko saria eskuratu du bere sorkuntzaren truke. Udan lan bat lortzea zaila izanen zela ikusita lehiaketa batzutura aurkeztea erabaki zuen eta **«bederen honetan suertea izan dut eta diru hau hagitz ongi etorriko zait».** aipatu digu.





Joxelu LOIARTE | Berako musikaria

«Garai batean erabat murgiltzen ginen bestan, orain bazterretik gehiago begiratzen dugu»

Saxofoi tenorea eskuetan, ez du inoiz hutsik egiten Joxelu Loiartek musika bandak San Esteban egunean eskaintzen duen bestetako kontzertuan. Hori baino lehen, urtetan, Zizkuitz txarangarekin ere ibili zen herriz herri. **«Hainbat eta hainbat ordu ematen genituen elkarrekin eta azkenean familia bat bihurtu ginen. Oraindik orain San Estebanetan biltzen gara afaritto bat egitera eta gure tresnak hartuta txaranga inprobisatzen dugu. Nerezako egun polita izaten da, badakidalako ongi pasatuko dugula»**, erran digu Berako musikariak. Hainbat herritan ibili ziren txarangarekin, baina Loiartek Goizuetako bestak dituen gogoan, **«taldekide guztiei aunitz markatu zigun Goizuetak, lehenbiziko urte horietan jende pila bat ibiltzen zen atzetik eta izugarrizko harrera egiten ziguten. Hango jendearekin harreman polita izan genuen, oraindik mantentzen dena»**.

Musikaria den neurrian, **«musikarekin zerikusia duten ekitaldietara»** joatea gustatzen zaio Loiarteri bestetan, baina onartu du adinarekin besta bizitzeko modua ere aldatzen dela: **«Garai batean erabat murgiltzen ginen bestan, baina orain ez da gauza bera, bazterretik gehiago begiratzen dugu»**.

Garaiak aldatzen dira eta orain haurrekin barrakatan ibiltzea edo Gure Txokoako dantza festibala ikustea ere gustatzen zaio, **«haurrei ilusio handia egiten die dantzatzea, baita gurasoei ikustea ere»**.

Ikastolako gurasoa denez, barran txanda egitea ere suertatuko zaio eta aurten gainera, irailaren 29rako prestatzen ari diren Bortziritetako Haurren Egunerako laguntza lortzeko kamisetak ere salduko dituzte, **Bestak bizi, euskaraz lehenbizi** goiburarekin. Alde horretatik, Beran lehen baino euskara gehiago aditzen dela uste du Loiartek, **«gu poteatzen hasi ginenean erdara hagitzez gehiago aditzen zen euskara baino eta alde horretatik, badirudi kontzientzia gehiago badela. Euskara gehiago aditu beharko litzatekeela? Noski baietz, hori argi dago! Bada jende aunitz euskaraz jakin eta egiten ez duena»**.

Loiartek aitzindu digunez, **«egun horretan, 12:00etatik 19:00etara hainbat ekitaldi antolatu dira, haur bakoitzak 3 euro ordaindu beharko du eta gurasoak doan, familia handia bada, 6 euro. Puzgarri dexente izanen dira kiroldegi barnean nahiz kanpoan, herri kirolak, Irrien Lagunakeko zirko eskola, hip-hop, ostatu ttiki bat...»**.



Pinturas Pikabea

Molinero

2000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina 10 minututan zok nahi duzun koloreak

Esmalteak • Bemizak • Lasure urpintura
Margo klase guztiak • Bondex urpintura
Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

Zalain auzoa, Zalain Transformados fabrikaren parean • BERA • T. 948 630 240 M. 627 622 333

reformas
LASTER
berrikuntzak

ongi pasa bestoki!

SUKALDEAK • BAINUGELAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRA TTIKIAK ETA INTEGRALAK

Parad. Ezezagia, 14
31780 Bera - Ibañeta
Tel: 948 632 307 • M: 607 717 343
www.lasterberri.com

VENTA ALZVGVREN

JANARI DENDA • OROITGARRIAK • OSTATUA

GORA SAN ESTEBANAK!

Ibañeta • BERA • Tel.: 948 630 734

Javier Manterola
Tekniko instalatzailea

- iturgintza
- gasa
- berokuntza

© 629 44882
Ibarlandeta 4, Ibañeta • BERA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masajeak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Ietripu eta osasun aiegurua
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Ibañeta 1, Ibañeta • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colón Pas. 6 - Ibañeta • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ongi pasa bestoki

Oiartzabal
arkitektoak

Ipar karrika, 15
31780 BERA
T. 948 630 304 • 627 955 349

OSTARGI OPTIKA

Bidasoa 8 BERA
948 630 753

Kalash
JOYEROS

Karabonberri, 6 | BERA | 948 630 751
Melusian K., 7 | DONEZTEBE | 948 451 599

ZENTRU
LOGOPEDIKO • PEDAGOGIKOA
Nekane Ordoki Gortalez

- Ahozkoen zailtasuna
(Puntu gaitur, tonu, timbre, ...)
- Gauzak kontatzeko zailtasuna
- Irakurketa arazoak
- Idazketa arazoak
- Tarteak "tartamodo"
- Ahoz arazoak
- Arnaketa arazoak

648 894 333
BERA

FOFO • BROZKIZKIZ
GOIKO *de BERA*

Ahazte, 31 - BERA
Tfona 948 630 505
Bulgara 309 643 132
Fotografiatzen gaituzte

the cotté

hutsak • kosmetika

afropu

Pentura gaiturak eta emaitzak
Etako letrak • Jostailuak
Ogiak • Gabizarrak
Ekoizko miharrak • Jantziak
Ferretoiak • Bilerak
Ovotzak • Itzakak

ongi pasa bestoki!

Karabonberri, 5 • 31780 BERA • Tel. 948 625 285

domaSERVICIO

- Alarmak
- Biteo-zaintza
- Automatismoak
- Informatika
- Multimedia

Ahazte, 16 BERA | BERA
T. 948 630 602 | 912 036 960
info@domaservicio.es
www.domaservicio.es

eh
HOTEL CHURRUT

Churrut
hoteleko
jaketxea
(LENKONEA)

BERAKO BESTETAKO MENUA
Supperak:
Txipiroiak plantan dituen entsalada epela,
eta Hostonia onddoz beteta,
eta Borejina kumiskaria kanabera-etzarekin
Giparrak (jantzerak):
Legatza labean panadara patatekin,
eta Entrekota plantan pillo piperrakin
Pastreak (jantzerak):
Hiru-bokolatzeke tarta mandarina izozkiarekin, eta
Ahabia (arandano) Mouse-tarta jogurt izozkiarekin
eta Limoi sorbetea cavenekin
Ardoak: (Nafarroako JD) Kafee eta BEZ berrak
PREZIOA: 22€

Foruen plaza | BERA | tel.: 948625540
www.hotelchurrut.com



BERAKO bestak 2012

Abuztuak 4 larunbata

09:00 Musika Eskolako trikitilariak Dornakun ibiliko dira, eta Ezpelur gaiteroak Zalain auzoan. **10:30** Plater tiroa, ehiza ibilaldia modalitatean. Beratarrentzat. Antolatzailea: Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte. **11:30** igerilekuan haur eta gazteentzat XXV. Igeriketa Txapelketa, Gure Txokoak antolatua. **13:00** Kukaña Illekuetan. **14:00** Gaztetxe Bazkaria Kaxerna Gaztetxean (Sarrerak Katakua eta Errekalden 10 eurotan). **16:00** Txikiteo herrikoia Errekaldetik hasita. **18:00** Pilotari profesionalen arteko partidak Eztegarra pilotalekuan. Aspeko punta-puntako pilotariak. Sarrera: 25 euro. Salgai Puri-enean eta Zalain jatekuan. **18:00** Labiaga Ikastolako haurren dantza ikuskizuna Ricardo Baroja eskolako pilotalekuan. Ondotik, haurrentzako ikuskizuna: Irrien lagunak kantan eta dantzan. **20:00** Elkartasun kalejira Muxiku zubitik Altzateko plazara. Antolatzailea: Berako Herrira!. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur Gaiteroekin Altzateko karrikan. **00:00** Kontzertua Deskode eta Matxura taldeekin Altzateko plazan. Atsedendian enzerrioa. Egun osoan Incansables txaranga ariko da.

Abuztuak 5 igandea

09:00 Musika Eskolako trikitilariak Suspelan ariko dira, eta Ezpelur gaiteroak Kaule auzoan. **12:30** Erraldoiak eta buruhandiak Ezpelur gaiteroen laguntzarekin ibiliko dira Agerrian. **13:00** Kukaña, Illekuetan. **14:00** Kantu bazkaria Altzateko pilotalekuan. Antolatzailea: Labiaga Ikastola. Sarrera: Helduak: 15 euro. Haurrak: 10 euro. Salgai uztailaren 29ra arte Auzoa, Katakua, Xuga eta Botxo Ostatueta, Puri-enean, Labezar eta Agerrako Telletxea denda. **17:00** Haurrentzako jokoak Kiroldegi aitzinean. **17:30** Kuxkuxtu taldeak San Jose zahar etxean joko du. **18:00** Kukaña, Illekuetan. **18:00** haurrentzako eskalada Herriko Etxeko plazan. **19:30** Tecalitlan mariatxiak Herriko Etxeko Plazan. **21:00** dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Alzaten. Ondotik zezensuzkoa aterako da. **00:00** dantzaldiak.



Kotoi
Kortinak
Estoreak
Etxerako
ehungintza
osagarriak

Ricardo Baroja 14 - 31780 Bera - T./F. 948 631 600
www.kotoi.com

ITURRIONDO
ZURGINDEGIA
ZURGIN LANAK OROKORREAN

T./F. 948 631 430 • M. 607 890 823
Zalain ind. 7 • BERA

ZELAIETA
tabakodenda

agurtzak, sarrak
bitartekoak • BERA • 948 631 246

ONGI PASA BESTAK

Luxia

ostatua • jatekua
94863271 • Itzaia Herria, 2 • BERA

ERROTAZAR
harategia

Errotazar 3 • BERA • T. 948 630 088 • F. 948 631 657
e-posta: errotazar@beraforosa.net

Instalaciones JAURENA, S.L.
instalazio elektrikoak
etxe-irratzak
sukaldeko altxorak
antzerak

Jaino Oso Berrak, 6 • 31780 BERA • M. 948 631 217

ERREANDONIA, s.l.
BILGEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA.

esarte

Santiago 83 B bajo
31700 Elizondo
T 948 581 907
www.precocinadosesarte.com

UDAKO ETXEA
Benta • Ostetza • Jatekua

Latan • BERA
Tel: 948 63 11 15
Tel: 00 34 948 63 11 15 (iparraldetik)

Ongi pasa bestak!!

Larun-herria
BERA

uztailak 28
19:00
Altzateko plazan

ONGI PASA BESTAKI!

tonbola besta

rifla
telebista.
ordenagailua,
bidai,
erosketa-saskiak,
otorduak,
mendi bizikleta,
taladro,
bihurkina...

ZORTE ON!

Uztailaren 1etik 27ra gure dendetara hurbiltzen direnel zenbaki bat emanen zaio TONBOLAn parte hartzeko. Sana hartzeko egun eta ordu horretan bertan izatea ezinbestekoa da

BURUNDESA
LA BURUNDESA

Geltoki karrika, 5 • BERA • T. 948 630 261 - 948 631 008

IRUÑEA - LESAKA - DONOSTIA

	ASTELEHENETIK OSTIRALERA				LARUNBATA			IGANDEA - JAIEGUNAK
IRUÑEA				18:00			16:30	18:00
ORNOZ-MUGAIRI				18:30			17:00	18:30
DONEZTEBE				18:40			17:10	18:40
LESAKA	07:00	09:00	14:30	19:00	09:00	15:00	17:30	19:00
BERA	07:10	09:10	14:40	19:10	09:10	15:10	17:40	19:10
IRUN	07:45	09:45	15:15	19:30	09:25	15:25	18:00	19:30
DONOSTIA		10:15			10:00	16:00		

DONOSTIA- LESAKA - IRUÑEA

	ASTELEHENETIK OSTIRALERA				LARUNBATA			IGANDEA - JAIEGUNAK
DONOSTIA		13:30		18:30		13:30	18:30	08:30
IRUN	08:00	14:00	15:15*	19:00	08:00	14:00	19:00	09:00
BERA	08:20	14:20	15:35*	19:35	08:20	14:20	19:35	09:20
LESAKA	08:30	14:30	15:45*	19:45	08:30	14:30	19:45	09:30
DONEZTEBE	08:50				08:50			09:50
ORNOZ-MUGAIRI	09:00				09:00			10:00
IRUÑEA	09:30				09:30			10:30



BERAKO bestak 2012

Abuztuak 6 astelehena

09:00 Musika Eskolako trikitilariak eta Ezpelur gaiteroak Garaitarreta eta Suspel-ttiki auzoetan ibiliko dira. **10:30** Herriko pilotarien pilota partidak. Benjaminak, alebinak, infantilak eta helduak, Gure Txokoa elkarteak antolatua. **12:00** Erraldoi eta Buruhandiak Alzateetik Herriko Etxera, Incansables txarangak lagunduta. Agurra Erraldoi eta buruhandiei Herriko Etxeko Plazan. **14:30** Herri Bazkaria eskolako frontoian (Sarrerak salgai Errekalde eta Xuga Ostatueta uztailaren 31 arte. Prezioa: 15 euro. Platera, edalontzia eta mahai tresneria eskuratzeko: 3 euro. Material hori itzultzean berreskuratuko da dirua.) **17:00** Ezpelur gaiteroek San Jose zahar etxean joko dute. **18:00** Kukaña, Illekuetan. **18:30** Katuska jauirtiketa kukañan. **19:00** Bera kantari. Xuga-Errekalde-Lixoia-Auzoa. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur Gaiteroekin Alzateko karrikan. Ondotik zezensuzkoa aterako da Alzateko karrikan. **23:00** Dantzaldia Laiotz taldearekin Alzateko plazan. **00:00** Gaztexteban Jautsiera (Gizajoa Ni). Egun osoan Incansableas txaranga.

- Bestabusa zerbitzua abuztuaren 3 eta 4an.
- Abuztuaren 5ean, X-PYR proba ailegatuko da Larunera. 20 taldek parte hartuko dute parapenteen lasterketa honetan eta Pirinioak zeharkatzen saiatuko dira, Hondarribitik Port de la Selvara; 438 km. Lasterketak nahitaezko pasabide puntu batzuk (balizak) izanen ditu eta horietako lehena Larunen dago. Egun horretan hasten dira lasterketa Hondarribitik (irteera: 10:00) eta 5 orduren buruan aurreikusia dago Larunera ailegatzea. Argibide gehiago: www.x-pyr.com)



**Inaki TAXIA
UGARTEMENDIA**

T: 948 630 606 - 659 498 966
Alzate, 23 - 1. auk. - BERA

ERREKALDE

PLAZA KHARTEAK

PAZKAK
BERRAZTEK

Ongi pasa bestak!

TFONA: 948 630 254 BERA

ELKAR S.A.
Tailarrak

Paño eta materialen matrikako
Paño makintzaren agente diru
Gofuragata:
Etxekas etxetok

Zaldua 142, 8. BERA
T: 948 631 813
F: 948 630 929

HERMANOZ TELLETXEA
Albano y Gaur

HE

ERAKUNTZA LANAK OROKORREAN
Zaharberriak - Aikuntzak

HER
670 364 744 - 948 630 554
BERA (Nafarroa) - albanotxexa@gmail.com

ZUBIONDO
Jateketa

agardategia jateketa

Ahizta karrika
TEL: 948 625 411
BERA NAFARROA

Artieda M.
LENTZERIA • MENTZERIA

ONGI PASA BESTAK!

Kantozbetri 2 • BERA • 948 625 411

ELKAR
liburudenda

Txistu liburuen
Aldizkariak eta prentsa
Eskolako materiala
Fax zerbitzua eta fotokopiak

Ezleqara, 18 • T. 948 630 691 • BERA

**ZELA
KIROLAK**

ONGI PASA
BESTAK!

948 630 508
Alzate, 6 • BERA

EDGARDO ETXEBESTE
BERRIBIDE

Iturriak
on zurekin
prentsa!

**ITURGINTZA
BEROKUNTZA
GASA**

Herriko Etxeko plaza, 11
BERA • 670 41 29 98

K

ARROZTEGI METALIKOA

BERA
948 631 851
korta@orta.eus

**Modelos
BIDASOA
Ereduak**

Bidasoa karrika 76 - 18. lokala
31780 BERA • Tel. 948 625 186
Modelosbidascas@euskalnet.net



EGITARAUA

Abuztuak 10 ortziralara **BEZPERA**

Sunbillako bordei buruzko erakustaldia Ariztigail kanpenean, J.I. Muruak eskainia. **18:30** Herri kirol desafioa: Herriko gizon probako 8 lagun Errenteriako Patxi Ilarretaren idiaren aurka. **20:00** Suziria Herriko Etxetik, erraldoi, buruhandi, gaitero eta txarangak alaiturik. **21:30** Baztan zopak Ulibeltzak elkartearen, txarangaren animazioarekin. Txartelak Ulibeltzak elkartearen salgai izanen dira uztailaren 28an, 19:30etik 20:30era bazkideentzat. Uztailaren 29tik abuztuaren 7ra ostatueta salduko dira gainerakoentzat. Prezioa: 20 euro. **Gauz** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Abuztuak 11 larunbata **TIBURTZIO DEUNAREN EGUNA**

09:30 argi soinuak gaiteruekin. **11:00** Meza Nagusia Tiburtzio Deunaren ohorez. **12:15** Sunbillako dantzarien emanaldia eta ondoren luntxa plazan. **19:00** Pilota partidak. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia DANTZADI taldearen eskutik. **22:30** Su artifizialak Astondoa pirotekniaren eskutik. **Ondotik** tortilla pintxo dastaketa eta 200 litroko sagardo kupela.

Abuztuak 12 igandea **HAURREN EGUNA**

09:30 argi soinuak. **10:00** Zetzeria plazan. **18:30** XI. Ramon Latasa Saria. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariaren eskutik.

Abuztuak 13 astelehena

09:30 argi soinuak. **10:00** Herri Krosa. **Goiz eta arratsaldez** Tren Txutxua herrian barna. **14:30** Kuadrillen bazkaria Ulibeltzak elkartearen. Txartelak uztailaren 27tik abuztuaren 5a bitarte salgai Fonda eta Iturburu ostatueta. Bazkal ondoren *ura-ura* eta apar besta txarangak alaiturik. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia AGERRALDE akordeolariaren eskutik.

Abuztuak 14 asteartea

09:30 argi soinuak. **10:00** Mus txapelketa. **11:30** Trikitixa jaialdia. **16:00** Plater tiroketa. **16:00-20:00** puzgarriak **22:00** herri afaria. Uztailaren 29tik abuztuaren 8ra salgai izanen dira txartelak ostatueta. Prezioa: 29 euro. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia ANGEL MARI akordeolariaren eskutik.





HERRI KIROLA | Bi hitzordu handi Sunbillako bestetan

Gizakia eta idiaren arteko lehia eta Ramon Latasa Saria ikusgai

Herri kirol ikuskizun politak prestatzen dituzte Sunbillan eta aurtengo bestak ez dira salbuespena izanen, bi hitzordu interesgarri plantatu baitutuzte. Abuztuaren 10ean, ortzirale arratsaldeko 18:30ean herriko gizon probako 8 lagunek Errenteriako Patxi Ilarretaren idiaren aurka neurtuko dituzte indarrak. 700 kiloko harriarekin arituko dira lanean, 15 minutuko saioan zeinek plaza gehiago egin. Antton Espelosinek aipatu digunez, **«Idi honek lehenago bi desafio jokatuak ditu bi talderen aurka eta bietan garaipena eskuratu zuen. Horretxengatik Sunbillako taldeak erronka latza du, baina denak gogo eta ilusio handiarekin daude. Mutilak jo ta su ari dira prestatzen, lasterka, mendira joanez eta orain asteen bitan hasi behar dute entrenatzen harriarekin»**.

Abuztuaren 12an, igandean 18:30ean berriz, Ramon Latasa aizkolari handia zena gogoratuko dute hamekagarren aldiz. Aurtengoan bi mailatan arituko dira, eta egungo aizkolari onenak izanen dira bertan. Guztira, hamabi aizkolari neurtuko dira, sei maila nagusian eta beste sei gazteetan. Aurtengo maila nagusian hiru bikote hauek neurtuko dira: Floren Nazabal-Angel Arrospide, Donato Larretxea-Unai Otaño eta Juan Jose Lopez-Aitzol Atutxa. Bikote bakoitzak lau proba ezberdin egin beharko ditu.

Gazte mailan aurtengo seigarren edizioa izanen da. Maila honetan hiru bikote hauek lehiatuko dira: Ugaitz Mugerza-Oihan Larretxea, Joseba Otaegi-Arkaitez Olano eta Jon Rekondo-Ander Erasun. Gazte hauek hiru proba ezberdin egin beharko dituzte. Bai maila nagusian baita gazte mailan ere oso bikote orekatuak daude eta **«hor garaipena lortzeko izerdi dezente bota beharko dute aizkolariak»**, aipatu digu Antton Espelosinek.

MARIA JESUS HARATEGIA
Ongi pasatu bestak!
Kantika Nagusia 1 • SUNBILLA
Tfnor: 948 451 530

ALTZURRI
MENDI LANAK • FISKALIZAZIOAK • GARRAJOK
ZERRAKURAK • GARBITZE MEKANIKOK
ZERRAKURA, LUBERKI ETA BELAGHEN
MANTENIMENDUA
Ongi pasatu bestak!
Leku Eder • Basitza • 31791 SUNBILLA • altzurri@yahoo.es
Tel./Fax: 948 450 504 • 659 867 287 • 699 461 394

LIZUN GAZTANDEGIA
Ongi pasatu bestak!
Sunbilla - Tel: 948 450 862

SUNBILLAKO UDALAK
Hesta zorientuak opa dirizkizue
amplifikar eta ibiltari guztioi
GORRA SAN TIBURTIZIO!

CAMPING NIBIZTIGAIN
Ongi pasatu bestak!

OSPAKIZUMETARAKO MENU BEREZIAK
Lekuztatzen, Dabatu, Iteku, Baxa, etc.

ERKATU IRI OINAZOGA!

pitxetok | sarrak | hotzarak | harikargesak | sarritelak
menusak | plater konbinatuak | karta

www.campingarizogain.com

SUNBILLAKO TAXIA
633 466 486
8 plaza • txoferra

GAZMENDI
ERAIKUNTZAK
Ongi pasatu bestak!

DONIBANE KARRERA
GURE BORDA • SUNBILLA
T: 948 450 130 | 948 451 666
M: 619 409 784

PERITZA TABERNA 


RESTAURANTE BISTRO EN EL CENTRO DE LEITZA

LEITZA • 948 610 848

Olala Bazur

ONGI PASA BESTAK!

LEITZA • 20120 • 948 610 837

A:NA:RT 

Elbarren, 67 • beheko
LEITZA: 948 510 197

PLAZA ASEGURUAK

M^a Carmen Calderón

ONGI PASA BESTAK!

Uharteko Gotzaina 3 • LEITZA
Tfnos: 948 510 538

Perurena 

Herriko irakurlearen pertsona berrak OBRARTEKIN

Elbarren, 51 • Tfnos: 948 510 164 • LEITZA

OLIVEIRA - VICENTE

eraikuntzak

Amazabele, 17 • LEITZA • 629 618 631 • 606 307 810

Eguzkitza

GOZOTEGIA

Elbarren • LEITZA
T. 948 510 041 • 948 510 648

OGI BERRI

KAFETEGIA
OKINDEGIA

948 610 974 | LEITZA

GURIA

KARROZERIAK
TXAPA-PINTURA

Txapa
Pintura
Autogarbiketak
Berreldaketak

Landa ind. • LEITZA
948 61 02 55

ZURICANI

ZURGINDEGIA S.L.

Elbarren • LEITZA (Buztegia)
ITE: 81844007
Tel./Fax: 948 530400
MIL: 48070768 / 48070769
www.zuricani.com

Melo Pinturak

ONGI PASA BESTAK!

T. 609 673 178
LEITZA

KIDE 

aholkularitza

LEITZA, Landa ind. 20 • T. 948 510 598 • 609 368 991
Tfnos: 948 510 598 • T.F. 948 51 83 89
www.kide.com | www.kide.com

BEATRIZENEA

TABERNA-JATEKOA

menuek • tartekoak • karacelitak • pintxoak

Mikael Duena, 2 • Tfn: 948 510 991 • LEITZA

Arzallus

HERATEGIA

Elbarren, 31 • LEITZA • Tfn: 948 510 377
Etxe Nagusia • 90941100 • Tfn: 940 483148

LEITZELARREA S.L.

Aroztegi eta Galdereria

Landa Bekoa Industrialdea, 20
Tel: 948 510 598 • 609 368 991
LEITZA

AMAIA

arraindegia

ONGI PASA BESTAK!

Uharteko Gotzaina - LEITZA
948 510 590

ASTIZ ANAIAK
ZURGINDEGIA

Klase guztietako egur lanak,
ateak, leihoak, fanima, armairuak
eta kristaldegia

948 610 606 • 948 510 285

Aritzela

DIRORAZIUNTAILERIA

• Kattunak
• Jaleak, tarrak, irakurleak
• 200 herriko zuzeneko proiektuak
• Herriko irakurleak
• Etxeko proiektuak
• Inbentarioak, itak

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 61 06 11 Landa Ind. Sutezi 3 LEITZA
www.arizela.com

EZKAIN eraikuntzak S.L.

ONGI PASA BESTAK!

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com

ONGI PASA PESTAK!

MUSUNZAB

OSTATUA

• Jatebeka
• Logelak

Elbarren, 14 • Tfn: 948 510 807
LEITZA

LEIMEN S.L. 

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitx
MENDILLORRI 628 725 397 david

Tal zorientsuak dena!!!



LEITZAKO pestak 2012

EGITARAUA

Abuztuak 4 larunbata ERREPARTO EGUNA

14:00 Eskalarien bazkaria Aurreran. **14:00** Torreko XVIII. Urteurren bazkaria. **16:00** Auzoz auzo PLAZAOLA aldizkariaren banaketa; trikitilari, txistulari, akordeoilari eta gaiteroen laguntza. **19:30** Leitzako batukadarekin kalejira. **00:00** Dj Atekabeltz gaztetxen.

Abuztuak 5 igandea UMEEN EGUNA

08:00 Diana txistulariekin. **10:00** korporazio txikiak udal ordezkarietara gonaiduko dute. **11:00** Umeen txupinazoa Leitzako udaletxetik. Ondotik Aurrerako Pilota Eskolako gazteak arituko dira plazan. **11:30-14:00** puzgarriak eta jokoak. **16:30-18:30** puzgarriak. **18:30** Aurrerako dantzari txikien ikuskizuna eta umeen ingurutxo irekia plazan. **20:00** Buruhandiak eta gurgildun zezenak aterako dira. **20:00-00:00** GABENARA taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 10 ostirala PESTA BEZPERA

12:00 Kuadrilen arteko herri kirolak plazan. **14:00** Bazkaria karrapen KUXKUXTU txarangarekin. **18:00** Txupinazoa eta Plazaola aldizkariako azalaren egileari saria. Ondotik Incansables txaranga, txistulariak, erraldoiak, gaiteroak, buruhandiak... Ondotik LaChingalera Aurrera atarian. **22:00** Suzko zezena. **23:00** TRIKIDANTZ taldea plazan. **01:00** INCANSABLES txarangaren erronda. **02:00** DJ PATT gaztetxean.

Abuztuak 11 larunbata PESTA EGUNA

08:00 Diana txistulariekin. **09:00** Entzierroa eta behiak plazan. **10:30** Meza ondotik hamaiketako irekia karrapen. **12:00** Aurrerako Ezpatadantzariak. Ondotik afizionatuen arteko pilota partidak. **13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da. **18:00** zezenak plazan. **19:00** Herri kirolak. Ondotik goxokiak banatuko dira. **19:00** Elektrotxaranga. **19:30** Incansables txaranga eta buruhandiak. **21:00** Leitzako ingurutxo nahi duen guztientzat. **22:00** Suzko zezena. **00:00** TXIMELETA taldea plazan. **00:00** kontzertuak Atekabeltz Gaztetxean. **01:00** Incansables txaranga.

ARGAZIAK: JUAN LUIS ARTOLAK UTZIAK



Aliprox

Tel: 948 510 007 - 948 510 857
Elbarren, 20-71

ETXE-TRESNAK S.L.

Elektronikak, Bateria elektronikak, Telekomunikazioak

Elbarren, 45 - LEITZA - T. 948 510 000 - 948 510 300

IRUSO

Ostia

Elbarren, 1 - LEITZA - T. 948 510 210 - 948 510 210

PESTA ONAK FASAT

ELBARREN 20 | LEITZA | 948 510 720

gaztelu s.c.l.

Iturgintza

kalifikazioa - senezendua - gasa

Tfnoa: 948 510 000 - 948 510 100
Faxa: 948 510 856
LEITZA

edr

Elbarren, 47 - LEITZA - T. 948 510 273 - 948 510 273

MAIMUR

Herriko Plaza
LEITZA
Tfnoa-Faxa:
948 510 140

Frentza - opariak - lastu liburua
Plasatik - enkupernatzaile
Inprimak - fotokopiatzaile

TXOKO
taberna

Pintxoak
Ostartekoak

Elbarren, 22
LEITZA
Tel: 948 510 227

HARTEGIA-VRDAITEGIA
URKIOLA

Elbarren, 94 - Tfnoa: 948 510 467
Elgoien, 6 Tfnoa: 948 510 747

PESTA ZORIONTSUAK IGARO

LEITZA Garagea

Peugeot Agentzia

Elektronikak, gurutak, auto lastoan
sareko eta konputatzaile
SALECOHETA

STIHL Stihl Agentzia

Landa Ind. 2 - LEITZA - 948 510 466



AISLAN-LEITZA, s.l
ONGI PASA PESTAKI
POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
IBOLAKETA
689 800 371
Santia Lusia pasealekua, 4 0 behean Buztintxuri - IRLUR



FISIOETXEA
Aire Egokitutako
Fisioterapeuta
ONGI PASA PESTAKI
Habea Gorrak 830 - LEITZA - Tel. 948 510 920



Lizarraga herategia
"GUREA KALITATEA"
Elbarren 71 - ALIPROX - 948 510 007 - LEITZA



SAGASTI JATETXEA
ongi igaro pestak
Elbarren, 98 - LEITZA - 948 610 637



DENAUTO SAGASPER Tailerra
ongi igaro pestak
Eluzeder Ind. - ARESO - T. 948 510 610 - F. 948 510 917



ARRARAS edariak, s.l.
ONGI PASA PESTAKI
Eluzeder Industrialdea, 1 - ARESO - 948 61 06 88



LEIZA ANAIK ERAIKUNTZAK
ONGI PASA PESTAKI
Lizaraga, 17 - LEITZA
689 211 961 - 689 334 102



TXARAGORRI iturgintza
Tfnos: 648 853 440
LEITZA



LEITZAKO pestak 2012

Abuztuak 12 igandea

08:00 Diana txistulariekin. 09:00 Entzierroa eta behiak plazan. 11:00 Paella lehiaketa eta paella herrikoia karrapen. Oxabi txarangarekin kalejira. 12:00 Umeentzako antzerkia, *Ame-tsen fabrika*. 13:00 Aurreratik Incansables txaranga aterako da. 18:00 Zezenak plazan. 19:00 Aurrerako dantzarien emanaldia plazan. Ondotik goxokiak banatuko dira. 20:30 Incansables txaranga aterako da Aurreratik. 22:00 suzko zezena. 23:00 Garraxi taldea plazan. 01:00 Incansables txaranga. 01:00 DJ gaztetxen. 03:00 Leitzako Ingurutxoia plazan.

Abuztuak 13 astelehena

08:00 Diana txistulariekin. 09:00 Entzierroa eta behiak plazan. 10:00 Plater tiroketa baztarnan. 11:00 Indar proba zaldia eta herritarren artean plazan. Ondotik txakolin dastaketa. 13:00 Aurreratik Incansables txaranga aterako da. 18:00 Bertsolariak (gai jartzailea Leitzako bertso eskola) Ondotik goxokiak banatuko dira. 19:30 Incansables eta buruhandiak. 19:30 pilota partidak frontonean. Lau terdiaren barrenean: Saralegi-Olaetxea. Ondotik, Aimar Olaizola-Albisu; Oinatz Bengoetxea-Begino. 20:00 *Break dance* saioa plazan. 21:30 Suzko zezena. 22:00 herri apartie. 00:00 Afalostean Incansables txaranga aterako da erronda egitera. 00:30 Atekabeitz gaztetxean kontzertuak (herriko taldeak). 02:00 zezenak plazan.

Abuztuak 14 asteartea

08:00 Diana txistulariekin. 09:00 Entzierroa eta behiak plazan. 12:00 Nesken pilota partidak plazan. Ondotik aparra. 13:00 Aurreratik Incansables txaranga aterako da. 18:00 Zezenak plazan. Ondotik goxokiak banatuko dira. 19:30 Musika plaza zaharren. 19:30 Erraldoiak. 22:00 suzko zezena. 00:00 kontzertuak. Ondotik DJ gaztetxen.

Abuztuak 15 asteazkena EZKONDU ETA BIKOTEEN EGUNA

08:00 Diana txistulariekin. 09:00 Entzierroa eta behiak plazan. 12:00 Herri kirolak plazan. 13:00 Aurreratik Incansables txaranga aterako da. 14:30 Aurrerako bazkideen bazkaria. 18:00 Bikote eta ezkonduen entzierroa eta zezenak plazan. 19:00 Ezkondu eta bikoteen ingurutxoia plazan. Gero Incansables txaranga aterako da Aurreratik. 22:00 suzko zezena. 23:00 Imuntzo eta Beloki. Ondoren *Pobredemie* Incansables txarangarekin.



EXPLOTACIONES FORESTALES
ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.
Oihan aprobetxamenduak
Bertako eta kanpoko zur-billegia
Eguna aireko kable bidez ateratzen ditugu
Oihanberritze lanak
Zur-salmenta, eskabazioak, garraioa
Landa Ind. I eta II - LEITZA
Tfnos: 948 510 214 - Fax: 948 510 341
M: 606 949 130 - 606 949 131
info@zubillagasaralegui.com



JAI-ALAI hostala
Tfnos: 948 510 735 - Fax: 948 510 736
www.jai-alai.es - info@jai-alai.es

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA BULEGOA
Celia Lana Ranz, arkitektoa. COAVN 2827
Huarte Gotzaina 7 LEITZA T/F: 948 811 663 - 649 008 478

Prentsatik bildutakoak



«Duela hiru hasi nintzen Iruñeko sanferminetan garbitzaile. Murritzetak direla eta, gure brigadan pertsona bat guttiago dago. Oro har, aunitz nabaritu da, aunitzez ere jende guttiago kontratatu dute. Aitzineko urtean baino material eta langile guttiago dago, eta, beraz, normala da hiria zikinago egotea. Sei orduz lan egiten dugu egunero-egunero».

Karlos GOIKOETXEA
Irritako gaztea
BERRIA, 2012.07.13



«Nik ile motza eraman dut beti, eta nik uste bertze taldeetako aunitz ez zirela jabetu ere egiten neska nintzenik. Beraz, ez nuen sufritu mutil arteko neska izateagatik, izatekotan ere, hizkuntzarena egin zitzaidan zailena [Hendaiako futbol taldean], edo partidetan aldagela bat lortzea. Gogoan dut beti arbitroaren aldagelatxo eskatzen genuela niretzat».

Ane BERGARA
Realeko futbolari beratarra
BERRIA, 2012.07.13

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zeniguke zure burua?

Pertsona alaia, trankila eta beti laguntzeko prest dagoena, baina azken finean, hori bertzeek erran beharko dute.

Donamaria eta Gaztelu bat direla erraten dutenei, zer erantzunen zenieke?

Ez dutela deus ikustekorik.

Gaztelu herri gisa izendatzea nahiko zenuke?

Berez herri bat da.

Zer du Gazteluk Donamariak ez duena?

Herri desberdina izan arren, bietan bada jende jatorra, toki polita da eta ez dago desberdintasun haundirik.

Eta alderantziz?

Berdintsu.

Gazteluko bestetatik gehien gustatzen zaizuna?

Herri bazkaria.

Eguna edo gaba nahiago?

Segun eta ze bestarako den. Ez dakit adinean goiti goazelako edo zergatik den, baina egunari probetxu gehiago ateratzen diogu.

Zinogotzi lanetan zer moduz?

Poliki-poliki hasi gara eta gauzak egiten ari gara. Lehenbizi ikasi, aitzinetik zer egin den ikusi eta oraindik badugu ahal duguna egiteko denbora eta aukera.

Besta on bat egiteko tokirik gustukoena?

Hemen inguruan badira besta ederrak egiteko tokiak, baina sanferminek aunitz tiratzen dute. Txupinazo egunean, udaltxeko plazan... Ahal dudanean joaten naiz.

Bizitzeko toki bat?

Malerreka, dudarik gabe.

Eskualdeko gazteak nola ikusten dituzu?

Beti badira zerbait egiteko proposamenak. Badira batzuk nahiko burutazio aunitzekin eta gauzak egiteko prest daudenak.



Erik SAGARDIA → Gazteluko gaztea

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut.
Sakeleko: 617 836 073 - LESAKA

XIRALI
ANUNTZIOAK
Prestakuntza

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Erpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etberritasun eta jubilatze espedienteak
- Bidegaitasun planak eta sumentuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltzio, 77. beheko - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BUREATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

LEGARRA

egunkariak | aldizkariak | liburuk | opariak | tabakoa
zokorak | jantzi-eremuak | pastifikazioak | berriztatzeak

ORAIN A3 NEURRIAN ERE PLASTIFIKATZEN DUGU

T/F. 948 63 70 30 - Albistur, 9 - LESAKA
lesaka@legarra.org

BERA

UDALA → DIRULAGUNTZAREKIN

Udalak zortzi langile kontratatu ditu herriko lanetarako

Bi dirulaguntza aprobeztatzuz hartu ditu

TTIPI-TTAPA

Udalak kontratatu dituen zortzi langileak lanean ari dira dagoeneko. Bi dirulaguntza deialdi aprobeztatzuz kontratatu ditu, horietako bi oinarriko errenta kobratzen dutentzako laguntzarekin eta gainerakoak Nafarroako Enplegu Zerbitzuak emandakoarekin. Azken horien artean, lau langile lau hilabetez ariko dira karriketako lanak egiten. Dirulaguntza berean, bertze bi langile hartu ditu Udalak herriko eta lardingo turismo bulegoetarako. Aste Santuan eta udan ariko dira lanean, hiru hilabetez.

Oinarriko errentako dirulaguntzatik kontratatu diren bertze bi langileak orain eskolan egiten ari diren margoketak egin ondotik, mendiko lanak egiten dituzte. Langileetatik zazpi herritarrak dira eta bat Malerrekakoa.

Energia kontsumoa

Osasun Zentrokori aitoria jaso du berriki Udalak. Energia aurrezteko eta eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak kudeatzeko egin da azterketa eta paretak, sabaia, zoruak, leihoak, zirikituak eta fakturak begiratu dituzte.

Egindako ikerketaren arabera, urtean 5.343 euro gastatzen dira eta 17,82 tona CO2 isuri. Gasa bereziki neguan eta argia urte osoan gasta-

tzen dela kontuan hartuz, argiaren kontsumoa %61 ekoa da eta gasarena %39koa. Paretak ongi isolatuak daudela ikusi da eta galtzen den energiaren %47 leihoretatik joaten omen da eta zorutik %27.

Egoeraren aitzinean, leihoak aldatzea proposatu da eta hori egin bitartean zirikitueta juntak hartzea. Gisa berean, argiteriaren kontratazioan eskaintzak begiratu eta potentzia gutti nahi dira eta fluoreszentearen balastroak aldatzea ere proposatu da, baita gela batzuetan zenbait lanpara kentzea ere. Ur beroaren gastuari ere irtenbidea eman nahi zaio, gasu energetikoa sortu arren, ur beroa ez baita behar bezala ailegatzen.

Erabilerari dagokionean, entxufe gorriak behar bezala erabiltzea planteatu da eta hutsik dauden geletan argiak itzaltzeko kontzientzia sor-



ARGAZKIAK: JOSEMARI TELLETXEA

Gure Txokoako futbolari sarituak

Denboraldia bukatuta, Gure Txokoako futbolariak erregularitasun eta golegile onenaren sariak jaso dituzte aurten ere. Erregularitasun saria jaso dutenak hauek dira: Imanol Moreno erregionalean, Feñan Iturria eta Joseba Martinez jubeniletan eta Mikel Esnaola kadeteetan. Golegile nagusiaren saria Andoni Riopedrek lortu du erregionalean, Ruben Pedrosak jubeniletan eta Jokin Pinatxok kadeteetan.

tzea, edo bakarrik itzaltzeko sistemak paratzea.

Merkatarien tonbola

Lehenbiziko aldiz tonbola antolatu du Larun Haizpe elkarteak. Uztailaren 27ra arte, 60 estalezimendu baino gehiagotan tonbolan parte hartzeko boletoak banatuko zaizkie bezeroei. Eta zozketa larunbatean, hilak

28, egingen da Altzateko plazan, 19:00etatik aitzinera besta giroan, taloak, pintxoak, sagardoa eta musika ere izanen baitira. 70 sari baino gehiago banatuko dira, baina sariak jasotzeko nahitaezkoa izanen da tonbolan egotea, zozketa egin eta saritua agertzen ez bada, berri egingen baita zozketa. Larun Haizpekoek be-

rarat eta inguruko herrietakoak gonbidatu dituzte.

Ikastolako kamisetak

Bestak bizi, euskaraz lehenbizi! lelopean, Ikastolako gurasoek bestetarako kamisetak egin dituzte, haur eta helduentzat. 10 eurotan eros daitezke, Agara prentsa-dendan eta Lesakako Telletxea estankotan.



ARGAZKIA: ERNESTO GAINZA

Denboraldiko azken izokina Asier Osesena

48 izokin harrapatuta bukatu da aurtengo denboraldia eta horietan azkena Asier Oses Gainza 14 urteko herritarrak arrantzatu du, 1,9 kilo eta 58 zentimetrokoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Llama bat Larunen

Pottokak, behorrak, zaldiak, ardiak... Horietatik aunitz ibiliko dira Larun aldean, baina batere ohikoa ez dena llama bat ikustea da. Bada, argazkian ageri den llama hori Larun aldean ibili da duela gutti arte. Lehendik ere inguruan zebilen arren, uztailaren 7an harrapatu zuen Foru Poliziak dardo anestesiko batekin.

benta berri



BERAKO BESTAK

. MENU BEREZIA .

- Sarrerak
- Blijarrren platera aukeran
- Postrea
- Kafea

Aurtengo bestetan zatoz gurekin ospatzera

€
25,00

. MENU BEREZIA .



Eta autobusez etorri nahi baduzu...

6€* gehiago ordainduta jabetxeraino ekarriko zaitugu

benta berri

Ibardingo gaina • BERA • Nafarroa

Tel. 948 63 07 08

MENDIKO

. SAGARDOTEGIA . ESRUTEGIA . JATETXEA .



BERAKO BESTAK

. SAGARDOTEGI MENUA .

- Txorizoa sagardo modura
- Bakailu tortilla
- Bakailua plantxan
- Txuleta
- Gazta intxaurrekin...

Berako bestak direla eta, MENDIKO jatetxeak Sagardotegiko Menu berezia hau eskaintzen dizue



€
22,00

. SAGARDOTEGI MENUA .

Eta autobusez etorri nahi baduzu...

6€* gehiago ordainduta jabetxeraino

ekarriko zaitugu

* BEZ ez dago bestean



Ibardingo gaina • BERA • Nafarroa
www.mendikolbardin.com

Tel. 948 63 03 02

LESAKA

KIROLA → MUNDUKO IRONMANIK GOGORRENEAN

Bixente Igartzabal bigarren izan zen Altriman proban

Aitor AROTZENA

San Fermin eguna ez zen besta izan lesakar guzientzat. Beti Gazteko Bixente Igartzabal eta Alejo Sarobek Munduko Ironmanik gogorrena izendatua den Altriman parte hartu zuten Frantziako Les Anglesen. Sarobek ez zuen bukatzea lortu, baina Igartzabalek marka ikaragarria egin zuen, bigarren postuan sailkatzea lortu baitzuen.

Altriman lasterketaren laugarren edizioa izan zen uztailaren 7koa eta kirolariak 3.800 metro egin behar zituzten igerian, 198 kilometro bizikletan (8 mendi gain pasatuz eta 5.060 metroko desnibel positiboarekin) eta bukatzeko, maratonia (42.195 metro) lasterka.

Bixente Igartzabalek eta 2009 eta 2010ean ere irabazle izan zen Thierry Chatron frantziarrak lehia estua izan zuten proba osoan eta elkarrekin ailegatu ziren maratoiaren azken 200 metrota, baina hor azken erasoan jo zuen frantziarrak eta ezin izan zion lesakarrak eutsi. 13 ordu, 6 minutu eta segundobat behar izan zituen Chatronnek proba burutzeko eta 35 segundo gehiago Igartzabalek. Antolatzaileek aipatu zuten, orain arteko lehiarik estuena eskaini zuten eta marka handia lortu zuten. Horren, erakusgarri, hirugarren izan zen Laurent Marquez frantziarrak irabazleak baino 34 minutu eta 51 segundo gehiago behar izan zituen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bi lehenbizikoak helmugan.

Beñat Atorrasagasti Eskozian atxilotua

Eskoziako Poliziak, Guardia Zibilarekin elkarlanean, Beñat Atorrasagasti atxilotu zuen uztailaren 13an Edinburgon (Eskozia). Espainiako Auzitegi Nazionalak 1996-2001 artean ETA-erentzat garraio lanak egitea leporatzen dio eta 2001ean ihes egin zuen. Epaileari ez estraditatzeari eskatu eta abuztuaren 2an berriz deklaratu beharko du.

Truke azoka hilabetean behin

Joan den abenduan egindako truke azokaren bidetik eta bertze kontsumo eredu bat bulatzatu nahian, hilabetebe-ko azken larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara, truke azoka egiten du Gazte Asanbladak plazan. Larunbat honetan, uztailak 28, egiten da lehenbizikoa eta hurrengo hitzordua abuztuaren 25ean izanen da. Zer-bait utzi nahi duenak plazara agertu beharko du behar ez dituen gauza horiek uztera.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Guttiago falta da 2013ko Sanferminetarako!

Joxe Iturriak eta preso senideek botatako txupinazoarekin abiatu ziren herriko bestak. Tomas Rekondo eta Jose Mari Altzugarai Larrane musikariak ere omendu zituen Udalak. Tikiien danborradaren zuzendaritzan, Pepitto Altzugarai erreleboa eman zion Joxe Agustin Mitxelenari, 19 urteren ondotik. Bezperan, dantza saio ikusgarria eskaini zuen Tantirumairuk. Ezpatadantzariak Zubi-gainekoa eta egun handiko bertze dantzak asteburuko jendetzaren artean egin behar izan zituzten. Peñen Eguneko danborradan eta jautsieran, Hautoritura, Añarrak eta Erokkak peña berriak ere estreinatu ziren. Gainerakoan, tikiienek kartoizko zezenekin egindako entzierroak, Patxi Perezekin egindako euskal dantzen saioa eta hondar eguneko herri bazkaria izan ziren aipagarrienak.



GIZARTEA → EHIZA

Uso postuen enkantea irailaren 1ean egingen da

Garestienetatik (3.125 euro) merkeenetara (875 euro), 21 postu aterako dira enkantera hainbat preziotan postuaren arabera

TTIPI-TTAPA

Enkantea, usadioa den bezala, ahozko posturaren bidez egingen da irailaren 1ean, goizeko 12etan Herriko Etxeko batzar-aretoan. Substantan ematen den tanto bakoitza 10 eurokoa izanen da eta adjudikazioa behin betikoa den egunetik hasi eta usoaren ehiza-sasoia akabatu arte aprobetxatu ahal izanen du ehiza postuaren onuradunak.

Postu bakoitzaren prezioak eta gainerako baldintza guztiak jendearen esku daude udal idazkaritzan.

Beheko Olako presa zenatik ateratako harrien aprobetxamendua

2008ko uholdeak hainbat hondamen egin zituen. Herriko ondasunetan Mattinen presa, Olazaharreko presa eta Beheko Olako presa eraman zituen urak. Aurten,

Beheko Olako presa zenaren harri batzuk, presaren alde batekoak, bildu ditu Udalak errekatik eta harri horien aprobetxamendua da orain lehiaketara aterako dena.

116 HARRI LANDU GUTIENEZ 16.150 EUROREN TRUKE

Irailaren 6an irekiko dira lehiaketan parte hartu dutenen plikak. Proposamenak gutun itxian aurkeztuko dira eta lizitazioaren hasierako prezioa 16.150 eurokoa da, BEZ gabe.

BALDINTZA BEREZIAK

Hiru baldintza jarri dizkie Udalak interesatuei: **a)** Harriak erabiltzeko izatea, ez espekulatzeko. **b)** Erabilpena Etxalarren egingen den obra batean izatea. **c)** Lizitazioaren onuradunak ez izatea zorrik udalarekin. Eskaintzak baloratzerakoan, hobekuntza gisa baloratuko dira interesatuak herriaren lanak egitea (paretak, teilatuak...).

Lehiaketara ez balitz inor aurkeztuko edo dauden proposamenak ez balira onargarriak, baldintzak aldatu edo osatzea komeni den baloratuko luke Udalak.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Mendi irteeren akabera

Uztailaren 22an Zanpingorri mendi taldeak Baztandarren Biltzarrerara egin zuen sasoiko azken irteera. Karrozak ikusi ondotik, mendian bazkaria egitekoa zuten. Parte hartzaileak kontent agertu dira sasoiko balorazioarekin.

Kantu eguna

Igande honetan, uztailak 29, kantu eguna ospatuko da. 12:00etan plazatik hasita, herrian barna, kantuan aritzeko aukera izanen da eta 14:30ean bazkaria frontoian. Sarrerak Herriko Ostatuan eta Elutsan egonen dira salgai, edo baita telefono honetara deituz ere: 677 031920 (Eduarne). Bazkalondoan, kantu giroak segituko duela espero da, Amaia Zubiria kantaria egun honetarako gonbidatua baita.

Herriko gazteak pilotan

Badira aste batzuk herriko gazteak lagun artean pilota txapelketa antolatu eta partidak jokatzen ari direla. Hamar bikote dira eta astero bikote bakoitzak partida bat jokatzen du. Horrela, besten aitzineko astean finalerdiak jokatuko dira eta bestetan izanen da finala.

BERA Zere inguruko klase guztiakoa inork ez (komerzio, zigorra, erantzun, kalaketa...) eta urrats segurtasun garbitu nahikoa, daitez Termite eta Pipien tratamenduen

GOIKU Inbentarioa, Tratamendua, Prezioak

Tel: 948 122 587 • Zuzen, 40 A • BERRA

BENIDORM
ESTADÍSTICA
Irteera
URRIAK 14

14 GAU 550€ PLAZA MUGATUAK

PREZIOAN SARTUA DA:

- Autobusa Lesakatik
- 14 GAU H. CRISTAL PARK ***
- Manitu osoa, atarduetan ura eta ardoarekin.
- Bidai aseguruak
- Barceloko bide-erakuslea.

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko etorri Barceló honetara

Barceló
Plaza Zaharra, 4 | LESAKA
948 638 179
lesaka@barceloviajes.com

IGANTZI

GIZARTEA → HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA

Herrian eta Berrizaunen konpostalekuak irekitzeko lurrak nahi ditu Udalak

Lur eremurik ez dutenek konposta egiteko da

Joxean ORTEGA/TTIPI-TTAPA

Zabor organikoa nola birziklatzen ahal den eztabaidatzen ari dira Bortziritako Hiri Hondakin Mankomunitatean. Helburua Iruñera eraman behar den zaborren bolumena tikitzea da, honela gastuak murriztuko direla eta etxera bidaltzen diguten zerga ere jeitsiko dela. Gainera, Europatik heldu den arautegi berria bete beharrekoa da, eta horrek zaborren birziklapen maila handitzea eskatzen du. Arau hauek eskatzen duten birziklapen mailara ailegatzen ez bada, zigor ekonomikoak ezarriko dira eta hauek zuzenean gure etxeetara ailegatzen den fakturan nabarituiko dira, eta diru gehiago ordaindu beharko dugu.

Herri ttikietan konposta egitearen alde egin da eta dagoeneko gure herrian badira konpostontziak. Gure etxean baratzeta edota lorategia baldin badugu, konpostontzia erabiliko dugu, azken honek luraren gainean egon behar duelako. Pisueta edo lurrik ez duten etxeetan bizi direnkin sortzen da arazoa. Nola egin dezakete kon-

posta? Hau moldatzeko konpostalekuak sortu behar dira. Konpostalekuak lur-eremu itxiak dira, 30-50m²koak, eta herriko jendeak etxean, baratzetan, belagaitan, basoan, mendian... sortutako zabor organikoa botako luke horrat: adarrak, hostoak, sukaldatu gabeko hondar organikoak, landareak... Bertan sortutako konposta herriko jendeak aprobetxatu luke, ongari ezin hobea baita bai baratzetan erabiltzeko eta bai etxeko landareei botatzeko ere. Gainera, ongaria debaldetako izanen litzateke, herrian edukiko gure eta ekologikoa...

Udala horretarako toki bila dabil, bat herriko hurbil eta bertzea Berrizaun auzoan. Baina kontua ez du batere garbi: herriko hurbil nahiz Berrizaunen ez dagoelako lur komunalik. Hortaz, herriko laguntza eskatu die, norbaitek lur-eremu hauek zein izaten ahal diren zehazteko proposamenik baldin badu, Herriko Etxetik pasa dila edo dei dezala. Edo norbaitek baldintzak betetzen dituen lur-sailik baldin badu, eta errandako lana egiteko lurra herriari utzi nahi baio, Udalarekin harremanetan jar daiteke. Hori bai, konpostalekuan egin beharrekotako lanak eta mantentimendua Udalaren esku geldituko lirateke.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Gazteak nagusi BTT jauntsieran

Xabi Telletxea zenaren omenez Biltoki elkarteak bigarren aldiz antolatutako BTT jauntsiera proba egin zen uztailearen 14an, Euskadiko Openerako puntuagarria. Gaztetasuna nagusi izan zela erraten ahal da, hiru denborarik onenak 23 urtez behe-tiko kategoriako txirindulariek egin baitzituzten. 59 txirindulari lehiatu ziren. Iaz bezala, Iraitz Etxebarria bizkaitarra nagusitu zen. Bi txandatan denborarik onena egin zuen. Martxel Oronoz izan zen bigarren eta Eric Portillo hirugarren. Elite mailan, Jose Antonio Diez Arriola izan zen onena, Fernando Olañeta bigarren eta Goztzon Luzar hirugarren. Junior kategorian, David Lampre Oliveirak egin zuen denborarik onena, Lander Urtxegi izan zen bigarren eta Aitor Cortesek osatu zuen podiuma. Kadeteetan, Daniel Olarra izan zen onena eta sailkapen orokorrean ere onenen artean sartu zen. Guillermo Brun izan zen bigarren eta Xabier Urdanpilleta hirugarren. Master-30 kategorian, Mikel Iñorbe lortu zuen garaipena, Ivan Blanco eta Iñaki Esarteren aitzinetik. Master-40 mailan, Jose Manuel Prado nagusitu zitzaion Xabin Beobideri. Bi emakumezko ere parte hartu zuten. Laia Barberok egin zuen denborarik onena, Miren Benitoren aitzinetik.



ARGAZKIAK: KOLDO ALDUNTZIN

Lasto altxatze txapelketak

Bertze behin, lasto altxatzen fin moldatzen direla erakutsi dute herritarrek. Karlos Seinek Nafarroako Lasto Altxatze Txapelketa irabazi zuen Iruñeko sanferminetan 22 jasoaldi eginez. Bigarren Arkaitz Retegik izan zen 15 altxaldirekin eta hirugarren Eneko Telletxea 14rekin. Euskal Herriko Txapelketan, berriz, hagitza marka ona egiteko bidean joan zen Karlos, baina sokak ihes egin eta 19 jasoalditan gelditu zen. Arkaitz Retegik 14 altxaldi egin zituen eta Eneko Telletxeak 12.

BIDASOA
 BIDASOA - BIDASOA
 BIDASOA - BIDASOA
 BIDASOA - BIDASOA
 T.F. 859 971 442
 BERA

USOA
 Nekazaritza kooperatiba
 Bertan egindako perisuaik, bertze markak eta ekologikoak.
 Organikak - Burdin tranak
 Insektizidak - Edanak - Harriak
 Botikak (arrozarekin)
 Etxez ebeko banaketa egiten da
 Kalifikazioa eta ibagailuendako gasekoa
 Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 + ETXALAR

GIZARTEA → BI HERRITAR LANEAN HASI DIRA

Dirulaguntzei esker bi langile kontratatu ditu Udalak herriko lanetarako

Simonenborda-ko Juan Mari Telletxea eta Plunenborda-ko Teodoro Iparragirre dira

Nerea ALTZURI

Herriko lanetan aritzeko bi langile kontratatu ditu Udalak, bi dirulaguntza deialdi aprobetxatuz. Alde batetik, Nafarroako Enplegu Zerbitzura langabetuak kontratatzeko dirulaguntza eskaria egin zuen Udalak eta pertsona baten zatitza lortu da laguntza. Eskaintza publikoa egin ondotik, egoera horretan dagoen herritar bakarra Bordalarreko Simonenborda-ko Juan Mari Telletxea da. Ekain erdialdera hasi zen lanean eta urria bukatu arte ariko da, dirulaguntzak ematen duen denbora tartean.

Bertzalde, Bortzirietako Gizarte Mankomunitatearen laguntzarekin Udalak bertze langile bat ere kontratatu du: Plu-

nenborda-ko Teodoro Iparragirre. Hau ere joan den hilabetean hasi zen lanean eta abendura arte ariko da.

Baratzea egiteko lur eskaria

Ttiki-ttikitatik gure umeei etxean egiten ditugun produktuek zer nolako garrantzia duten erakutsi behar diegu etxetik. Lur zati bat izanez gero, barazki eta

fruta aunitz etxean egin ditzakegu baratze bat antolatuz. Azken finean, zer jaten dugun jakitea bezain osasungarria den zerbait ba ote da? Ba, eskolan nonbait, ikasleekin baratzea antolatzeko asmoa badute. Udalar horretarako lur zati bat eskatu ondotik, Udalak frontoi ondo-ko edo errepide ondo-ko lur eremua, bietako bat emateko erabakia

hartu du. Gisa berean, Udalak eskolari adierazi dio errepide ondokoa eguzkitsua dela; aldiz, frontoi ondokoa uspela.

Argiteriaren auditoretza

Udalak argiteria publikoaren auditoretza egiteko dirulaguntza eskatu zuen bere garaian eta Tesicnor S.L.U. enpresari lan hori esleitzea erabaki zen. Behin

azterketa ikusita, lan hori onartu eta faktura ordaintzea erabaki du.

Ehiza kotoa

Ehiza barrutia baimendu ondotik, Usua elkartek ordenazio plana abian jarri du. Hori dela eta, ekainaren 29ko ple-noan, Udalak ehiza aprobetxamendua esleitzeko baldintzak onartzea eta Usua tokiko ehiztarien elkarteari behin betiko esleipena zuzenean ematea erabaki zuen.

Udako ekitaldiak

Ekitaldiz betetako uda dugu gainean. Amabir-jin bestak ailegatzeko ere gero eta guttiago gelditzen da: abuztuaren 14ko eguerdian botako den txupinazoarekin hasiko dira eta 18ra arte izanen da non gozatua. Horrez gain, abuztuaren 25ean Arantza Rock jaialdia egingen da. Arratsaldean, haur-errentzako tailerrak izanen dira eta 23:00etatik aitzinera kontzertuak plaza Goienetxe Anaiak, Mendeku Itsua, Esne Beltza eta DJ Bull taldeekin.



ARGAZKIA: ITXARO ETXAGUE

Udalekuen azken egunak

Argazkian ageri diren neska-mutikoen udalekuak azken txanpan sartu dira. Hilabete osoan aski goiz atseginak pasatzeko aukera izan dute Itxaro eta Ana Isabelen ardurapean, eta orain, ortziral hau, uztailak 27, izanen dute hondarreko eguna.

SUNBILLA

BESTAK → ABUZTUAREN 10ETIK 14RA

Zortzi lagunek idiaren aurka neurtuko dituzte indarrak 700 kiloko harriarekin

Besten barne, abuztuaren 10ean izanen da desafioa

Maider PETRIRENA

Aste pare baten buruan, hementxe izanen ditugu Santiburtzioak. Egunez egun, egitarauaren berri izateko aldizkari honetako gehigarrian irakurtzeko aukera izanen duzue. Hemen, berriz, bestak heldu diren honetan ohar batzuk emanen ditugu.

Alde batetik, **Baztan Zopetako afarirako** bazkideentzako txartelak Ulibeltzak Elkartearen egonen dira salgai hilaren 28an, 19:30etik 20:30era. Gainontzekoentzat uztailaren 29tik aitzinera salduko dira ostatueta, eta hondarreko eguna abuztuaren 7a izanen da. Erran, afariko menua hau izanen dela: zopak, zuri ta beltxak, gisatua, postrea, txanpaina, kafea, kopa, puroa eta edariak. 20 euro balio du.

Herriko afarirako txartelak ere uztailaren



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Ekzerreko argazkia peñen egunekoa da eta eskuinekoa Baztan Zopetako afaria.

29tik aitzinera paratuko dira salgai ostatueta eta abuztuaren 8ra arteko epea izanen da erosteko. 29 euroren truke, hau izanen da menua: urdaiazpikoa, foie, kroketak, bildots errea patatekin, profiterolak, izozkia eta txokolata saltsa, edariak, kafea, txanpaina eta kopa.

Peñen bazkarirako txartelak uztailaren 27tik abuztuaren 5era salduko dira ostatueta. Adin guztietako jendea apun-

ta daiteke, eta ea animatzen den jendea.

Bertzetik, uztailaren 27an Itturburu ostatuan **bilera** bat egingen da txoznari buruz solasteko. Ahal duten guztiei joateko deia egin zaie.

BERRIKUNTZAK

Bertze urteetako egitarauari begirata, aurren ere badira berrikuntzak. Bezperan, J. I. Murrak bordei buruzko erakustaldia eskainiko du

Aritzigain kanpinean. Ondotik, herri kirol desafioa izanen da. Aurtengoan, gizon probako zortzi lagunek Errenteriako Patxi Illarretaren idiaren aurka neurtuko dituzte indarrak. 700 kiloko harriarekin, 15 minutuko saioan zeinek plaza gehiago egin izanen da desafioa. Zetreria ere izanen da plazan.

Gainerakoan, besta ederrak heldu zaizkigu eta animatu!

HONDAKINAK

Lau urtez 624 konpostontzi banatu dira Baztan-Bidasoaldean

TTIPI-TTAPA

336 konpostontzi Bortzirietan, 182 Baztanen eta 106 Malerrekako Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak, Baztango Udalak eta Malerrekako Mankomunitateak azken lau urte hauetan egin dituzten kanpainen, guztira 624 konpostontzi banatu dira. Horietan hondarrekoak, azken asteetan egin dira. Konpostontziak banatzeaz gain, izena emana zuten familia guztiekin bilerak ere egin dituzte konposta nola egiten den azaltzeko, zer botatzen ahal den eta zer ez, zein arazo izaten ahal dituzten eta nola konpondu. Ekainean, adibidez, 164 konpostontzi inguru banatu ziren Baztanen, eta 88 Malerrekako. Uztail hasieran, berriz, 43 konpostontzi banatu ziren Bortzirietan. Oraindik ere norbait interesatua baldin badago, izanen du aukera. Zerrenda berria betetzen ari dira eta izena emateko Baztango udaltxera edo Bortzirietako Malerrekako Mankomunitatera deitu behar da. Bertzetik, traste zaharren bilketa egiteko telefono berria dela oroitarazi dute Bortzirietako Mankomunitateak. Orain 672 045734ra deitu behar da.

TELLETXEA
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683
john.telletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

KOXKONTA Jatetxea

2012an ezkontzen diren bikoteendako Promozioak

T. 948 627 519 • 948 627 503 • 689 801 657
Otiango auzoa, 1 • LESAKA

KIROLA → ORIAMENDI 2010 ENPRESAREN ESKUTIK

Jose txo Ezkurak erremonte profesionalerako saltoa eman du

Zazpi
erremontista
profesional
daude herrian

TTIPI-TTAPA

Bertze erremontista profesional bat Doneztebek lehendik duen zerrenda luzerako: Jose txo, Ezkurra II.a. Berekin guztira zazpi dira profesionaletan dabilzan herritarrik: Jose Jabier Etxeberria III.a, Koteto Ezkurra, Iñaki Martinez Lizaso, Patxi Olazar, Julen San Migel, Xanti Uterga eta orain Jose txo Ezkurra. 20 urteko gazteak uztailaren 14an debutatu zuen Hernaniko Galarreta pilotalekuan, Labaka, Otaegi eta Aizpuru III.a erremontista berriekin batera. Gainera, garaipenarekin eta nagusitasuna erakutsiz egin zuen debuta. Oriamendi 2010 enpresako jokalar berriak dira, eta gisa honetara, erremontean hasi zenetik aunitzetan buruan ibili omen duen ametsa egi bihurtu zaio Ezkurrari. Aurrelaria da bera.

Erremontean hasi aitzinetik, eskubaloian ibilizen Jose txo, baina behin erremontean hasita, enpresari eskainitako elkarrizketan erran duenez, «profesionalerako saltoa espero nuen, baina beharbada ez hain abudo». Garbi du zein den bere erremontistarik kuttunena, bere osaba Koteto «du-

darik gabe», gainera. Erremontetik aparte, unibertsitatean irakas-kuntzako ikasketak egiten segitzen du. Hirugarren kurtsoa egiten ari da.

EGA titulua ateratzeko ikastaroa

Doneztebeko IKA euskaltegiak abuztuaren EGA titulua ateratzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa klase presentzialetara joanda edo on-line ordenagailuaren bidez egiten ahal izanen da. Lau asteko iraupena izanen du, abuztuaren 6tik 31ra. Interesatuek 948 451555 telefonora dei dezakete, uztailaren 31 baino lehen.

Udal Plan Orokorra jendaurrean

Udalak hasierako onespina eman dio Udal Plan Orokorriari eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean uztailaren 13an argitaratu zen. Orduan hasita jendaurrean egonen da hiru hilabetez.

Ludoteka

Tokiko Kontziliazio Itunaren barne, aurten ere ludoteka zerbitzua eskainiko da udako hilabeteetan. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra egonen da zabalik 09:00etatik 13:00etara.

Erakusketa

Uztailaren 16az gozotik, Margarita Aizpu-

ru artistaren lanak ikusgai daude Alhondigan. Abuztuaren 15era arte egonen dira, 17:00etatik 20:00etara.



ARGAZKIA: ORIAMENDI 2010
Ezkurra II.ak uztailaren 14an debutatu zuen profesionaletan.



ARGAZKIAK: ERREKA

28 neska-mutiko Udako Kirol Eskolan

28 haur eta gazte ari dira parte hartzen Errekak antolatu duen Udako Kirol Eskolan XII. edizioan. Gehienak Doneztebekoak badira ere, Donamaria, Sunbilla eta Legasatik ere etorri dira. Bi taldeetan banatuta ari dira Ainara Marizkurrena monitorea dutela: 6-9 urte bitartekoak talde batean eta 10-13 urtekoak bertzean. Lehenbizikoan hogei haur daude eta bigarrean zortzi.



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Murrizketen kontra

ELA eta LAB sindikatuek deituta murrizketen kontrako kontzentrazioa egin zen uztailaren 17an Enplegu Bulegoaren parean.

URROZ

AZPIEGITURAK → ARAZTEGIA

Depuradora berria egiteko lehenbiziko urratsak eman dira

Azken urteetan zikinkeria zuzenean erre kara isuri da

Joseba URROTZ

Aspaldiko urteetan, araztegia edo depuradora hondatua dago. Herriko ur zikinak garbitu behar litzuzkeenak 15 bat urte behin behin izanen ditu zikinkeria guztia zuzenean erre kara isur-tzen. Orain dela urte batzuk, NILSA Nafarroako Gobernua-ren enpresa aukerak aztertzen hasia zela ematen zuen, haien artean, Donamariako araztegiara eramatearena, nahiz eta aspaldi honetan ez zen deusen be-



Gaur egungo depuradora.

ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

rririk. Orain, ordea, badi rudi zerbait mugitzen hasi dela, eta depuradora berri bat eginen dela.

Lan horren proiektua egiteko neurketak eginen aritu dira berriki. Ha-

la ere, proiektuaren xehetasunak jakiterako denbora joanen da seguraski, eta zer erranik ez obra egiterako. Dena den, bada zerbait pausuak ematen hasi izana.

Konponketak urtegietan

Itxura denez, Iberdrolak eusten dio Leurtzako eremuan dauden urtegien mantenimenduari, hainbat hobekuntza egiten ari baita az-

ken urteetan. Orain dela aste batzuk hormigoia tratatzen duen enpresa bat aritu da bi parretak garbitzen. Langileek erran digutenez, irail aldera berriz etorriko omen dira, hormigoizko hesiak dituen hainbat artesi eta zulo estaltzera.

Ez da harritzekoa presa hondatzen hasi izana, 100 urte betetzear baitago. Aipatu enpresako langilearen arabera, hormigoia bertako materialekin egina izanen omen zen, eta honezkerok dezente hondatzen hasia izanen da. Edozein moduz, hilabetero presa mugitu den ala ez ikustera etortzen direnek bere lekuan segitzen duela aipatu digute. Oraingoan, lasai egon gaitzake.

ELGORRIAGA

GIZARTEA → HERRIKO LANGILEAK ETA HERRITARRAK ELKARLANEAN

Itxuraberritua gelditu da herri sarrerako iturria

Harri berria paratu eta barreneko aldea moldatu zaizkio

Mattin LARRALDE

Herrira sartu aitzinetik dagoen iturria itxuraberritua gelditu da. Urte batzuetan, ez da hagitx txukun egon, kai-

nua soilk baitzeukan. Baina herriko langileen bidez, eta herritar batzuen ideiarri esker, bertze itxura hartu du orain iturri honek. Harri berria paratu zaio eta barreneko aldea moldatuz ederki gelditu da.

Karpa bestetan

Aurten lehenbiziko aldiz, herriak estalpea

izanen du bestetan, karpa bat egin baita. Duela zenbait ale aipatu zen TTIPI-TTAPAN, Udalak kendu eta paratzen ahal den estalpe bat egiteko proiektua zuela esku artean. Proiektu honek joan den urteko bestetako euritearen ondorioz hartu zuen indarra. Aurten ez dugu eurien beldurrik izanen.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Honela gelditu da herri sarrerako iturria.

Bertze aldetik, aldizkari hau ateratzen denean, bestetan egonen gara, baina norbaitek gogoia baldin badu,

gonbidatuak egonen dira herria eta jendea eza gutzera. Anima zaitezte, giro ederra izanen da eta!

UDAKO FESTAK → ABUZTUAREN 14TIK 18RA

Herriko zaharrei omenaldia eginen zaie fiestetako azken egunean

80 urte dituztenak eta hortik goitikoak omenduko dira

Fermin ETXEKOLONEA

Aurten 80 urte bete dituzten eta 80 urtetik goiti dituzten herritarrek protagonismo berezia hartuko dute fiestetako hondarreko egunean. Herriak omenaldia egitea erabaki du eta hala, abuztuaren 18an, herri bazkarira gonbidatuko ditu Udalak; herriak ordainduko die bazkaria. Egun horretan, beraien omenez meza ere izanen da.

Ea bada animatzen diren fiestetako azken

egunean omenaldian parte hartzera.

Dantzariak eta joaldunak Erreterian

Lehen ere aipatu izan dugu igandetean euskal dantzak ikasteko talde bat elkartzen dela. Baina ikasi ez ezik, gehiago ere egiten dute. Duela gutxi Erreteriarira irteera egin dute dantza emenaldia egiteko. Ikusten denez, ikasitakoari etekina ateratzen diote eta ea fiestetan ere saioen bat eskaintzen duten.

Bestalde, joaldunak ere ateraldiak egiten ari dira eta berriki, Erreterian aldean ibili dira joarreak astintzen.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Ludotekako denboraldiari behar bezalako despedida eman zaio

Antzerki bat eginez agurtu zuten uztailaren 6an ludotekako denboraldia. Txasen zuzendaritzapean, argazkiko neska gaztetxo hauek oso antzerki polita eskaini zuten. Jone Indakotxea, Luaia Fagoaga, Saioa Mariezkurrena, Malen Etxekolonea, Nahiara Anso, Ane Etxeberria, Nahia Etxeberria, Garazi Santesteban eta Naroa Santesteban izan ziren protagonistak eta antzezlanaren ondotik, berrendua egin zuten. Lerro hauen bidez, Txas zaindariari eskerrak eman nahi dizkiogu egindako lanagatik.

Igor Babaze Quebrantahuesosen

Ekainaren 23an jokatzen Quebrantahuesos proba ezaguna Sabiñanigon (Huesca), 205 kilometroko txirrindularitza proba. Igor Babazek sasoiko dagoela erakutsi zuen berriz, las-

terketa akitu baitzuen. Zorionak Igor eta segi horrela!

Beste zubietar bat

Jaiotzen berri ematea beti da pozgarria herriarendako eta aldi honetan ere beste herriar bat badugula esan behar dugu: Ane San-

testeban Amoros, Josu eta Ainararen alaba.

Lerro hauen bidez, zorionak bai gurasoei eta bai atautxi-amatxi eta birramatxi-birra-tautxiri ere, eta herritarrak ditugun aldetik, bereziki Joxepa eta Jexuxi, eta Periko eta Imatxori.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

UDAKO MERKEALDIA

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · mairidireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

LEGASA

GIZARTEA → ATERPEA ENKANTEAN HARTU DUTE

Kattalin aterpeko ostatua abuztu hondarrerako ireki nahi dute

Mattarik hartu du aterpea enkantean

TTIPI-TTAPA

Dakizuen bezala, ekainaren 16an akitu zen Kattalin aterpea hartzeko eskaintzak aurkezteko epea.

Interesatu askok deitu zuten baldintzak jakiteko, baina azkenean, proposamen formal bakarra aurkeztu zen, Mattari BKZko arduradu-

narena, hain zuzen ere. Ilusio eta gogo haundiarekin sartu da proiektu berri honetan eta bere intenzioa abuztu bukaerako, bestak direla aprobeztatuz, ostatua martxan jartzea da.

Baldintza nagusia aterpea mobleztatzea izanen da. Sukaldea, ostatuko barra, oheak, mahaiak, aulkiak... bere esku geldituko dira. Honen truke, alokairua debalde izanen du oraindik erabaki ez den hainbat urteren truke. Halere, mantenimendu



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bestak antolatzeko komisio anitza sortu da

Urtero bezala, bestak antolatzeko tenorea ailegatu da. Aurten gazte komisioan kopurua dezente murriztu dela eta atzetik gazte gutti heldu direla ikusita, bestak antolatzeko komisioa sortu da. Aipatu, gazte horiek 30 urte inguru edo gehiago daramatzatela bestak antolatzen. Halere, azken urteetan, kontzejuaren laguntza ere izan dute. Komisioan adin guztietako herritarrak daude sartuta. Baldintza bakarra lan egiteko ilusioa izatea da. Lehenbiziko bilera uztailaren 16an egin zuten eta hurrengo astelehen honetan egitekoa zen. Egitaraua zehazten hasi ziren eta lanak banatzen. Erran, komisioan sartzeko aukera herritar guztiei irekita dagoela eta ideia berriak ongietorriak izanen direla. Beraz, lerro hauen bidez, komisioan parte hartzeko gonbidapena herritar guztiei luzatu nahi zaie.

gastuak hartzaileak ordaindu beharko ditu.

Kattalin aterpeak 450 metro koadro inguru di-

tu eta 45 pertsona hartzeko prestatua dago.

Bortz logela eta bortz komun, igogailua, sa-

baian bi trasteleku, sukaldea, barra eta egongelajartzeko tokia du.

GIZARTEA

TURISMOA → 2012KO UDAKO ESKAINTZA

Zaldietan ibilaldiak eskainiko ditu Plazaola Partzuergoak

Udako eskaintza aurkeztu du Plazaolak

TTIPI-TTAPA

Plazaola Partzuergo Turistikoak 2012ko uda, oihanaren bihotzean ekintza eta bisita gidatuen programa aurkeztu du eta berrikuntza nagusien artean, zaldiek tiratutako gurdietan ibilaldiak eskainiko dituzte.

Bisita gidatuei dagoenik, Plazaolako Natur Bidea eta Lekunbe-

rriko alde zaharra, Kantina Plazaola-bizikletan alokairua, Beigorri Abentura parkea, Mendukiloko koba, Bikain gaztandegia, Saralegiren Arro baserria, Ezkurdi erlezaintza museoa, Mirua natur jarduerak edo Lacturale interpretazio zentrua ikusteko aukera izanen dute Plazaolako bisitariek.

Dena den, aurtengo berrikuntza nagusia Plazaolako Natur Bidea zaldigurdian bisitatzeko aukera izanen da. 30 minutuko ibilaldia proposatu du Partzuergoak,

Plazaolako natur bide eta Lekunberriko alde zaharra era ezberdin batean ibiltzeko. Helduek 10 euro ordaindu beharko dute eta hurrek 5 euro. Gehienez 4 lagun joan daitezke bidaia baita koitzen eta gutxienez, 2 lagun. Ostegunetik igandera eskainiko da zerbitzua irailaren 15a bitartean, 10:00etan, 10:45ean, 11:30ean, 12:15ean eta 13:00etan. Ordua eskatzeko aurretik deitu behar da 948 507204 telefonora edo oit@plazaola.org helbidera idatzi.

Beste aldetik, Natur Bidetik ibiltzeko bizikleta alokairua, itzulera garrarioarekin eskaintzen du Plazaolako kantinek. Bizikletan alokairua dagoenez, 2 ordurako bizikleta hartzea 5 euro kostako da, egun erdirako 8 euro eta egun oso-rako 12 euro. Itzulerako garrarioa hartu nahi duenak aldiz aurretik deitu beharko du 948 604644 edo 699 383287ra eta gutxienez 3 pertsona bildu beharko dira. Leizatik bueltatzeko 8 euro ordaindu beharko da eta Andoainetik 12 euro.



Desagertua

Eustakio MUTUBERRIA

Bera bilatzeko laguntza eskatu dute

Uztailaren 1ean desagertu zen Eustakio Mutuberria Jorajuria 79 urteko sunbildarra bilatzeko jendearen laguntza eskatu du Nafarroako Larrialdi Zerbitzuak. Geroztik bila dabilta baina lerro hauek idazterakoan oraindik ez zuten aurkitua. Edozein informazio delare, 112ra deitzeko eskatu dute.

BigMat

MENDITXURI

DONEZTEBE • Leitzako errep. • 948 450 305

RENOVE PLANA

Milwaukee
C18PD-32C
markako
zulogailu
bat
erosteagatik...

...zure zulogailu
zaharra ekarri eta

100€ko
balea
emanen
dizugu

289€
renove planarekin
(PSP: 389€)

- Zulogailu kolpekarri / bihurkin konpaktua
- 4 poloko motorra, 80Nm-kin
- Bi abiadurakoa eta estutze-mantenuko 24 posizio
- Engranajeen kutxa erabat metalikoa
- 18Vko bi bateria - 3Ah Red Lithium markakoa
- Elektronika aurreratua
- Gelaxken banakako kudeaketa, honek karga bakoltzari autonomi gehiago ematen dio.
- Karga ziklo gehiago, balio-bizitza gehiago
- Gaikargaren kontrola
- Muturreko tenperaturetan lan egiteko balio du
- Bateriari mailaren adierazlea.



Milwaukee

RED LITHIUM-ION

BEINTZA-LABAIEN

HERRIKO BESTAK → ABUZTUAREN 3TIK 6RA

Bestetako lau egunetatik hirutan aizkora apustuak izanen dira

Ortziral ilunabarrean botako da txupinazoa

TTIPI-TTAPA

Abuztuko lehenengo asteburua hartuko dute aurten ere bestek, eta lau egun ez da ongi pasatzeko aukerarik faltako.

ABUZTUAK 3, ORTZIRALA BEINTZA

- 20:00etan altxafe-roak, bestei hasiera emateko.
- Ondotik karrikarronda.
- 21:00etan Baztan-zopak Iturrondo elkar-tean eta Labaiengo ostatuan.
- Gauz dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

ABUZTUAK 4, LARUNBATA LABAIEN

- Goizean karrikarronda.
- 11:00etan plater-tiroketa.
- 11:30etik 13:30era puzgarriak.
- 17:00etatik 19:00etara puzgarriak.
- Ondoren aizkora apustua: alde batetik, Nazabal eta Erasun, Larretxea aita-semeen kontra. Bestetik, Atutxa eta Azurmendi, Otaño eta Otaegiren kontra.
- 22:30ean suak.
- Arratsaldean eta gauz dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

ABUZTUAK 5, IGANDEA BEINTZA

- Goizean karrikarronda.

- 12:00etan Meza Nagusia.
- 17:00etan Patxin eta Potxin pailazoak.
- 18:00etan aizkora apustua: hirugarren mailako kanporaketa.
- 21:00etan tortilla eta postre lehiaketa.
- 22:30ean suak.
- Arratsaldean eta gauz dantzaldia JOXE ANJEL akordeolariarekin.

ABUZTUAK 6, ASTELEHENA LABAIEN

- Eguerdiaren aizkora apustua herriko lau bikoteren artean.
- 14:00etan kantu zaharrekin girotutako herri bazkaria. Bankako kantariak etorriko dira.
- Arratsaldean eta gauz dantzaldia FRANTZISKO akordeolariarekin.
- 00:00etan GAIXOA NI beste bukaera emanez.



ARGAZKIAK: AMAIA MINDEGIA ETA ARANTXA ITURRALDE

Aizkora apustuak eta herri bazkaria izaten dira bestetako ekitaldirik jendetsuenetakoak, baina ez bakarrik.

BEINTZA-LABAIENGO UDALAK

Besta onak opa dizkie herritar eta bisitari guztiei

ORBELA
Bierrentarria - Albergoa

BEINTZAKO OSTATUA ATERPETXEA
Idole - Mikel

T. 948 450 014 - 11753 BEINTZALABAIEN
albergo@albergoprososviana.com • www.albergoprososviana.com/turistas

BALEZTENA
Janartekaria

T. 948 450 088
Anfizionizaria
BEINTZA-LABAIEN

LABAIENGO Herriko Ostaturia

Ongi pasa bestak!

T. 948 450 811

SANTO DOMINGO BESTAK → ABUZTUAREN 3TIK 6RA OSPATUKO DIRA

Ortziral ilunabarreko txupinazoarekin hasiko dira lau eguneko bestak

Igande eguerdian aizkora apustua jokatuko da

TTIPI-TTAPA

Gero eta guttiago gelditzen da Santo Domingo bestetarako. Aurten lau egunez ospatuko dira eta adin guztietako jendearendako ekitaldiak izanen dira.

ABUZTUAK 3, ORTZIRALA

- 20:00etan suziarik beste hasiera emateko.
- Ondotik txistulariak herria alaitzen ibiliko dira.
- 21:00etan Baztan Zopak Herriko Ostatuan.

ABUZTUAK 4, LARUNBATA

- 10:00etan kalejira.
- 11:30ean Meza Nagusia.

- Ondotik salda Herriko Ostatuan.
- Arratsaldean jokoak eta puzgarriak.
- 17:00etan mus txapelketa.
- 22:00etan gazte afaria.
- Arratsaldez eta gauetz dantzaldia AIERRIK taldearekin.

ABUZTUAK 5, IGANDEA

- 10:00etan kalejira.
- 13:00etan aizkora apustua.
- 16:00etan partxis txapelketa.
- 18:00etan trikitixa erakustaldia.
- 19:30etik 22:00etara dantzaldia AGERRALDEarekin.

ABUZTUAK 6, ASTELEHENA

- 09:00etan gosaria plazaan.
- 14:00etan herri bazkaria.



ARGAZKIAK: ANTONIO LOPEZ

Goiko eta beheko argazkietan haurrak ageri dira eta erdikoa herri bazkarikoa da.

- Ondotik, GAIXOA NI bestak akitzeko.
- Arratsaldez dantzaldia AGERRALDEarekin.
- 22:00etan afaria.

Leizola
Euzkoan
Nafarroan
Zuzenbidea
Puntu Marka
ICHI GOMIA
Herriko plaza 30 48100 Leizola
T: 948 637 504

ttipi-ttapa
etxera bidaltzea nahi baduzu,
daflu telefono honetara:
(0034) 948 63 54 58
www.ttipi-ttapa.com

YORROXIM IRRATIA
BEHIKAKA.COM
Uztailaren
29an
ELIZONDOn
Arratsaldeko
18:00tan
ZUZKETA MUNDIALA
BOLETOAK 5€tan ESKURAGARRI
T. 948 581 374 | www.behikaka.com

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria arazi taldea

TXARUTA, S.L.
Iturgintza · Berokuntza · Gasa
ongi pasa bertatik!
948 45 17 28 · 659 77 00 15
GAZTELU

SOBEKO
Herriko plaza 1
LEZANA
T. 948 637 504

BERTIZARANA

NARBARTE → MARTIKOK AURREZ PRESTATUTAKO JAKIEN PLANTA IREKI NAHI DU

Jakien planta irekitzeko egitasmoak aldeko ingurumen txostena jaso du

Proiektuaren barne, gasolindegia ere aurreikusia da

TTIPI-TTAPA

Aurrez prestatutako janariaren eta zerbitzuen eraikina, biltegiak, gasolindegia, aparkalekuak eta ekipamenduen eremua egin nahi ditu Martiko enpresak NARBARTEN. Eta horretarako udal hirigintza planean egin beharreko aldaketek aldeko Ingurumen ondorioen adierazpena hartu dute, Nafarroako Gobernu Ingurumenaren eta Ura-zen zuzendari nagusiak emana.

Egitasmoa N-121A errepidearekin muga egin ez eraike nahi du Martikok, bi eremutan antolatuta. Industria eremua 106. lurzatian eginen litzateke, errepidearen hegoaldean, eta 34.728 m²ko azalerarekin. Hemen janariaren eta zerbitzuen eraikina, biltegia, gasolindegia eta aparkalekuak eginen lirateke eta bidearen iparraldean, berriz, ekipamenduen eremua eta sistema orokorrak. Berdegune bat ere proposatu da proiektuan, 18 metroko zabalerakoa errepidearen parean eta 25 metroko zabalerakoa Bidasoa ibaiaren parean eta eraikinetatik bereizteko zuhaitz hesi bat landatzea ere bai.

Aldeko ingurumen txostena badu proiektuak, baina horrekin batera, neurri batzuk hartu behar dira: ibaiaren berdegunearen eta eraikinen artean, oinezkoendako



ARTXIBOKO IRUDIA

Martiko enpresak 2006an aurkeztutako proiektua.

ibilbide bat diseinatu da, baita integrazio neurriak ere, hala nola, landaresiak eta bertze hesi batzuk ere, ibilgailuek edo materialek ondoko berdegunea okupa ez dezaten. Nekazaritza pasabideak sarrera murriztua izan beharko du.

Euri urei dagokienez, Bidasoa ibaiaren baldintzetan ahalik eta aldaketa tikiak izateko soluzioen bat ere beharko da eta lur mugimendua guttien egiten eta lurren ahalik eta konpentsazio handiena lortzen saiatu beharko da. Gisa berean, Bidasoa ibaiaren naturgunea eta Bertizko Natur Parkea hurbil daudenez, behar diren neurriak hartuko dira argi kutsadura saihesteko.

AITZINEKO AGINTALDIAN HASITAKO EGITASMOA

Martikok duela urte batzuk aurkeztu zuen proiektua. Udal plan orokorren aldaketek lurzoru urbanizaezina ukitzen dutenean, udal plan orokorretako aldaketek Ingurumen ebaluazio estra-

tegikoa eta Ingurumen ondorioen adierazpena behar dituzte.

Aitzineko Udalak, 2006ko urtarrilean onetsi zuen udal planaren aldaketa eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean egon zen epean, 14 alegazio aurkeztu ziren, partikularrenak eta Oieregiko Kontzejuarenak.

Ingurumenaren Integrazio Zerbitzuak aldaketak Ingurumen Ebaluazio Estragikoa behar zuela ebatzi zuen 2006ko ekainean eta hala, Ingurumen ondorioen azterlana egiteko eskatu zuen. 2008ko otsailan jaso zen aipatu azterlana. Kokagunea interes naturaleko ibai-ibar batean hautatzea justifikatu behar zela erran zen berriz, eta paisaiaren gaineko ukipenak baloratu behar zirela.

2010eko urrian, dokumentazio osagarri gisa *Errekerimenduei erantzuteko eranskina* eta Baztan ibaiak NARBARTEN duen uholde arriskuaren gaineko azterlana jaso ziren. Udalak 2011ko martxoan argitaratu zituen

iragarkiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Ingurumen ondorioen azterlanarekin. Alegazio gehiago aurkeztu ziren, partikularrenak eta Oieregiko Kontzejuarenak.

Alegazio horietan ageri denez, uste dute «industria eremu berri baten proposamenak berarekin dakarrela lurralde okupazioaren eremuan aldaketa garrantzitsu bat egitea eta hori ez datorrela bat planeamenduan defendatutako ereduarekin». Diotenez, paisaiaren gaineko ukipenek «kalte la-

ria» eginen dute ibarretan, eta «bereziki, eremu zehatz horretan, Bertizko Natur Parkeko sarreretako bat baita, eta baliabide garrantzitsua ingurumenaren eta sozioekonomiaren aldetik». Etxeen industria eremuarekiko hurbiltasunaren ondorioz, «herritarrek bizi kalitatea galduko dutela aurreikusten dute». Horrez gain, alegazioetan azaldu denez, «Ingurumen ondorioen azterlanak ez ditu behar beste baloratu okupazio industriaren eta lurraldearen erabilera aldaketaren ondorioz izan daitezkeen paisaiaren ukipenak». Ur horniduraren aferarekin kezkatuta daudela ere alegatu dute, baita 2006ko hasierako onepenetik gaur arte «aldaketa aunitz» izan direla ere, etxe berriak egin direlako eta «eskualdean ekimen sozioekonomikoak garatu direlako».

Alegazioak aurkeztu dituztenak eskualdeko garapen industriaren alde ageri dira, baina industria eremua Legasako industrialdan kokatzearen aldekoak dira».



Udako merkealdia koltxoietan

%25^{eko} deskontuak

+ dinari lapizatus edo apolo somierra

	80	90	105	135	150	160
190/	318€	318€	356€	438€	482€	514€

habeak jartzen ditu gabe

+ urban kanapea

	80	90	105	135	150	160
190/	508€	514€	562€	676€	730€	798€

Txiki berragazte bageki gabe

confortplus koltxoia



+ ordesa kanapea

	80	90	105	135	150	160
190/	592€	598€	648€	752€	808€	888€

+ master kanapea

	80	90	105	135	135 jantza*	150	160
190/	582€	590€	640€	754€	790€	838€	914€

Kanapeetako kukiak txiki berragazte bageki gabe

koltxoia viscodreams



balaitasiko termotanikorra

	80	90	105	135	150
190/	166€	166€	189€	236€	262€

koltxoia termovisco

OPARIA
DUPLO berragazteko



3 koloreko

+ apolo somierra



Espezialki egindako matxoa

	80	90	105	135	150
190/	302€	306€	362€	438€	476€

* 180ko luzera %5ean altxatuko da eta 200koak %10ean



Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE
T. 948 450 258 • 948 451 811
info@mueblestelletxea.com
www.mueblestelletxea.com

ARANO

UDALA → MENDIA

Herriko hainbat parajetan garbiketak egiten ari dira hil honetan

Landaketak egiteko garbiketak aurreikusi zituen aurreko Udalak uda honetarako

Ainhoa ANSA

Aurreko Udal Taldeak lotuta utzi zuen bezala, udan garbiketak programatuta zeuden moduan ari dira egiten.

Azken urteetan egin diren landaketek aurrera egingo badute, garbiketak aurreikusi ziren 2012ko udan egiteko, ondoko parajetan:

- Etzabalen pagoa, urkia, otsalizarra eta lizarra. Guztira 4,40 hektarea daude garbitzeko.
- Txurdaingiko Bordan alertzea, bertako ha-

ritzta, astigarra, gerezi ondoa, lizarra eta urkia. 11 hektarea dira.

- Arranbide-Erbizinen douglas izeia. Guztira 10,30 hektarea dira eta 2011n sartutako sekua 2,82 hektarea.
- Kaxetan alertzea, cryptomeria, bertako haritza, astigarra, gerezi ondoa, lizarra, urkia eta akazia. 7.73 hektarea denetara.
- Tintapolon gaztaina eta akazia, 12.60 hektarea.

Ekaina erdialdean hasi eta uztaile bukatu arte izango litzateke garrik onena garbiketak egiteko eta dirudenez, epe horren barruan egiteko moduan izango dira langileak.

Horretaz gain, Suroko bide bazter gehiena makinaz garbitu da aurtentzen eta gainerako auzo bide eta estartak ere garbitzen ari da udal txeko langilea.



ARGAZKIA: AINHOA ANSA

Bazterrek ederki garbitzen ari dira azken asteetan.



ARGAZKIA: AINHOA ANSA

Gizarte zerbitzuak

Informazioa emateko azalpen bilera bat egitera etorri ziren Aranora ekainaren 27an Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetako hiru teknikari; Junkal Otxotorena, Maite Urroz eta Maite Perurena. Herritarren eskura dauden baliabideen berri emateko asmoarekin antolatu zen hitzordua eta dozena bat lagun gerturatu ziren teknikarien azalpenak entzutea. Zerbitzu honetatik bidera daitezkeen laguntza mota nagusienak azaldu zituzten eta laguntzaren bat tramitzeko beharrezko aurkitzen denak Leitzako Bulegora deituta jasoko du beharrezko informazioa.



APARAN, S.A.

BRINKOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate amuntak eta sukaike mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bamurako mobleak eta osagariak
- KIT mobleak: esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080

Fax: 948 450 334

DONEZTEBE

GIZARTEA → OSTALARITZA

32 urteren ondotik Goiz Argi tabernak igande honetan ateak itxiko ditu

Tabernaz arduratzeko inor ez dagoela eta ixtea erabaki du Marikarmenek

TTIPI-TTAPA

1980an zabaldu zituena Marikarmen Azpirozek lehenengo aldiz Goiz Argiko ateak. Jolas-areto bezala egin zuen lehen urtea eta 1981ean jolas-aretoa kendu eta taberna ireki zuen. Geroztik, Marikarmenek egunero-egunero ireki izan du Kale Nagusian dagoen taberna.

32 urteren ondotik, ordea, ixteko tenorea ailegatu zaio. Marikarmenek ezin du tabernarekin jarraitu eta tabernaz arduratzeko inor ez dagoela ikusita, hilabete honetan itxiko ditu ate-

ak. Etxekoandreak berak kontatu digunez, igande honetan, uztailak 29, izanen du azken eguna. Despedida gisa, igandean, luntxa eskainiko du eguerdian eta herritar guztiei irekita egonen dela jakinarazi digu.

Festetako bloga

Amabirjin festen inguruko xehetasun guztiak argitzen dituen bloga sortu dute, eta beraz, norbaitek zerbait jakin nahiko balu, hortxe du eskura www.goizutako.fiestak.com ataria. Egitaraua, argazkiak, Goizueta-Hernani-Goizueta autobus zerbitzuaren ordutegia, non jan eta non lo egin daitekeen eta kontakturako telefono eta helbideak ageri dira, besteak beste.



Baiatzinikin...

Aurtengo Kizki Eguna irailaren 16an egingen dela? Kizkiarekin 500 lagunek sagarra bildu ezetz. Desafio horixe bota zion joan den urteko Kizki Egunean Goizuetak Hernaniri eta irailaren 16ra-ko antolatutako festa egunean marka hobetzen saiatuko dira hernaniarrak. Lortuko ote dute?

Mundu guztiak ikusteko!
Kontzentratuak | Herrako bestak | Txapelketa Komertzioak

100 KARTEL 93€*
(A3 koloretan)

250 KARTEL 110€*
(A3 koloretan)

*BEZ gabe (%18) / Eskaintzaen epea: 2012/06/01

tiipi-ttapa

Itxasokoakako bidea, 07-1. LESAKA
948 635 458 / kultura@tiipi.net
www.kultakari.com



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Giro polita Karmen bezperan

Arratsalde eta gau giro ederrean joan da aurten bigarren bezperako ospakizuna. Plazan afaldu ondotik su gainean saltoka ibili zen jendea.



ARGAZKIAK: IGOR ELIZEGI

Udako ikastaroen azken egunak

Guraso Elkarteak neska-mutikoentzako antolatutako ikastaroak azken txanpan sartu dira. Hilabete osoan eskulanean, igeriketan eta informatikan aritu dira eta aski momentu ederrak pasatzeko aukera izan dute.

LEITZA

GIZARTEA → NAFARROAKO KONKISTAREN 500. URTEURRENA

Konkistaren 500. urteurrena gogoan oroitarria jarri dute Iberoko dorrean

Gaztelarrak Goizuetatik sartu ziren orain 500 urte

JM BARRIOLA

Uztailaren 10ean, duela 500 urte, Goizuetatik Gaztelaren aldeko soldaduak sartu ziren. Ondoren, uztailaren 21ean Ziordiatik, eta horrela, Nafarroaren inbasioa eta konkista gauzatu zituzten gaztelarrek urteetako gerra eta jazarpenen ondoren. Hau horrela, Iberoko dorrean oroitarria ezarri zuten uztailaren 10ean Nafarroa Bizirik plataformaren eskutik. Nafarroako estatuaren gaztelu eta dorreetan zutarrak jartzen ari dira urte honetan eta Iberon ere horrela egin dute. Leitzako eta Goizuetako hautetsiak eta herriar batzuk bildu ziren eta zutarrak ezarri zuten Iberoko dorrearen historia aipatuz. Aurrezku bat dantzatu zuten herriko bi dantzariak.

Aurrerantzean ekimen gehiago izanen dira 500. urteurrenaren oroimena berreskuratzeko eta zabalduz. Horien barruan, Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarren mintegi bat Leitzan egingen da irailean.

Segalarien txapelketa

Erreka auzoko Urtozikiko belatsoan jokatu zen Euskal Herriko segalarien txapelketa. Jesus Mari Ormaetxea *Urki* gipuzkoarrak



ARGAZKIAK: JUAN MARI BARRIOLA

Nafarroako konkistaren 500. urteurrena gogoratu zuten uztailaren 10ean Iberoko dorrean.

irabazi zuen, ordu batean 2.996 kilo belar ebakita, bigarren Mikel Alkorta sailkatu zen, hirugarren Juan Jose Lizaso eta Jon Kanflanka *Mikone* leitzarria laugarrena gelditu zen. Jende asko bertaratu zen saioa ikustera.

Sagastibeltza Eibarren futbolean

Aimar Sagastibeltza futbol jokalaria Eibarrek fitxatu du. Orain arte Teruelen jokatu du eta hemendik aurrera etxetik hurbilago aritzeko aukera du, Eibarko taldean jokatuko baitu hurrengo denboraldian.

Jeiki abesbatza zaharberritzen

Urte askoren ondoren, Jeiki abesbatza zaharberritzen ari da. Ne-

kane Piñuela izanen da irailetik aurrerantzean zuzendaria. Irailean ikasturte berriari indarrean hasteko asmotan dira. Honetaz gain, abesbatza parte hartu nahi duenak aukera izanen du, abuztuaren 25a baino lehen izena emanez. Izena Karrape irratian edo 606 393842 telefonora deituz eman daiteke, baita Maimur eta Asitz liburu-dendetan ere.

Konpostadora gehiago

Lehenengo alean aipatu bezala, uztailaren 6tik

aurrera Mendialdea Mankomunitateko langileak herriko eta baserrietako biztanleak bisitatzen ari dira etxez etxe. Ekimen honekin zaborren birziklapenean jendea sentsibilizatu nahi da, modu zuzen batean bereizteak nolako garrantzia duen erakusteko.

Beste aldetik, hamabots konpostadora ekarri berri ditu Mankomunitatean banatzeko, hauetatik sei Leitzan. Aipatu, lehenengo urteko kanpainan 107 banatu zituztela eta horietatik

44 Leitzan. Honekin etxeko konposta bultzatu nahi da. Formazio kanpaina egingen dute Nafarroako Hondakinen Partzuergoko teknikariek konposta nola egin erakusteko.

Pestetako behientzako hesiak aldatuko dira

Lehenengo urtean Nafarroako herri batzuetan zezenketetan istripu larriak gertatu ziren. Horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak zezenketetarako hesien arauak asko gogortu ditu dekretu baten bidez. Herriko hesiak aldatzea behartuta dago.

Dekretu berrira egokitzeko Udala plazako hesiak aldatzen ari da. Adibidez, Torre aurreko pasabidea kentzera behartuta dago eta entzierroa antolatzen zailtasunak daude. Aurten, motzagoa izanen da, orain arteko bide osoa mantentzea oso zaila izaten ari delako.

Atekabeltzen korto lehiaketa

Atekabeltzeko Gaztetxean III. labur lehiaketa antolatu dute. Gai librearekin, ostegun honetan, uztailak 26, aurkeztu behar dute parte hartu nahi dutenek.

ttipi-ttapa
adibidea ebera bidaltzea nahi baduzu,
ditu telefono honetara:
(0034) 948 63 54 58 - www.ttipi.net

UDALA → AUZOLANERAKO GONBITEA

Matxain erreka auzolanean garbitzeko deia egin du Udalak

Gainerakoan, festak gainean direla, herri bazterrak txukuntzen ari dira langileak

Juana Mari SAIZAR

Udan murgilduta gaudelarik festa usaina antzematen da. Alde batetik, festetako programari azken ukituak ematen ari da Udala eta beste aldetik, berriz, herriko langileak herri guztia apaintzen eta txukuntzen dabilta.

Umeak, beren aldetik, goizetan ludoteka saioetara hurbiltzen di-

ra eta arratsaldez Ingurutxo entsaioetara.

Bestalde, erreka garbitzeko auzolanerako deia egin die Udalak herritar guztiei. Oraingoan, Matxain erreka ordua izanen da, duela urte batzuk Astomela garbitzeko saioa egin baitzen.

'Gazta zati bat' Dokumentala

Udalak antolatuta, joan zen uztailaren 20an, Jon Maia bertso-lariak zuzendu duen *Gazta zati bat* dokumentala eskaintzeko zen udaletxeko solairu berrian. Nazioen Mundua ekimenak ekoizitako dokumentala da.



ARGAZKIAK: IGONE GOIKOETXEA

Goiko argazkia ludotekakoa da eta behekoa, berriz, Ingurutxoaren entsaiokoa.



Bartzelonatik txapela

Pilota Federazioak deituta, Anartz Olano Bartzelonan izan zen ekainaren 30ean, Nafarren etxeak antolatutako San Fermin torneoan. Arratsalde batean 10 partida jokatu ziren frontoi irekian, 33 graduko tenperaturekin. Han ohitura den bezala, 25era jokatu ziren handien partidak eta txikienak 22ra. Anartzek Iban Cabrero lagun zuela irabazi egin zuen. Esperientzia polita eta beste txapel bat etxera.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBIERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LETTZA | BETEJUI
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BASTANDARRA)

— TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA —
— LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK —

BAZTAN

UDAKO BESTAK → ABUZTUAREN 9TIK 12RA

San Lorentzo mezperako txupinazoarekin hasiko dira bestak Zigan

Haur, gazte eta helduek non gozatua izanen dute

TTIPI-TTAPA

Abuztuko bigarren aseturuan hartuko du Zigak herriko besten lekuko. Abuztuaren 9tik 12ra, hainbat ekitaldi izanen dira sanlorentzo bestetan.

ABUZTUAK 9, ORTZEGUNA

- 20:00etan suziria eta ezkil-jotzea.
- Ondotik, herriko trikitalariekin kalejira.
- 21:30ean Baztan Zopak. Txartelak maiordomoek dituzte salgai.
- 00:30ean gaupasa SALABERRIrekin.
- 06:30ean talo jatea.

ABUZTUAK 10, ORTZIRALA SAN LORENTZO EGUNE

- 09:00etan dianak.

- 11:00etan Meza Nagusia.
- 12:00etan luntxa.
- 18:30ean haurren herri-kirolak.
- 19:30ean kantaldia Bordaxar laukotearekin.
- 21:00etan dantzaldia AGERRALDErekin.
- 21:30ean Mutildantza, joaldun eta txalaparta.
- 22:30ean afaria frontoian.
- 00:30ean dantzaldia AGERRALDErekin.

ABUZTUAK 11, LARUNBATA HAUR ETA GAZTEEN EGUNE

- 09:00etan dianak.
- 10:00etan gazteen gosaria ostatarrean.
- 11:00etan mus txapelketa.
- 12:00etan gazteak etxez-etxe.
- 13:00etan haurren bazkaria.
- 16:00etan haur joakoak, puzgarriak...
- 20:00etan dantzaldia AIERRIK taldearekin.



ARGAZKIAK: ARANTXA GAMIO

Mezperako ezkil-jotzea, plazako giroa eta gazteen giroa ikus daitezke argazkietan.

- 22:30ean herri afaria.
- 00:30ean dantzaldia AIERRIK taldearekin.
- 06:00etan gosaria etxera gateko presarik ez duenarendako.


ABUZTUAK 12, IGANDEA ZIKIRO EGUNE

- 09:00etan dianak.
- 14:00etan zikiro jatea, BIXENTEK alaituta. Txartelak maiordomoek dituzte salgai.
- 20:00etan dantzaldia SALABERRIrekin.
- 00:00etan GAIXOA NI.
- 00:30ean kazerolada.
- 01:00etan gaupasa.

Behikaka.com igandean!

Igande honetan, uztailek 29, eginen da Xorroxin iratiaren aldeko Behikaka.com zozketa berezia. Elizondon, Xorroxin iratiaren egoitza parean dagoen belagian eginen da. Belagia 2.000 laukitxotan banatuko dute eta laukitxo hauek salgai jarri dituzte boleto batzuz bidez, 5 eurotan. Eskualdeko ostatu eta komertzioetan eros daitezke, baina Internetez edo telefonoz eskaera egin eta etxera bidaltzeko aukera ere izanen da eskualdetik kanpokoendako. Boleto hauen zozketa igandean eginen da eta badaezpada ere, saridunak atera artio gordetzeko aholkatu dute, izan ere, ordezko zenbakiak ere aterako baitira. Hasierako zenbaki saridunen jabeek hilabete bateko epea izanen dute saria eskuratzeko, abuztuaren 29a artio. Epe horretan ez bada saridunik ateratzen, ordezko zenbakia indarrean sartuko da eta 15 eguneko epea izanen du saria eskuratzeko. Sariak banatzeko arduradunak 3 behi izanen dira: Erdiz, Lore eta Neke. Hiru sari eder banatuko dira eta aurten ere behi bakoitzak 20 minutu izanen ditu kaka egiteko. Behiaren kakak erabakiko du zeintzuk diren irabazleak. Behi bakoitzak kaka egiten duen laukitxoaren jabea izanen baita sari bakoitzaren irabazlea. Baina zozketatik haratago, besta tiki baten moduan planteatu dute eguna: zuzeneko irratsaioa, bertsolariak, jokaldi hobereenen aipamenak... izanen baitira, eta tragoxkaren bat hartzeko ostatu ere bai. Behien kakaz gain, ostatuan tragoxkaren bat hartzearen truke zenbaki batzuk banatuko dira, eta horien bidez, sari gehiago banatuko dira. Beraz, erosi boletoak eta igandean Elizondora. 18:00etan egina da hitzordua.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zuzen Anzabal
- Auzo, Herriak, Hiriburu eta Nafarroa
- Iza-erabazleak
- Herri eta Argazkiak
- Akzioak eta Saria
- Etxeak eta Apartamentuak
- Inbentarioa
- Baserri, Borda, zino, etab... salmenta eta alkatua
- Inbentarioa

Santiago, 15 • ELIZONDO • T.F. 948 580 804
 anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

AZPIEGITURAK → AROZTEGIKO PROIEKTUA

Aroztegian aurreikusitako etxeak kentzeari hasierako onespina eman dio Udalak

Azken hitza
Nafarroako
Gobernuak
izanen du

TTIPI-TTAPA

Aroztegiako proiektuan egiturazko aldaketa egiteko proposamenari hasierako onspina eman dio Udalak. Aldaketa horren arabera, Aroztegiako proiektua berrantolatua geldituko litzateke: promotoreak egin nahi dituen 252 etxebizitzak ez lirateke eginen; bai, ordea, aurreikusitako hotela eta golf-zelaia, bere horretan mantenduko liratekeelako. Proposamena hila-bete hasierako udalbatzarrean onartu zuen Udalak, Bilduren (5 boto), Ezkerraren (2 boto) eta Na Bai 2011ren (boto 1) aldeko 8 botorekin. Bilkuran zeuden UPNko lau zinegotziek, berriz, kontra bozkatu zuten.

Bildu eta Ezkerra ez dira 252 etxebizitza egitearen aldekoak, baina enpresak proiektua egitasmo turistiko gisa azaldu izan duenez, golf-zelaia eta hotelarekin aitzinera egiteko aukera eskaini diote.

ARRAZOIAK

Bilduk eta Ezkerrak proiektuan aldaketa hori egitearen arrazoiak azaldu zituzten osoko bilkuran eta horien berri

eman digu Garbiñe Elizegi alkateak. Lau dira. Batetik, gaur egungo egoera sozioekonomikoa aipatu digu: «proiektua planteatu zeneko egoera sozioekonomikoa eta gaur egungoa ez dira berdinak eta gaur egungo egoera ikusita, etxebizitzaren planteamendua bideraezina da». Gisa berean, «urbanizazioak Baztanen desoreka sortuko lukeela», dio, «bertze herri bat izanen litzateke eta Lekaroz jan eginen luke». Ingurumenean eginen lukeen inpaktua da aldaketa planteatzearen bertze arrazoietakoa bat. Bilduren eta Ezkerraren irudiko, promotorearen planak ingurumenean inpaktu handia eginen luke: «POTean planteatzen den lurralde antolaketa ereduarekin ez du deus ikustekorik». Akitzeko, arrazoi legalak aipatu ditu Garbiñe Elizegi alkateak: «sustatzaileek ez dituzte administrazioaren epeak bete». Hala, epez kanpo ibilita, Udalak kalte-ordainik jasan gabe proiektuan aldaketa egiteko eskubidea baduela argitu du Elizegik.

Orain, Udalaren asmoa enpresa sustatzailearekin biltzea da. Etxebizitzak egitea baztertu eta golf-zelaia eta hotela egiteko aukera onartzen badu, prozedurarekin aitzinera segituko da. «Onartzen ez badu



ARGAZKIA: TRANSPORTES BIDASOA TXIRRINDULARI TALDEA

Agustin eta Juan Migelek Transpyr proba akitu dute

Zortzi eguneko esfortzua ondortik, eta 820 kilometro eginez, Agustin Ariztia eta Juan Migel Eraso baztandarrek Transpyr proba gogorra akitzea lortu dute. Kataluniako Roses-en hasi eta Donostian akitu zen BTT proba, Pirinioak gurutzatuz. Munduko probarik gogorrenetakotzat joa da; aurten, 223 txirrindulari abiatu ziren eta horietatik 183k lortu dute etapa guztiak osatzea. Zorionak bi baztandarrei!



ARGAZKIA: MAITANE MARITORENA

Nafarroako konkista berrikusi dute UEUko ikastaroen barne

UEUko ikastaroen barne *Nafarroako konkista berrikusten* ikastaroa eskaini zen Elizondon uztailaren 17an. Jaso ikastolan ikastaro honetarako izena eman zuten 15 lagun inguru etorri ziren, baita baztandar batzuk ere. Roldan Jimenoren solasaldiarekin hasi zen ikastaroa. Konkistaren gertakariak eta birkonkistaren saialdia izan zituen mintzagai. Bigarren zatian konkistaren ondorioak izan zituen aipagai. Arratsaldean, Amaiurren izan zuen segida ikastaroak. Juantxo Agirre Mauleon Aranzadiko kideak Amaiurko indusketen gaineko azalpenak eman zituen, eta ondortik, Gaztelurat joan ziren, azken zazpi urteotan Aranzadik egindako lana ikustera.

eta enpresak kalte-ordainak lortzen baditu, ikusiko dugu zer egiten dugun. Udalaren asmoa aldaketa kalte-ordainik ordaindu beharrik gabe egitea da, horretarako aukera badela ikusita». Edonola ere, Udalak hasierako onspina

eman dio aldaketari, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, enpresak edo herritarrek hila-beteko epea izanen dute alegazioak aurkezteko. Alegazio horiek osoko bilkuran onartu beharko dira eta Gobernura bida-

liko da gero txostena. Behin betiko onarpena Gobernuak emanen du.

Bertan Eguna

Bertan merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu elkarteak antolatuta, Bertan Eguna eginen da abuztuaren 4an.



BAZTAN

AISSIALDIA → KIROLA ETA BESTA

Laxoaren aldeko afaria eta gaupasa eginen dira Arraiozen abuztuaren 4an

TTIPI-TTAPA

Baztan-Errekako Laxoa txapelketaren XXXIII. edizioko finala eta hirugarrenen posturako lehia jokatuko dira Arraiozen abuztuaren 4an. Pilota modalitate honen besta handiaren eguneari bertze moduko besta ere antolatuta da, gaupasa eginen baita laxoaren alde.

11:30ean, hirugarrenen eta laugarrenen postuak erabakitzeak partida jokatuko da eta 17:30ean finala. Behin finala akitu eta sariak banatuta, arratsaldean eta afaria bitarte trikitixaren soina izanen da. 21:30ean afaria eginen da frontoian.

Txartelak 30 eurotan salgai paratuko dira Doneztebeko Titi Ostatuan, Arraiozko Zubiondo ostatuan, Iruritako Olari jabetxean, Elizondoko Intza ostatuan eta Oizen.

Afalondoan, 00:30etik 04:30era Obaneuke taldea ariko da eta 04:30etik aitzinera Tirri & Tery DJ.

Ezkerraren buletina

Agintaldiko lehen urtearen balantzea eta Bil-durekin batera Gobernu Taldean egindako lanaren balorazioa egin du Ezkerrak bere buletine-

an. Udalak duen zorra «murrizteko konpromisoa» hartu zuen Ezkerrak hauteskunde-kampainan eta hori erdietsi dela azpimarratu du. «Urte bakar batean 600.000 eurotan murriztu dugu Udalaren zorra, -diote eta hori kontribuzioak igan gabe». Udal-inbertsioei dagokionez, lau urteko plangintzako obrak «egitearen alde» dago Ezkerra, eta horien artean «Irurita-Lekaroz eta Amaiurko ur horniketa eta bideak zolatzea» aipatu ditu bereziki. 2011ko uholdeek udal-ekonomiari ekarri zieten zama ere ekarri du gogora, Nafarroako Gobernuak Baztan hondamen-eremu ez izendatu izana salatu bidenabar.

Lanpostuak sortzea ekarriko duten egitasmoekin duen konpromisoaz ere ari da. Zehazki, Magnesitasen Zilbetiko harrobia, Almandozko harrobia handitzea, BKZ-ren proiektua, biomasa ustiatetarena edota enpresa publikoak sortzearena aipatu ditu. «Garai honetan zalantzarik gabeko proiektu hauen alde» egin behar dela aldarrikatu du eta UPNren jarre-

ra salatu, «Zilbetiko harrobiari baietza eman ez eta Almandozko ari ezetz. Guk baztandarren interesak defendatzen ditugu eta ez partikularrenak» gaineratuz.

Lur urbanizagarrien aipamena ere egin du. Orain urbanizagarriak diren lurak gero ere urbanizagarri izatea defendatu du, publikoak izanen diren lur-industrial berriak kalifikatzearen aldekoa dela erantsiz.

Aroztegiko aferari dagokionez, «konpartitzen ez dugun herentzia» dela dio eta Ezkerraren jarrazehaztu du: «Aroztegiaren kontrakoak izanda ere, argi dugu jarrera honengatik baztandarek ez dutela xentimorik ere gastatu behar!»

Zuzendaritza berriak

Uztailaren 1az geroztik, zuzendaritza talde berriak dituzte Lekarozko institutuan eta Elizondoko Lanbide Eskolan. Normalean, kargua lau urtetarako izaten bada ere, aldi honetan, izendapena ez-ohiko prozeduraren bitartez egin denez, oraingoz urtebeterako ardura hartu dute.



ARGAZKIA: ANA ZIAURRIZ

Jaunartzea Berroetan

Berroetan ere Jaunartzea izan da berriki. Jon Arretxea Ziaurriz izan da aurtengo protagonista, argazkian Ramon Apezetxea apezarekin ageri dena. Uztailaren 1ean egin zuen.

Azken urte hauetan, Agustín Olabe izan da Lekarozko institutuko zuzendaria, Jenny Telletxea eta Pilartxo Altzugarai ikasketa buruak, Ana Gonzalez zuzendariordea eta Juanxo Saez de Cabezón idazkaria. Izendapen berriei, orain, Iñaki Beltrán da zuzendari berria, Gotzone Sanzberro eta Loles Iturzaeta ikasketa buruak, zuzendariordea Iker Frias eta idazkari berria Pello Urtasun.

Elizondoko Lanbide Eskolan, orain arte, Jozean Subizar izan da zuzendaria, ikasketa burua Mikel Iriarte eta idazkaria Maite Ariztegi. Zuzendaritza taldea aldatuta, berriz, Maite Ariztegi da zuzendari berria, Martín Subizar ikasketa burua eta Eneritz Mitxelena idazkaria.

Turismo eskaintza

Uda honetan ere Baztanek besoazabalik hartuko ditu turistak Turismo Bulegoan eta Jorge

Oteiza Etnografia Museo/ Ciga Bilduman, ordu-tegi eta zerbitzu berriak eskainiz. Maite Iturre turismo eta merkataritza zinegotziak eman ditu xehetasunak.

Turismo Bulegoa Jorge Oteiza museoa dago eta egunero zabalik egonen da irailaren 15era arte: astelehene-tik larunbatera (10:00-14:00 eta 17:00-20:00) eta igandetan (11:00-14:00 eta 17:00-20:00). Baztango Natura 2000 Sareari buruzko erakusketak ere leku eta ordutegi berean ikusgai izanen da.

Bisita gidatuak ere eginen dira: batetik, Elizondoko herrigunea, bere historia eta bere jauntetxeak ezagutzeko parada izanen da, astelehen, astearte, ortzegun, ortziral eta larunbatetan (12:00) eta asteazkenean (18:00). Bertzetik, monumentu megalitikoak bisitatu ahal izanen dira larunbatetan (10:30). Honetan erreserba egin behar da (948 581517).

%25 gehiago eskualdeko hedabideendako

«Eskualdeko hedabideek euskararen normalizazioan eta sustapenean eginen duten lana ikusita», joan den urtean baino dirulaguntza haundiagoa ematea onartu du Udalak Xorroxin irratia, Xaloea telebista eta TTIPI-TTAPA aldizkariari.

UDALAK HEDABIDEENTZAKO EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

	2010	2011	2012
TTIPI-TTAPA	4.808,02 €	4.400 € (-%8,49)	5.500 € (+%25)
XORROXIN	6.215,24 €	6.000 € (-%3,46)	7.500 € (+%25)
XALOA	6.215,24 €	6.000 € (-%3,46)	7.500 € (+%25)

zapatarri

Denak Rotimazten du

948 36 52 92 - hedabideak@gmail.com

Martín Berroetxea Kalea, 13

11700 Elizondo - Baztan.

TURISMOA → BIDE BERDEA

Bide Berdearen Baztango zatia aurkeztu dute



ARGAZKIA: BERTIZKO PARTZUERGOA
Proiektuaren aurkezpena uztailaren 4an egin zuten Arizkunenea Kultur Etxean.

TTIPI-TTAPA

Bertziko Partzuergo Turistikoak Bertizarana eta Baztango bide berdearen zatia aurkeztu zuen uztailaren 4an Arizkunenean. Garbiñe Elizegi alkatea eta Maite Iturre zinegotziaz gain, Izaskun Abendaño (LKS) eta Izaskun Goñi Partzuergoko kudeatzaileak parte hartu zuten aurkezpenean. Partzuergoak Nafarroako Gobernuaren eta Europaren finantziazioarekin osatu du ingenierritzako proiektua, PSIS-a aitzinera eramateko. PSIS-a edo lurren erabilgarritasuna obra egiteko dirulaguntza eskatzeko baldintza bat da eta Partzuergoa honetan ari da joan den udatik, Izaskun Goñiren hitzetan, «tramiteak konplexuak baitira, baita finantzazioa ere garai hauetan».

Trenbidea zegoenetik honen ibilbidea arras aldatua dagoen arren eta tartean eraikin aunitz badaude ere, ibilbidearen erdia baino gehiago jatorrizko trenbidetik joatea lortu da. Aste hauetan herrietako ordezkariekin baieztatu da proiektua Nafarroako Gobernuari igorri baino lehenago.

Artearen ibilbidea

Udan artearen inguruan dagoen eskaintza bilduz, *Artearen ibilbidea* proposatzen duen eskuorria kaleratu du Udalak aurten ere. Xehetasun gehiago: www.baztan.es web orrian.

Ovniak espazioan

eta Nafarroako Gazte Txartel ofiziala Rural Kutxan

Gauza bakoitza bere lekuan. Eta orain, Nafarroako Gazte Txartel ofiziala **DOHAINIK** eskatzeko toki bakarra Nafarroako Rural Kutxa da. **14 eta 30 urte bitartean** baldin badituzu, zaituz gure hilegoetara eta atzeratu proiektuarekin bere abantaila guztiak!

1 Ongizateak duen irudiak 14 urteko 14 urteko 30 urteko bitartean.	2 Ongizateak duen irudiak 14 urteko 14 urteko 30 urteko bitartean.	3 Ongizateak duen irudiak 14 urteko 14 urteko 30 urteko bitartean.	4 Ongizateak duen irudiak 14 urteko 14 urteko 30 urteko bitartean.	5 Ongizateak duen irudiak 14 urteko 14 urteko 30 urteko bitartean.
--	--	--	--	--

URDAZUBI

UDAKO ESKAINTZA → TURISMOA

Egun osoko besta izanen da abuztuaren 11ko Burdinaren Egunean

Bertzalde, Pilotaren Unibertsoa abuztuaren 11n irailean eginen da

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan ohiko bihurtu diren udako hitzorduek ez dute hutsik eginen aurten ere. Alde batetik, abuztuaren 11n Burdinaren Eguna eginen da eta bertzetik, abuztuko bi egunetan eta irailean Pilotaren Unibertsoa antolatuko dute.

BURDINAREN EGUNA

10:00etatik aitzinera artisauen merkatua zabalduko da monasterio-ko plazan. Aldi berean, haurrentzako jokoak eta gaztelu puzgarriak ere izanen dira. 12:00etan ailegatuko da burdina idi-gurdietan. Burdinaren iritsieraren antzezenaren ondotik, 13:00etan monasterioan hitzaldia izanen da Miguel de la Cuadra Sal-

cedoren eskutik. 14:00etan zikiro jatea eginen da eta 17:00etan mariatxi talde baten emanaldia izanen da.

PILOTAREN UNIBERTSOA

Pilotaren Unibertsoa aurten abuztuko bi egunetan eta iraileko bertze batean eginen da.

Abuztuaren 4an emanen zaio hasiera pilotaren inguruko ekitaldiei. 19:00etan, pilotaren lehenbiziko jardunaldia eginen da. 20:30ean patata tortilla lehiketara egiten da, eta ez da musikarik ere faltako.

Abuztuaren 25ean segituko du bestak. 11:30ean Urdazubi eta Zugarramurdiko dantzari txikiak beraien saioa eskainiko dute. 12:30ean herri kirol saioa eskainiko da eta 14:00etan bazkaria eginen da. Tolosako txuleta izanen dira menuko protagonistak. 16:00etan musika izanen da eta 17:30ean pilota partida frontoan.

Pilotaren Unibertsoaren hirugarren saioa irailearen 16an izanen da,



UTZITAKO ARGAZKIAK

Gurdi gainean ekarriko dute burdina abuztuaren 11n. Goiko argazkia aitzineko edizio batekoa da, burdinaren kalitatea neurtzen ari direnekoa. Beheitiko argazkia, berriz, Pilotaren Unibertsoa ekimenaren barne egindako otordu batekoa da.

Xaretaren Egunarekin batera. Egun horretan, 10:00etan artisau azoka zabalduko da, eta ordu horretatik 18:00 ar-

te musika izanen da herriaren barna. 11:00etan Ainhua eta Urdazubi arteko bide berriaren inaugurazioa eginen da eta

14:00etan zikiro jatea. 17:00etan jokatu den pilota partidak emanen dio Pilotaren Unibertsoa ekimenari akabera.

ZUGARRAMURDI

Udalak aurrekontua onartu du

TTIPI-TTAPA

596.400 euroko aurrekontua onartu du Udalak 2012rako. Apirilean eman zion hasierako onespina eta jendurereko epean ez zen alegaziorik aurkeztu. Orain, behin betikoa da.

ANTXITONIA

Beñito Itarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
bestal@antxitiona.com • www.antxitiona.com

MONTXO OSTATUA TABAKO-BENDA

Itate herrikoak | Gogortekak | Faltsoak | Memok irakurkiz

Eguner betik 09:00etatik 02:30era - Duzumendi 2 km. bax


ANJAN-BIRDA - URDAZUBI | 948 599 039



Ordoki industrialdea | ARIZKUN
Tel. 948 453 259 | Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

%58 ko **aurrezpena**

Gure sistema berriarekin **%58ko AURREZPENA**
lortuko duzu zure etxean



ETORRI GURE INSTALAZIOAK ETA GURE SISTEMA BERRIA IKUSTERA!

Leihoak | Kontraleihoak | Sarrerako Ateak | Itxidurak | Pertsianak | Moskiterak

SENPERE

AZPIEGITURAK → KEZKA HERRITARREN ARTEAN

Herrian barna pasako litzatekeen AHT linea berria zalantzan egon daiteke

Mila eta 500 milioi euroko gastua luke 5 minuta irabazteko Baiona eta Hendaia artean

Franck DOLOSOR

Senpere zeharka lezakeen Abiada Haundiko Treinbide berriak bazterrak inarosten ditu aspalditik. Aste bat ez da pasatzen proiektu hortaz mintzatu gabe edo informazio berri bat agertu gabe. Berriki, Frantziako aurrekontuen ministroak erran du murritzetak egingen direla seguraski eta balitekeela pentsatuak ziren burdinbide berri batzuk baztertu behar izatea. Ez du zehaztu Lapurdin, eta beraz, gure herrian barna pasako litzatekeen lineaz mintzo ote zen, baina bere solasek erreazio andana sortu dute berehala. Alain Rousset Akitaniako presidente sozialista eta AHTren aldekoa denak oroitarazi du ipar eta hego Europa lotu behar direla eta «beharrezkoa dela konexioa izatea Espainiarekin». Gure aldetik, Joset Lahet Juzan CADE ingurumen elkartearen kidearekin mintzatu gara.

• **TTIPI-TTAPA:** Ingurumenaren zaintzeaz axola baituztu, zer diozu ministroaren hitz horietaz?

Joset Lahet Juzan: Kontseilu bat emanen



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Abiada Haundiko Treinbidea pasako litzatekeen eremuan bi arte obra ezarri dituzte berriki Zaluaga aldean lan haundi horiek nolako kalteak sortuko litzaketan erakusteko. Senperen izan dezakegun tunela eta trein lasterra lehertzen dituzte beren oinetan. Eskuinean, Joset Lahet Juzan senperrak ageri da CADE elkartearen bertzeko kideen ondoan.

nioke gobernari: afera hortaz kanpo ere ongi begiratzen ahal dutela zer egingen duten gure diruarekin! Dirua eskas da zorra pagatzeko, eta nolako zorrak! Oraingo burdinbidea berri behar da aspalditik Baiona eta Hendaia artean. Lan bera egingen du linea berririk eraiki gabe. Kontuetaz arduratzen den ganbara ohartu da dirua eskas dela. Politikariak zertan ari ziren orduan, espantukerian? Linea berria xahutu nahi den dirua aski dute ematea oraingo bidea eta horren bazterrak berritzen eta hobetzen. Bada zer egin!

• **TT: Ministroaren hitzak eta egoera ekonomiko zaila arrasta kolpea ote dira?**

• **JLJ:** Hori ezin da erran ofiziala izan arte. Orain ikerketak egingen dituzte

AHT

«Orain ikerketak egingen dituzte, baina burdinbide berria egiteko deliberoa aspalditik hartua da»

Joset Lahet Juzan
CADE ingurumen elkarteakoa

baina burdinbide berria egiteko deliberoa hartua da aspalditik. Orain ez bada egingen arriskua da lurra blokatuak izatea 10, 20 edo 30 urteren buruan berriz hasien ahalko baitira burdinbide berria egingen. Laborariak segitzen ahal luke belar, arto eta iduzkiloak egingen, baina ez gara gehiago arras gure lurren jabe horiek guztiak blokatzen baitituzte geroari begira.

• **TT: Joset, proiektua agertu zenetik kontra zara. Zergatik sartu**

zara CADE elkartearen?

• **JLJ:** Hasieratik kontra nintzen, baina ez nintzen menturatzen erratea. Zoko guztiak xehatuko ditu: 7 kilometro Senperen, 200 hektara hunkiak izanen dira. CADEk lan zaila egingen du beharrezkoa ez den proiektu hunen kontra informazioa banatuz. Lapurdin bi bideen artean bat hautatu behar dute. Michèle Alliot Mariek nahi zuen Senpere alderat pusatu Donibane Lohizunetik ahal bezain urrun izateko. Nik uste Parisen jadanik deliberratu dutela.

• **TT: Zergatik uste duzu hori?**

• **JLJ:** Lapurdi hegoaldean eta Gipuzkoan tunel frango izanen da. Istripurik gertatzen bada han, hemen behar da bi kilometroko luzera eta 40 metrako zabalera duen lekua presatatu Frantziatik heldu diren trenak atxikitzeko. Senpereko eremuak ez dira zelai-zelaiak, aski barna behar lukete ziloa egin eta lur ainitz mugitu. Izugarriko lur metak atera beharko dituzte. Nik uste bertze bidea hautatuko dutela, kostaldetik hurbilago dena. Bertzenaz, delako aparkalekua Landetan egin beharko da.

• **TT: Orain arte AHTren kontra zen diputatu eskuindarra genuen. Orain proiektu horren alde den diputatu sozialistak irabazi ditu hauteskundeak Senperen ere?**

• **JLJ:** Senperen hiru bozka bulego ditugu, auzoen arabera, eta hiruetan emaitza arras desberdinak agertu dira. Boz xuri ainitz ere izan da aldi huntan: 152 (%3,46). Boz frango ere izan da ez ezker, ez eta eskuin alde. Ez dakit bertzerik, bakarrik dakit neronek zer eman dudana! (irriz).



KIROLA → ABUZTUAREN 25EAN JOKATUKO DA

Euskal Herriko errugbi txapelketaren bigarren edizioa ere Saran egingen da

Zazpi herrialdeetako ekipa ariko dira lehian

Joana GUERENDIAIN

Aurten ere Sarak hartuko du Euskal Herriko errugbi txapelketaren lekukoa, bigarren edizioa ere gure herrian egingen baita abuztuaren 25ean. Joan den urtean bezala, zazpi herrialdeetatik etorritako ekipak elkarren kontra ariko dira Animainiako errugbi zelaietan. Ondotik, afari bat antolatua izanen da frontoian.

Eskubaloien erromeria

Larunbat honetan, hilak 28, iluntzearekin, eskubaloien taldeak bere erromeria egingen du plazan. Afaria denei irekia izanen da eta paella jateko aukera izanen da.

Kermeza

Igandean, uztailak 29, kermeza iraganen da. Goizean, 10:00etan



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Joan den urteko Euskal Herriko Errugbi Txapelketan Sara eta Baztango taldeak jokoan.

hasiko da meza nagusiarekin, eta 11:00etan, pilota partida bat izanen da. 11:30etik goiti, kiroldegian janari poxikak salduko dituzte etxera eramateko edo bertan jan nahi duteentzat 12:30etik goiti bazkaria zerbitzatua izanen da. Menua 17 eurotan izanen da helduentzat eta 8 eurotan haurrentzat.

Arratsaldean, 16:30ean, joko garbi pilota partida egingen da.

Kantaldiak

Abuztuaren 2an Donibane Lohitzuneko Arin Luzien abesbatzak kontzertu bat eskainiko du elizan, 21:15ean.

Aste bat berantago, 9an, ostegunez, Saiberrik kontzertu bat emanen du elizan, 21:30ean.

Abuztuaren 12an, euskal kantak entzuten ahalko dira plazan. 19:00etatik goiti hasiko da eta ostatu bat eta taloak ere salgai izanen dira. Sartzea 10 urtetik

beheitiko haurrentzat urriarik izanen da eta helduentzat 8 eurotan.

Pilotaren besta

Abuztuaren 4an pilotaren besta egingen da. Egunean zehar pilota partidak izanen dira: esku huska, joko garbia eta palan. Bazkaltzeko eta afaltzeko aukera ere izanen da: atuna edo sardina piperradarekin (10/12 eurotan) eta haurrentzako menua 5 eurotan izanen da.

Selauru hustea

Abuztuaren 10ean selauru huste bat antolatua izanen da plazan, 14:00etatik goiti irekia. Ostatu bat ere izanen da eta taloak eta ogitar-tekoak ere erosten ahalko dira. Eurria egingen bada, berriz, kiroldegian egingen da.

Dantzaren erromeria

Abuztuaren 11n Zazpiak bat Taldeak bere erromeria egingen du plazan. 18:00etatik goiti hasiko da, dantza ikusgarriarekin. Ondotik, aperitifa izanen da eta bukatzeko denei irekia izanen den afaria.

Kontrabandisten lasterketa

Heldu den abuztuaren 19an kontrabandisten 49. lasterketa egingen da Saran. Lehen aldiz, aurten, goizean egingen da, abiatzea 09:30ean izanen baita. Usaian bezala, egun horretan merkatua izanen da egun osoan plazan.

SOULE
fileta artea
Tfnua: 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

HERRIKO ETXERAKO
ERRENTZAK
CALLE DE LA MAIRIE
HARRIAGUE
Mug. g. W. W. W. W.
SARA

Sutele-Zaldain
Instalazioak
IGOGAILUEN INSTALAZIOA
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK
Santiago, 71
31700 ELIZONDO
T. 948 580 166
F. 948 452 557
M. 619 424 999 - 649 699 820



EZKONTZAK

Iñaki Mikelarena Iraizoz eta **Maribel Taberna Bergara**, Sunbilla eta Arantzakoa, uztailaren 14an Arantzan.
Xabier Ariztegi Etxenike eta **Ana Belen Agerrebere Otxandorena**, Zugarramurdi eta Arraiozkoa ekainaren 23an Arraiozen.
Ion Aizpuru Mallea eta **Nuria Colomer Ruiz**, Berakoak uztailaren 14an, Lesakan.
Vernay Eric Pierre eta **Gabriel Ohiana Melanie**, uztailaren 7an Saran.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Ane Santesteban Amoros, Zubieta-koa, uztailaren 6an.
Aiala Ziluaga Iturria, Arantzakoa, uztailaren 5ean.
Oihan Bañares Ziganda, Doneztebe-koa, uztailaren 4an.
Usoa Arruabarrena Destribats, Sunbillakoa, uztailaren 11n.
Haizea Brunet, Sarakoa, ekainaren 29an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



HERIOTZAK

Francisco Jabier Mateo, Elizondon, ekainaren 28an, 90 urte.
Joxe Alduntzin Arrizurieta, Leitzakoa, uztailaren 3an, 75 urte.
Karlos Nabaskues Ezker, Leitzakoa, uztailaren 8an, 66 urte.
Felix Lopez Zubillaga, Elizondokoa, uztailaren 9an, 89 urte.
Lazaro Sagardia Ernieta, Donamaria-koa, uztailaren 11n, 82 urte.
Rosa Gallano Churrut, Berakoa, uztailaren 12an, 85 urte.
Jose Maria Irurieta Etxeberria, Lesakakoa, uztailaren 13an, 89 urte.
Rafael De La Cruz Gonzalez, Berakoa, uztailaren 15ean, 80 urte.
Marie Zubieta, Sarakoa, ekainaren 26an, 76 urte.

Jesus AGERRE

Goi denboraldi honetan,
 Bertizko Partzuergoaren Batzar
 Orokorrak Jesus Agerre,
 Zugarramurdiko alkate zena,
 gogoratu nahi du,
 eskertuz eskualde honetan
 turismoaren alde egin zuen lan bikaina.



Luis JIMENEZ ELIZALDE

Amaiurren, 2012ko ekainaren 22an, 76 urte

Zure gustoko lanean ari zinelarik,
 ardiekin artzain,
 gan zinen gure artetik
 eta orai zenuko izar eta iduzki izpien artetik
 izanzen zara gure artean artzain.

ZURE FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guziei, milesker.



Rafa ZENOZ TXIFA

Elizondon, 2011ko uztailaren 30ean
 I. URTEURRENA

Oroitzapenak eta sentimenduak
 ez dira atzendiko
 nahiz eta urteak pastu.
 Betiko gure bihotzetan!
 Aupa TXIFA!

ZURE LAGUNEK



ttipi txartelarekin

beti irabazten da!

deskontuak + zozketak + aldizkara mesu truk

Eskatu zurea: 948 63 54 58 telefonoz

570. ALEKO IRABAZLEAK

- * "AMAILUR 2012" IKUSKIZUNERAKO
2 SARRERA
Ascen Siles Camacho | BERA
- * MARTIKO LOTEA
Xabier Crespo Lukin | LIZARRA
- * ONDDO TA PUNTO KAMISETA
Pakito Portu Iantzi | LESAKA
- * AQUARIUM 2 SARRERA
Ainhoa Talledora Laster | OIZ
- * BERAKO UDAL IGERILEKUA 2 SARRERA
Marta Ibarra Inarste | SUNBILLA
- * EREIN 2 LIBURU
Elin eta Ikerre amona | Ikerre Ibarra
Tere Korta Tolintzea | BERA

zozketak



IBAIZABAL 2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com

Lanku



LANKU LIBURU BAT + DVD + CD
Lanku argitaletxea
www.lanku.com

deskontuak

BERAUTO

BERA - 10.000 enbaxteko



Kattalingorri
arropa denda

POTTUKI

ELIZONDO
10.000 oparizko artikulu txikiak

FOTO MENA BIRONDO
ELIZONDO | 10.10 kopio digitalak

Alustiza
DORZETEBE
10.10.30000 jokoak gastatu

oninart



KAMISETA BAT
Oninart denda
www.oninart.com



ONGI ETORRI PUPU ETA LORE DVD
Pirritx, Porrotx eta Marimotola
www.katxogematek.com

Urtxinba



PUNPALAPAN CD + DVD
Urtxinba eskola
www.urtxinba.org

AQUARIUM



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquarium-es.com

ttipi-ttapa

Anduizeta 12 - 31760 ETXALAR
Tel. 948 635 456 - Fax 948 635 457
info@ttipi.net - www.ttipi.net

HERRI KIROLAK → NAFARROAKO TXAPELKETA

Binakako aizkora txapelketa irabazi dute Larretxea aita-emeek

Larunbatean III. mailako aizkora txapelketako finala Elizondon

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Aurten ere, Herri Kiroletako hainbat txapelketa jokatu dira Iruñeko sanferminetan. Horieta-ko aunitz, Nafarroa mailako txapelak erabakitzeko izan dira.

Nafarroako Binakako Aizkora Txapelketa, joan den urtean hirugarren sailkatu ondotik, aurten txapelaren jabe egin dira Donato eta Oihan Larretxea aita-emeak (Arantza-Bera). Jon Rekondo eta Ander Erasun, berriz, txapeldu-norde (Leitza eta Aurtitz) izan dira. Garaipen ho-

nekin, Donatok seigarren aldiz jantzi du txapela kide desberdinekin; Oihanek, aldiz, lehenbiziko aldiz jantzi du txapela.

XIV. San Fermin Mozorra Txapelketa aurten ere Oiergiko Esteban Arruti izan da txapel-dun.

Nafarroako kadete mailako Arpana Txapelketa, Baztango Basaburuko Eneko Irigoien eta Ekaitz Maritorea azpitxapel-dun izan dira.

Nafarroako Emakumezkoen Txingua Txapelketa aurten ere Xanta Souza lesakarrak irabazi du eta Euskal Herriko errekor berria ezarri du, gainera. Estitxu Almandoz lesakarra izan da bigarren eta Oronoz-Mugairiko Amaia Elizagoiien hirugarren.

PILOTA → AURTEN LEHENBIZIKO ALDIZ

Paleta goma erakustaldia eskaini dute emakumeek sanferminetan

Tartean izan dira Edurne Argain eta Iera Agirre

TTIPI-TTAPA

Ondoko urteetako erronka Iruñeko sanferminetan emakumez-

koen paleta goma txapelketa jokatzeko izanen da, baina oraindik horrelakorik ez dagoenez, aurten emakumezkoen erakustaldia antolatuko dute lehen aldiz Iruñeko Labrit pilotalekuan. Iruñeko Oberenako Maite Ruiz de Laramendi eta Irantzu Leunda pilotari-



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Oihan eta Donato Larretxea aita-emeak txapela soinean.

Nafarroako Gizezkoen Ingude Aitzate Txapelketa, Leitza-ra joan da txapela, Jose-txo Urrutiak irabaziz.

Nafarroako Emakumezkoen Ingude Aitzate Txapelketa garai-pena Iturenera joan da, Maika Ariztegiengana, hain zuzen.

Nafarroako Lasto Aitzate Txapelketa igantziarren arteko lehia izan da eta altxaldi gehien eman dizkiona Karlos Sein izan da. Bigarren Arkaitz Retegi gelditu da eta hirugarrena Eneko Telletxea.

Nafarroako Gurdia Aitzate Txapelketa parte hartu duten guztiak

leitzarrek izan dira. Horien artean Josetxo Urrutiak irabazi du. Bigarren Xabier Arraras izan da, hirugarren sortzez errumaniarra eta Leitza-bizidena Stephan Chievu. Lazaro Bujanek ez du zorte handirik izan, gurdia ihes egin eta ez baita plaza batera ailegatu.

III. MAILAKO AIZKORA TXAPELKETA

Uztailaren 14an, hirugarren mailako aizkora txapelketako kanporaketak jokatu zuten Iruñean. Hamar aizkolarit aritu ziren lehian, Elizondon jokatu-ko den finalerako txartelen bila. Eskualdekoen artean, Eneko Saralegi

(Leitza-Iruñea), Julen Olano (Leitza), Joxean Etxeberria (Ziga), Migel Angel Etxeberria (Beintza-Labaien), Martin Telletxea (Ezkurra) eta Kenari Erasun (Aurtitz) aizkolarit aritu ziren.

Eneko Saralegik egin zuen denborarik onena eta txapela janzteko faborito nagusia dela erakutsi zuen. Aritz Gofñi izan zen bigarren, Angel Erasoz hirugarren, Martin Telletxea laugarren eta Joxean Etxeberria bosgarren. Hauek izanen dira Elizondoko Laxoa Plazan larunbat honetan, uztailak 28, 19:00etan hasiko den finalean ari-ko diren aizkolarit.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Eskuinean, gorritz, Edurne Argain iruritarra eta Iera Agirre leizarra.

en ekimenez, emakumezkoen borts paleta goma partida jokatu ziren sanferminetan, eta tartean izan ziren Edurne Argain iruritarra eta Iera Agirre leizarra. Mai-

ka Elgezabal eta Amaia Segre izan zituzten kontrario.

Pilotarien maila ere aipatzekoa da. Nafarroa, Gipuzkoa eta Iparraldeko palistarik onenetari-

koek parte hartu baituzten, selekzioekin mundialetan ibilitakoak, hain zuzen. Erakustaldi horiek sanferminetako txapelketan bihurtzea izanen da orain helburua.

MENDIA → EUSKAL SELEKZIOAREN ALDE

Baztandik Bortzirietara pasako da ESAITen aldeko mendi martxa

Alduden barna sartuko da eskualdera zortzi etapako martxa

TTIPI-TTAPA

ESAIT Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldeak mendi martxa antolatu du aurten ere, larunbat honetan, uztailak 28, Bidaxunen hasi eta abuztuaren 4an Donostian bukatuko dena. Zortzi etapa izanen ditu, egun bakoitzean etapa bat egiteko. Egunean batz bertze 7-8 orduko ibilbidea eginen dute, 08:00etan hasi eta gutti goitibeheiti 17:00 aldera



ARTXOBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean ere eskualdetik pasatu zen euskal selekzioaren aldeko mendi martxa. Argazkian Aresotik pasatzean.

arte, eta bakoitzean 20-30 kilometro ibiliz. Bidaxune eta Donostia lotuko dituen martxa hau eskualdean barna ere pasako da, Aldudetik Baztanera sartuko da eta

Baztandik Bortzirietara-ko bidea hartuko du Gipuzkoara joateko.

Egunero, ibilbidea ezagutzen duen gidariren bat joanen da aitzinean eta gibelean, eta

gisa berean, antolakuntzak eguneroko gosaria eta txangoan behar den ogia eta fruta paratuko ditu. Gainerakoak norberaren ardurapean gedituko dira.

ETAPAK

- 1. etapa, uztailak 28: Bidaxune-Aiherra.
- 2. etapa, uztailak 29: Aiherra-Irisarri.
- 3. etapa, uztailak 30: Irisarri-Donibane-Garazi.
- 4. etapa, uztailak 31: Donibane-Garazi-Aldude.
- 5. etapa, abuztuak 1: Aldude-Arraioz.
- 6. etapa, abuztuak 2: Arraioz-Igantzi.
- 7. etapa, abuztuak 3: Igantzi-Astigarraga.
- 8. etapa, abuztuak 4: Astigarraga-Donostia.

Martxaren inguruko xehetasun gehiago nahi izanez gero, www.esait.org webgunean irakurgai.

PILOTA → JOAN DEN URTEAN BEZALA

Doneztebek irabazi du Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketa

Tantoak kontuan hartuta izan da nagusi

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketaren finala jokatu zuten uztailaren 8an Iruñeko Labrit pilotalekuan Iruña eta Doneztebeko taldeek. Kostata lortu zuen Doneztebeko talde-

ak txapela, izan ere, lau partidetatik bina irabazi zituzten Iruñeak eta Doneztebek, eta azkenean, desentzate egingandako tantoen arabera erabaki zen. Hala, joan den urtean bezala, aurten ere Doneztebera ekarri dute txapela.

Alebinen mailan, Doneztebeko Aimar Otxoteko eta Enaitz Telletxeak 14-18 galdu zuten Iruñeko Oskoz eta Mataren kontra.



ARGAZKIA: NOTICIAS

Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketako finalistak, tartean Doneztebekoak txapelarekin.

Infantil mailan, Joanes Bakaikoa eta Ruben Medina Doneztebeko pilotarieterraz irabaziz Iruñeko Okiñena eta Iruritari, 18-1eko markagailuarekin nagusitu baitziren. Gainera, aipatzekoa da, infantil mailako jokalaria

hoberena Bakaikoa izendatu zutela.

Jubeniletan, bigarren puntua lortu zuen Doneztebek. Ugaitz Elizalde eta Adur Lasak 22-17 irabaziz Iruñeko Espinal eta Cordoni.

Seniorretan, ordea, ez zuten irabazterik lor-

tu Doneztebek. Gaizka Bendoiro eta Jon Gorritik 6-22 galdu zuten Iruñeko Diaz eta Okiñenaren kontra.

Bina partida irabazita egindako tantoek erabaki zuten txapela, 60 Doneztebek eta 58 Iruñeak.

uztailak 26 - abuztuak 14

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Kontzertuak



AMAIUR | 2012.08.09

Mikel Markezaren emanaldia Otsondo gelan

Mikel Markez abeslariak kontzertua eskainiko du Otsondo gelan, 21:00etatik aitzinera. Amaiurko Gaztelu Elkarteak eta Aranzadik antolatuta.

Ospakizunak




URDAZUBI | 2012.08.11

Burdinaren Eguna eta bertze hainbat ekitaldi abuztuaren

Abuztuaren 11n ospatuko dute Burdinaren Eguna eta antzezpenaz edo zikiro jateaz gain, argazkian ageri den Miguel de la Quadra solasaldia eskainiko du.

Gaupasak



ARRAIOZ | 2012-08.04

Laxoaren aldeko gaupasa final handiaren egunean

Final handia eta hirugarren posturako lehiaz gain, afaria Arraiozko frontoian, Obaneuke erromeri taldearekin dantzaldia eta Tirri&Tery DJ izanen dira.

Zientzia Elkarteak antolatua.

Emanaldiak

ELIZONDO

Dantzari ttikiaren emanaldia

Abuztuaren 4an Dantzari ttikiaren emanaldia antolatu du Baztango dantzariak taldeak. 11:00etatik hasita Elizondoko hainbat txokotan eta 12:00etan emanaldia plazan.

Ospakizunak

URDAZUBI

Burdinaren Eguna

Abuztuaren 11n ospatuko da Burdinaren Eguna. Goizean eskulangileak eta antzespena, hitzaldia, zikiro jatea eta arratsaldean mariatiak.

Ikastaroak

ELIZONDO

Baztango paisaiak helduendako ikastaroa

Abuztuaren 1etik 14ra helduei zuzendutako Baztango paisaiak margo ikastaroa.

Bestak

ARANO

Santiago bestak

Uztailaren 25etik 29ra Santiago bestak.

ELIZONDO

Santiago bestak

Uztailaren 24tik 29ra Santiago bestak.

ELGORRIAGA

Santiago bestak

Uztailaren 25etik 29ra Santiago bestak.

BEINTZA-LABAIEN

Herriko bestak

Abuztuaren 3tik 6ra herriko bestak. Xehetasun gehiago 38. orrialdean.

Erakusketak

ELIZONDO

Juan Carlos Olaetxearen margo erakusketa

Uztailaren 13tik 31ra Juan Carlos Olaetxearen margo erakusketa ikusgai izanen da Arizkunenean.

Tomas Sobrinorekin paisaia entzuten

Uztailaren 23tik irailaren 2ra Tomas Sobrinoren *Paisaia entzun* margo erakusketa ikusgai Arizkuneneako 1. solairuan.

E. Llamosasen margo erakusketa

Abuztuaren 3tik 25era E. Llamosas-en margo erakusketa ikusgai Arizkunenean.

SENPERE

Xabi Oteroren 'Oihan hegalean' Larraldean

Uztailaren 6tik 29ra Xabi Oteroren *Oihan hegalean* 40 urteko argazki eta diseinu erakusketa ikusgai izanen da Larraldean, ortziralarunbat eta igandetan, 16:00etatik 20:00etara.

J.M Galarraga eta Auxtin Zamoraren lanak Larraldean**Abuztuaren 1etik 11ra**

J.M. Galarragaren margo eta Auxtin Zamoraren *Encresde Chine* erakusketa antolatu du Larraldean Hatsu Elkarteak, egun guziz, 16:00etatik 20:00etara.

ZUGARRAMURDI

Agurtzane Anduetzaren 'Nabarra' Museoan

Uztailaren 20tik abuztuaren 20ra Agurtzane Anduetzaren *Nabarra* erakusketa eta haurrendako modelatze tailerrak izanen dira Sorginen Museoan.

URDAZUBI

Monasterioko kalostrean

Abenduaren 31 arte ikusgai izanen da monasterioko kalostrean *Euskal Herriko margogintzaren 50 urteak* erakusketa. Udan, egunero zabalik 11:00etatik 20:00etara.

Kontzertuak

AMAIUR

Mikel Markez Otsondo gelan

Abuztuaren 9an kontzertua eskainiko du

Mikel Markezek

21:00etatik aitzinera Otsondo gelan. Amaiurko Gaztelu elkarteak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak antolatua.

Solasaldiak

AMAIUR

Jose Mari Esparzaren herri baterako mapak

Abuztuaren 7an Herri baterako mapak solasaldia eskainiko du Jose Mari Esparzak 19:30ean Otsondo gelan. Amaiurko Gaztelu elkarteak eta Aranzadi

PROPOSAMENA

BERA

Sanesteban bestak, ekitaldiz gainezka

Egun handiko goiz eta arratsaldeko dantzez gain, aurten ere izanen da zer egin, zer aditu eta zer ikusi Berako Sanesteban bestetan. Abuztuaren 2ko altxareroarekin abiatu eta 6ko herri bazkariarekin borobilduko dira. Hori bai, aurten ez da betizurik izanen plazan, bai, ordea, bertze ekitaldi ugari. Bestabusa zerbitzua ere izanen da abuztuaren 3 eta 4an.



BERA

San Esteban bestak

Abuztuaren 2tik 6ra
San Esteban. Xehetasunak 13. orrian.

GAZTELU

Santo Domingo bestak

Abuztuaren 3tik 7ra
Santo Domingo bestak. Xehetasunak 39. orrian.

LEITZA

San Tiburtzio pestak

Abuztuaren 10tik 14ra
San Tiburtzio pestak. Xehetasunak 25. orrian.

SUNBILLA

San Tiburtzio bestak

Abuztuaren 10tik 14ra
San Tiburtzio bestak. Xehetasunak 22. orrian.

ZIGA

San Lorenzo bestak

Abuztuaren 9tik 12ra
San Lorenzo bestak. Xehetasunak 46. orrian.

Zinema

BAZTAN

Udako zinema

Abuztuaren 3an
Amairuko plazan
Gartxot filma ikusgai
22:00etan. Baztango Kultur Batzordeak antolatutako Udako zinea programazioa, 2012ko Arte eta Kultura egitarauaren barnean.

Mendi ateraldiak

SUNBILLA

**Ulibeltzak mendi taldea
Balaitusera**

Uztailaren 28-29an
Balaitusera mendi ateraldia antolatuta du Ulibeltzak mendi taldeak. Irteera 17:00etan plaza.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Tori zaharra,
ekarri berria

JOXEAN URBIETA

Elkar, 2012

Gurasoen autoa atea ixteko denborarik hartu gabe, aiton-amonen baserrira abiatu zen Mattin. Korrika eta arnasestuka sartu zen sukaldean. –Aitona, amona, bi albiste eman behar dizkizuet. Lehenengoa, duela zazpi minutu uda hasi dela. Eta bigarrena, askoz ere garrantzitsuagoa da: bazkal-tzen ari nintzela, nire lehebiziko hortza erori zait». Joxean Urbieta (Zarautz, 1961) da egilea. Musikaria ofizioz, Donostiako Xirula Mirula musika eskolako irakaslea da. Joxean Urbietak, halere, baditu bertzelako bokaziorik, eta duela urte batzuk paila-ko lanetan ibili zen Kakax, Kokox eta Kirriki hirukoia osatuz. Hauxe da argitaratzea eman duen lehenengo literatur lana: *Tori zaharra, ekarri berria*. 6 urtetik goitiko irakurleei zuzendutako liburu honen marrazkiak Igor Ramosek egin ditu.

Musika



Hacia la luna

ETS

EN TOL SARMIENTO

Baga Biga Musika
Ideiak, 2012

En Tol Sarmiento (ETS) taldearen izenak bi era ditu errateko: ETS siglak erabiliz edo izenaren luzera guztia, En Tol Sarmiento. Norberak aukera dezala bidea, baina honek beti eramanen gaitu Arabako Errioxara. En Tol Sarmiento taldea 2005ean sortuko da Ekora herrian. Hasieran hirukoia (bateria, baxua eta gitarra) izanen da 2007ra bitartean eta punk eta rock musika eginen du. Gero ska doinuak nagusituko dira eta horretarako haize tresneria fitxatuko du (tronboia eta tronpeta). 2008an argitaratuko da ETS taldearen sei abestiko maketa-diskoa, *Vendimia seleccionada*. Lehen disko honekin batera zuzenekoak ere iritsiko dira. Taldearen bigarren diskoaren izenburua *Hacia la luna* da. Diskoa hainbat galderekin hasiko da, ea non dagoen itxaropena eta non askatasuna. Erantzuna ilargian aurkituko omen dugu, eurek egindako edabe pizgarria edan ondotik zoriona eta festa ere ekarriko digula.

Internet




Pirinioak parapentean zeharkatzeko proba

WWW.X-PYR.COM

Berriki, Transpyr probaren berri eman genuen. Kataluniatik Euskal Herrira, Rosetetik Donostiara Pirinioak mendi bizikletan zeharkatu zituzten 200 abenturazale baino gehiagok. Orain, alderantzizko bidea eginen dute parapentean, Euskal Herriatik Kataluniara, 20 abenturazale taldek. Probak, gehienez ere, 14 egun iraunen du, Hondarribitik Port de la Selvara; 438 kilometro. Lasterketak nahitaezko pasabide puntu batzuk (balizak) izanen ditu. Abuztuaren 5ean hasiko da proba Hondarribitik (irteera 10:00etan) eta 4-5 orduen buruan aurreikusia dago Larunera ailegatzea (han dago paratua lasterketako lehenbiziko baliza). Beran sanesteban bestetan murgilduak egonen dira eta egitarauan sartu dute proba hau ere. Parte-hartzaileek lasterketa parapentez edo, ezin bada, oinez egin behar dute soilik.

Nire aukera



Iratxe EIZAGIRRE
Sunbillako irratia esataria

«Dendaz denda ibiltzea izugarri gustatzen zait, lasaitzen nau»

Euskadi Irratiko esatari aritzen da sunbillarra Iruñean eta bere afiziorik handiena, «dendaz denda ibiltzea da, izugarri gustatzen zait eta behin sartuz gero, zerbait erosten dut ia beti». Horretaz gain, «gorputza mugitzeko eta burua oxigenatzeko aerobik egiteko beharra» izaten du astean bizpahiru aldiz. Asteburua ailegatzen denean, «adinean goiti goazi eta galdutako loa errekupe-ratu» behar izaten du lehenik. Gero, «lagunekin atera, familiarekin egon, bizitza sozial pixka bat egin eta lehen asteburero zena, orain hilean behin edo juerga egitea gustatzen zait». Oporretan lehenik aste bat hartzen du, «egin beharreko gauzak egiteko» eta gero, abuztuaren hiru aste segidan ditueneguz, «fundamentuzko bidaia» egiteko aprobe-tzatzen du. Joan den urtean Kroaziara joan zen, Portugalen ere izan da. Halakoetan, «aste erdia troteroagoa, tokiak ezagutzen» ematen du eta bertez erdia, «lasaitasuna, hondartza... nire airera erlajatzen naiz».

ETXEBIZITZAK

salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ORONAZ-MUGAIRI. 2 bizitza salgai, mobleztatua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bajerarekin. Prezio onean. ☎948 585036.

ETXALAR. Promotorea-rengandik zuzenean es-treintatu gabeko etxebizitzak salgai. Bi solairu-tako etxebizitza, garajea eta kanpora ematen duen lorategiarekin. Prezio berriak. ☎629 443405.

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI
- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

IRUÑEA. Ospitale eta unibertsitate inguruan pisua salgai. Zaharberritu-tako eraikinean. Berogailua eta igogailuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpora begira. Prezioa: 120.000 euro negoziagariak. ☎669 877943.

DONEZTEBE. Ogiberrigainean pisua salgai. 2 logela, 2 bainugela, egon-

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

gela, sukaldea eta trastelekua. 36m²ko terraza bikaina, oso eguzkitsua, dena hegoaldera. ☎656 770373.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

IRUÑEA. San Fermin kalean, Zaragoza etorbidearekin eskina eginez, pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, trastelekua, igogailua, berogailua eta argitsua. ☎680 638994.

IRUÑEA. Ikasleentzako pisu egokia errentan emateko, bi unibertsitateen artean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Argitsua eta zaratara gutxirekin. Prezio interesgarria. ☎650 803955.

LESAKA. Logelak errentan emateko irailetik ekaitnera, sukaldea erabiltze-

ko aukerarekin. ☎948 637862/678 855056.

DONEZTEBE. 96m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Dena kanpo aldera. ☎699 798207.

ITUREN. Etxebizitza errentan emateko irailetik uztaileira. ☎661 006327.

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

BERA. Neska edo bikote bat behar da pisua konpartitzeko. Prezio onean. ☎661 013168.

GARAJEAK-LOKALAK

salgai

LESAKA. Morrollenean eraiki berri bi garaje salgai. Bat itxia eta bertzea irekia. Eskaintza ona, biak baten prezioan.

☎616 289492/
nabaz@hotmail.es.

LESAKA. Eltzeta karrikan, garaje apartatzeko plaza irekia (marra) salgai. ☎610 243843.

GARAJEAK-LOKALAK

errentan emateko

LESAKA. Albistur karrikan lur azpiko garajea errentan emateko. ☎618 962937.

LANA

eskariak

Informatikan ingeniaria den mutil gazte bat lan bila dabil. Hizkuntzetan abila: euskara eta gaztelania ama-hizkuntzak, ingelese erdi mailakoa eta frantsesa eta alemana oinarrizko maila. ☎677 241571.

Neska gazte euskalduna haurrak zaintzen,

etxeak garbitzen edo bertze edozein lanetan ariko litzateke uztaile eta abuztuan. ☎669 102860.

Esperientzia haundiko Arantzako **igeltsero bat** eraikuntzarekin zerikusia duten lanak egiteko prest dago: erreformak, bainugelak, sukaldeak, etxebizitzak... ☎686 348355.

Emakume euskalduna prest da lanean aritzeko Doneztebe inguruan, etxeetan orduka edo haurrak zaintzen. ☎699 798207.

Neska gazte euskalduna haurrak zainduko litzateke, ordutegi zabala. ☎661 772065.

Neska bat **ile-apaindegian** lanean aritzeko prest. ☎626 075373.

Neska gazte euskalduna euskara eta frantseko klaseak emateko prest da, baita bertze klase partikularrek ere. ☎616 772065.

LANA

eskaintzak

BERA. Jatetxe batean bazkalorduan esperientzia duten sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. ☎948 631658.

Asteburuetan **umeak zaintzen laguntzeko** neska bat behar da Azpeitian (Gipuzkoa), gida-baimena duena. Luzera begira, astean zehar lan egiteko izanen litzateke, interna moduan. ☎615 749645.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(ekainaren 29tik uztailearen 6ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 41,00 € (=)

Zerri gizena
1,380 € kiloak. (=)

Zerramak:
0,570€ Kg/bizirik. (-0,020)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,13 (=)

1.koa 3,83 (=)

2.koa 3,62 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,19 (=)

1.koa 3,91 (=)

2.koa 3,84 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 100,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruak 110,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,94/3,04

Zaldi-behorrak: 1,81/2,01

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,00/7,10

8-10 kilokoak: 5,40/5,80



**TOKI GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOA
-HIRIGINTZA-**

Udaleko Tokiko Gobernu Batzordearen akordioa, 2012ko ekainaren 28koa: SK2-ko UE10-eko (10. poligonoko 1. lur-zatia) Borondatezko Birzikleta proiektua eta Hirigintza Hitzarmenaren espediente hasiera batez oneste.

Espediente hau jendeurrean izanen da 20 egunetz, dago-kion iragarkia NAO n argitaratu ematen denetik.

Bera, 2012.07.05
ALKATEA, M^a Sol M. Taberna Iratzoki



**BEINTZA-LABAIEN
USATEGIAK ENKANTEAK**

Beintza-Labaiengo Udalak ahozko posturen bidezko enkante publikoan atera du ondoko usategien aprobetxamendua, lau urterako:

- Bat** zenbakiko usategia: Aieleta izenekoa. Hasierako prezioa: 12.000 euro.
 - Bi** zenbakiko usategia: Ameztia izenekoa. Hasierako prezioa: 9.000 euro.
 - Hiru** zenbakiko usategia: Lotzabian izenekoa. Hasierako prezioa: 10.000 euro.
 - Lau** zenbakiko usategia: Uztakorta izenekoa. Hasierako prezioa: 10.500 euro.
- Enkantea Udaletxean egingen da 2012ko abuztuaren 11n, goizeko 11:00etan. Esleipen hauek zuzentzen dituen baldintza-agiria, Udalak onetsia, jendearen eskura dago Udal Idazkaritzan. Bulegoen ordutegia: astelehena eta ostirala, 8etatik 11etara; telefonoa: 948-450864; ePosta: udala@labaien.org

Beintza-Labaienen, 2012ko uztailaren 9an
ALKATEA, Patxi Otxandorena Juanotena

**ZERBITZUAK
denetarik**



tizuak biltzeko, etxea zaintzeko onak. ☎667 702267.

Bi ahari salgai, pintarriak. 15 hilabetekoak. ☎618 962794.

8 zerrikume pintoak salgai. Uztailaren 9ak jaiotakoak. ☎695 716894.



Border collie arrazako **zakurkumeak** salgai. Atta eta ama hagitz onak. ☎661 767027.

**ANIMALIAK
oparitu**

Zakurkumeak oparitzeko, ama arratoi arrazakoa (tamainaz ttikia) eta oso politak. ☎629 417078.

**ANIMALIAK
salgai**

Sabueso arrazako **zakurkume emea** salgai. 2 hilabetekoa. 50 eurotan. ☎686 635304.



Villano arrazako zakurkumeak salgai. 2 hilabete. Desparasitatuak eta txertatuak emanen dira. Basurde ehizarako, be-



**MOTORRAK
salgai**

Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005-ekoa. 65.000 km. Ongi zaindua. 7.000 euro. ☎628572273.

Citroen Berlingo salgai. Egoera onean. 220.000 kilometro. ☎661 767027.

Dadly **scooterra** salgai, 50cc-koa, 4 urte. Egoera arras onean. Ia erabili gabe, 950 km. ☎638 407187.



**DENETARIK
salerosketak**

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 / 699 461394.


ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritz. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



Sofa chaise longue motorrarekin estrenatu gabea, salgai. ☎680 347407.



Ia berria den **karroa** salgai, beti garajejan egondakoa. 800 eurotan. ☎630 603130.



Pareta egiteko harria salgai. 1.500 kiloko zakueta pilatuak. ☎627 735113.


**DENETARIK
galdu-aurkituak**

Argazki-kamara galdu da ekainaren 30ean Sunbillan, Marina eta Ibarra-aren ezkontzan, ustez, eliza inguruan. ☎699 635765.


urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea; 4) www.ttipi.net bitartez




Errotxapeako **MADDI VILLANUEVA NAVARROK** 3 urte beteko ditu abuztuaren 3an. Aunitz urtez saltsera, Alkaiagako familiaren partetik.



Sunbillako **JULEN LAZKANO ALZURIK** 4 urte bete ditu uztailaren 16an. Zorionak Leizta eta Sunbillako familia eta bereziki Oihane arre-baren partetik.



MALEN ETKEKOLONEA Diez zubieta-rrak urteak bete ditu uztailaren 15ean. Zorionak atxa, ama, Beñat eta Mikeleren, eta Irun eta Zubietako familien partetik.



IKER LOIARTE OTXANDORENA zubieta-rrak urteak bete ditu uztailaren 21ean. Aunitz urtez Zubietakoen partetik. Bina mu-xu Xarua, Garazi, Uxue eta Ekaitzek.



Gartzaiango **AITEXI BAXILIORI** aunitz urtez, uztailaren 11n urteak bete dituelako. Urko eta familiaren partetik mu-xu haundi bat.



Doneztebeko **MIKEL** eta **NEREA ARREGI** ETXARTEK uztailaren 20an eta abuztuaren 19an 4 eta 7 urte beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta mu-xu haundi bat.



Uztailaren 22an **IRUNE URROZK** 7 urte bete zituen eta bere ahizpa **MAIALENEK** bere eguna izan zuen. Zorionak guraso, senide, amaxi eta osaba-izeben partetik!



Lesakako **BEÑAT ARIZTEGI ALZUGARAIK** urtea beteko du abuztuaren 10ean. Zorionak Iturengo eta Lesakako familien partetik. Berendu goxoa prestatu!



Lesakako **UNAI ARANGUREN MUTUBERRIAK** dagoeneko 3 urte beteko ditu abuztuaren 1ean. Familia guztiaren partetik mila mu-xu, baina batez ere Naia bere lehengusina jaio berriaren partetik. Prestatu berendu goxoa guztiontzat!



Zugarramurdi-ko **PETTAN BELDA XURIK** 8 urte beteko ditu agorilaren 11n. Ongi ospatuko duzulakoan, aunitz urtez! *Per molts anys Pettanet!* Etxekoak.



Uztailaren 22an **IRUNE URROZK** 7 urte bete zituen eta bere ahizpa **MAIALENEK** bere eguna izan zuen. Zorionak guraso, senide, amaxi eta osaba-izeben partetik!



AZU IPARRAGIRRE ITURZAETAK urteak beteko ditu uztailaren 31n. Aunitz urtez etxeko printzesari! Prestatu merendu goxo-goxoa e! Mu-xu potoloa!



Arantzako **EIDER TABERNA MUTUBERRIAK** uztailaren 30ean 9 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta mu-xu bat familiaren partetik, bereziki Naroaren partetik.




GABRIEL AGIRRE ZELAIETA eta **XANTI AGIRRE GONZALEZ** beratarrek urteak beteko dituzte laster. Etxeko tikiak 5 urte beteko ditu uztailaren 30ean eta atattok abuztuaren 6an. Zorionak eta besarkada bero-bero bat amatto, bi amaxi eta ataxiren partetik. Ongi pasatu zuen egunak.



Uztailaren 22an **IRUNE URROZK** 7 urte bete zituen eta bere ahizpa **MAIALENEK** bere eguna izan zuen. Zorionak guraso, senide, amaxi eta osaba-izeben partetik!




Lesakako **BEÑAT ARIZTEGI ALZUGARAIK** urtea beteko du abuztuaren 10ean. Zorionak Iturengo eta Lesakako familien partetik. Berendu goxoa prestatu!



Lesakako **UNAI ARANGUREN MUTUBERRIAK** dagoeneko 3 urte beteko ditu abuztuaren 1ean. Familia guztiaren partetik mila mu-xu, baina batez ere Naia bere lehengusina jaio berriaren partetik. Prestatu berendu goxoa guztiontzat!



Arantzako **EIDER TABERNA MUTUBERRIAK** uztailaren 30ean 9 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta mu-xu bat familiaren partetik, bereziki Naroaren partetik.



Zugarramurdi-ko **PETTAN BELDA XURIK** 8 urte beteko ditu agorilaren 11n. Ongi ospatuko duzulakoan, aunitz urtez! *Per molts anys Pettanet!* Etxekoak.



GABRIEL AGIRRE ZELAIETA eta **XANTI AGIRRE GONZALEZ** beratarrek urteak beteko dituzte laster. Etxeko tikiak 5 urte beteko ditu uztailaren 30ean eta atattok abuztuaren 6an. Zorionak eta besarkada bero-bero bat amatto, bi amaxi eta ataxiren partetik. Ongi pasatu zuen egunak.




Uztailaren 22an **IRUNE URROZK** 7 urte bete zituen eta bere ahizpa **MAIALENEK** bere eguna izan zuen. Zorionak guraso, senide, amaxi eta osaba-izeben partetik!



Lesakako **BEÑAT ARIZTEGI ALZUGARAIK** urtea beteko du abuztuaren 10ean. Zorionak Iturengo eta Lesakako familien partetik. Berendu goxoa prestatu!

t tipi txartela

harpidetza baino merkeagoa da



+ t tipi-ttapa aldirkaria doan
42 dendetan deskontuak
hamabostero zozketa zugarriak

TIPIT-TPAren urteko kuota **32 euro** baino du.
TIPIT TXARTELA dutenek, **30 euro** pagatuko dute urtearen azkenean.
 Errmentaren Aitorpenarekin **10 euro** itzuliko baitzara.

40euro
- **10euro** 225eko desgrazatua
errmentaren
aitorpenen
30euro

AUTO eta BIZIKLETA kaleriak: Berrido / Daxu / Korta / Bibe / Somalerra / Zelan Motor
 AUTO ESKOLAK: Sempor **ARGAZKI-DENDAK:** Ayla / Oñko / Mera / Zaldia
ARRONPA-DENDAK: Sotxak / Ederna / Fardoko / Jurgi / Juan J. Pikabea / Rattalagorri / Rikusa
BIYXI-DENDAK: Etsarri. **ESTETIKA ZENTRUAK:** Anais / Araso. **ETXETRESNAK:** Artzi.
HAURREN GAUZEN DENDAK: Pitiaki. **JATETXEAK:** Pasaña Oñz / Elbetako Pasaña.
KINOLDEGIAK: Lesakako / Itzi / Koroategi. **KINOL-DENDAK:** Agiva / Ipari / Zela.
LENTZERIAK: Rattalagorri / Martini. **LIBURU-DENDAK:** Añaberrin / Maiten.
NUTRIZIOA eta DIETETIKA: Oñko / Kintez / Tika. **OPARI-DENDAK:** Añaberrin.
OPTIKAK: Itzi / Oñko. **PENTSUAK:** Mendaza. **TINDATEGIAK:** Jazira.
ZAPATA-DENDAK: Oñko / Txerria.



Xantelmar S.L. Zalaia Ind. z/g
31780 Bera- Nafarroa.
Tel: 948 625158 Fax: 948 625 157
www.martiko.com



BESTA ONAK PASA!



ZURE GOZAMENERAKO LEHENGAIK HOBERENAK.

DENDA ORDUTEGIA
Astelehenetik-ortziralera 08:00-17:00
Martiko Zalaia Ind. z/g 31780 Bera Nafarroa
Tel. 948 625 016 Fax: 948 625 036
www.martiko.com · martiko@martiko.com

ZORIONAK!

Zure erosketa gunerik hoberenak
Euskal Herriko bihotzean

Guztiak gurean dituzte!



www.venta-peio.com

(0034) 902 210 800



JAI ZORIONTSUAK